

# Zu hemen zaude.

# goiena



Elgeta, 36ko  
gerraren  
erdigunean

Charles Leadbeater  
idazleari  
elkarrizketa



## MONDRAGONEKO KOOPERATIBEN SOINU BANDA AURKEZTU DUTE

'Humanity at music' izena jarri diote proiektuari, musika, literatura eta ilustrazioak uztartuta; Durangoko Azokan izango da / 40

Proiektuan parte hartu duten Mondragoneko kideak eta kulturagileak Arrasaten, korporazio aurrealdean, atzo, eguna. Ezkerretik, eskumara: Pilar Kaltzada, Irati Jimenez, Josu Camara, Maite Mutuberría, Iñigo Ucin, Xabi Igoa, Gloria Totoricaguena, Javier Goienetxea, María Ubarretxena, Oriol Roch, Iñigo Albizuri, Fernando Velazquez eta Jon Sarasua.

JAGOBA DOMINGO

**Izaro Elorza injinerua aurkeztu dute, oraingoz, Oñatiko EH Bilduren alkategaia izateko hautagai / 34**

**Jon Odriozola, babes ekonomiko bila, aurrera begira Euskadi Muriasen proiektua sendotzeko / 38**



ETXEBIZITZA GEHIGARRIA / 21

#### SINADURAK

	IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ / 17
	ANA CARPINTERO / 31
	ESTEBAN IRUJO / 35
	AGURNE BARRUSO / 48
	ESTEPAN PLAZAOLA / 6
	HORAZIO ARGARATE / 10
	PERU ABARREGI / 14

**Arrasaten egindako benetako tren baten maketa, Manilarantz**

Sormen eta Ekide enpresek egin dute CAF tren konpainiarendako eta asteon eroan dute / 2



Manilako metrorako izateko tren maketa. EKIMEN LAB



**Xabi Gorostidi** ARRASATE

XXI. mendeko bezeroak gero eta zorrotzagoak dira, eta haien behar guztiak asetzeko ahalmena izatea estrategiko bilakatu da enpresendako; are gehiago, merkatu globalizatuan lehian ari diren enpresa handiendako.

Diseinu arloan 3D teknologia, batzuetan, ez da nahikoa izaten, eta bezeroek 1:1 eskalako maketa errealak eskatzen dituzte, dena ondo dagoela ziurtatzeko. Tamaina txikiko produktuetan hori ez da erronka handia, baina, metro lineak saltzen dituzten enpresen kasuan, erronka ez da makala.

**Ekimen Lab**

CAF enpresaren kasua da hori. Milioka euroko fakturazioa duten proiektuak eskuratzeko prozesuetan murgilduta daude, eta maketa zerbitzua emateko gaitasuna izatea ezinbestekoa da ahalik eta lehiakorrenak izateko orduan.

Hori eskaini ahal izateko, Ekimen Lab-en laguntza izan dute, Debagoieneko Ekide eta Sormen enpresen arteko negozio-unitatearena. "Gure bezeroa CAF da, eta Ekimen Lab fusio moduko bat da Sormen eta Ekide enpresen artean. Berrikuntzako proiektu berriak hobeto landu ahal izateko, indarrak batzearen alde egin genuen. Sormen proiektuak diseinatzen eta garatzen gara adituak eta Ekiden, aldiz, fabrikazioan eta industrializazioan. Hasi ginenetik, oso harreran estua izan dugu bi enpresok, eta duela urte batzuk erabaki genuen indarrak batzea; era horretan, proiektu guztiak duten lehen eta bigarren fasea, enpresa bakarraren bitartez jorratu ahal izateko. Bat eginda, proiektu gehiago geureganatzeko aukerak izango genituela ikusi genuen, eta horretan ari gara", azaldu du Sormen enpresako kide Asier Ugartek.

1:1 eskalako maketak egiteko hutsune bat igarri zuten merkatuan, batez ere, hemendik gertu. "Bion jakintzarekin, era horretako eskariak asetzeko gai ginela ikusi genuen eta pixkanaka hasi ginen, betiere, bezeroei eskaintzeko zerbitzu osagarri bezala".

**Orain arteko handiena**

Manilako metroarena orain arte egin duten 1:1 eskalako bosgarren maketa izan da.



Ekimen Lab enpresako langileak, maketa barruan aterako talde argazkian. EKIMEN LAB

# Maketa erraldoia, Manilara bidean

Ekidek eta Sormenek elkarlanean sortutako enpresa da Ekimen Lab. Azken bost hilabeteetan jo eta ke aritu dira tamaina errealeko tren bagoi baten maketa egiten, CAFek Manilan egingo duen metrorako, eta momentu, honetan, Filipinetara bidean da

"Txikiagoekin hasi ginen. Lehen Norvegiarako maketa bigun bat izan zen. Bigarrena Mexikoko metro baterako kabina bat izan zen eta hirugarrena, Marylanderako (AEB) beste maketa bigun bat. Ostean, Pariserako beste maketa bat, eta, udaberri-

**EKIDE ETA SORMEN ENPRESEK INDARRAK BATU ZITUZTEN ERA HORRETAKO MAKETAK EGIN AHAL IZATEKO**

tik hona, Manilakoarekin aritu gara; jo eta su. Iaz, sasoi honetan, eskaintza fasean aritu ginen, eta, behin proiektua guri eman ostean, udaberria ezker gabil-tza Manilarekin buru-belarri".

1:1 maketak egitearena ez da kapritxo. Hainbat gauzatarako baliatzen dute bezeroek: "Akabera estetikoak guztiz onartzeko, ergonomia aldetik dena ondo dagoela ziurtatzeko eta fabrikazio aurretik adostu beharreko xehetasun guztiak lotuta uzteko balio dute. Behin onartuta, diseinu fasea itxi egiten da".

"Filipinetako eta Japoniako delegazio bat Arrasatera etorri zen maketa bertatik bertara ikustera, eta leihoak sei zentimetro handitzea eskatu ziguten. Argitasun maila plano batean ikustea ezinezkoa da, eta horretarako balio dute maketek".

**ORAIN ARTE EGIN DUTEN MAKETA HANDIENA DA; 13 METRO LUZE ETA ZAZPI TONA PASATXO**

**Hiru fasetan egina**

"Lehenik eta behin, estruktura egin beharra dago, hori baita ondorengo guztiaren oinarria. Ondo egitea funtsezkoa da, horren gainean doazelako kanpoko eta barruko azalak, atek, eskulekuak... Estruktura egiten hastetakoan, diseinuak ez dira guztiz itxita egoten, eta fase horretan aldaketa dezente izaten dira bezeroen aldetik".

Bigarren fasean, barruko eta kanpoko azalak egiten dituzte, eta atal horretan arotzeria-lan handia dago. "Arotzek lana egiten duten artean, kanpotik datozen pieza mekanizatuak eskatzen eta jasotzen joaten gara: poliesterezkoak, egurrezkoak...". Fase horren barruan sartzen dira margotze lanak ere.

Hirugarren fasean, xehetasun guztiak errematatzen aritu dira: kristalak, atek, heldulekuak, panelak, botoi sistemak jartzea eta bestelako elementuak jartzea, alegia.

**Denbora eta exijentzia maila**

Bi faktore horiek izan dira maketa errealtate izateko izan dituzten zailtasun handienak. Bost hilabete izan dituzte maketa diseinatu eta muntatzeko -tartean, abuztua izan dute-. Uztailean, bezeroak eskatutako azken orduko aldaketak ere egin behar izan dituzte, baina, azkenean, garaiz egitea lortu dute.

Exijentzia mailari buruz zera dio Ugartek: "Gremio asko pasatu dira hemendik, eta ez daude ohituta era horretako proiektuak egitera. Euren arloan baino exijentzia maila handiagoa eskatzen du maketa batek; azken finean, bezeroen onarpen estetiko lortzea du helburu. Beraz, zaila da kanpotik etorri diren hornitzaileei hori barneraraztea. Gainera, proiektua bukatzetik gertuago dagoen heinean, akatsak egiteko marjina jaitsez doa eta exijentzia aldiz, gora. Hala ere, txapela kentzeko moduko lana egin dute denek, eta inplikazio handia izan dute".

**Garraio-lan bereziak**

Behin lan guztia eginda, maketa erraldoia Filipinetara bidean dago. "Astelehenean irten zen hemendik. Urduri geunden nola garraiatzen zuten ikusita, baina, zailtasunak zailtasun, ondo atera zen. Hemendik Bartzelonako portura doa, eta gero, Manilara".





Maketaren hiru faseak, irudiz irudi. EKIMEN LAB

## 225.000.000 euroko kontratua

2017ko azaroan, Filipinetako Errepublikako Garraio Departamentuak Mitsubishi eta CAF enpresei esleitu zien Manila hiriburuko metroko LRT-1 linea. Hain zuzen ere, kontratuaren kostua 225 milioi eurokoa da Japoniako eta Filipinetako gobernuen artean adostutako finantziazio programa baten bidez ordainduko da. Horren harira, ez da lehen aldia bi enpresa horiek batera lan egiten dutena, horrela egin baitzuten Istanbulera eta Canberrako metroetako proiektuetan ere.

Biztanleriaren dentsitateari dagokionez, Manila munduko handien artean dago, eta metro linea berri horren helburuak honako hauek dira: bidaiari gehiago hartzeko gaitasuna izatea, gutxiago kutsatzea eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea.

Linea hori hogeit hamar kilometro luze da eta Beasaingo CAF enpresak maketako bagoia



Filipinetako eta Japoniako lagunak, Arrasaten, maketa ikusten. EKIMEN LAB

bezalako 240 unitate egingo ditu; 2020 eta 2022. urte artean amaitu beharko ditu.

### Bezereen bisita

Irudian ikusten denez, Japoniatik eta Filipinetatik etorritako bezeroak Arrasaten izan ziren urri bukaera aldean, maketa *in situ* ikusteko eta oniritzia emateko. "Etorritakoen artean, Manilako metroko txoferrak ere bazeuden, eta kabina bertatik bertara ikusteko

aukera izan zuten, besteak beste".

### Sektore berrien bila

Egindako maketa horrek merkatu berrietako ateak zabaltzea espero dute Sormenekoek eta Ekidekoek. "Sektore berrietan bezeroak erakartzeko aukera emango digu lan horrek; ate asko irekiko dizkigu. Orain, erakutsitako gaitasun tekniko hedatzeko lan komertziala egin behar dugu".



# EUSKARALDIA

GOIENA TELEBISTA, AZKEN SAIOA

ABENDUAREN 3AN, ASTELEHENEAN, 21:15EAN ETA 23:15EAN

JULEN IRIONDOK ETA IZARO INSAUSTIK AURKEZTUTA

GONBIDATU BEREZIA: KIKE AMONARRIZ

**goiena**  
Zu hemen zaude.



# Oraingoz, "erantzun ona" izaten ari da Euskaraldia

Dagoeneko astebete igaro da Euskaraldia ariketa soziala martxan jarri zenetik, eta Arrate Illaro koordinatzaileak azpimarratu duenez, sentrazioak "oso onak" dira; Debagoienari dagokionez, 13.500 herritar inguruk eman dute izena ekimenean

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA

Hamaikatik zazpi pasatu diren honetan, gustura azaldu da Illaro, eta, balorazioak egiten has-teko goiz den arren, sentrazioak "oso onak" direla azpimarratu du. "Oso erantzun ona izaten ari da Euskaraldia. "Parte-hartzeari dagokionez ere oso datu onak ditugu. Espero baino hobeak dira izen-emate datuak, eta hori herrietan egin den lan eskergaren emaitza zuzena da. Euskaraldia 405 udalerritan martxan jartzea herrietako euskaltzaleek erabaki duten zerbait izan da".

Koordinatzailearen esanetan, horrek erakusten du egunerokoan euskaraz bizitzeko gogoia daukan



Photocall-a egin zuten Bergaran, Euskaraldiari hasiera emateko. EUSKARALDIA BERGARA

herritar asko dagoela eta ikusten dutela badaukatela beharra ekimen honi heldu eta hau baliatuta urrats batzuk egiteko. "Jende asko dago ez dela bizi berak nahi duen hizkuntzan, zailtasunak dituelako modu batean edo bestean, eta ekimen hau aukera moduan ikusten dute horretarako. Espero dut honek balioko duela arazo hori gizarteratzeko". Gaineratu du izena eman ez duen jende asko ere ari dela konturatzen Euskaraldiaren bueltan dagoen lanaz. "Uste dut konturatzen ari direla badagoela herritar sare handi bat beste zerbaiten beharra daukana. Ekimen honi esker, egunerokoan isilean pasatzen den behar hori nabarmentzen ari da egun hauetan".

## Herritarren bizipenak

Illarok dio palanka batzuk mugitzen ari direla egunotan, eta herritarren bizipenak jasotzen ari direla, horren lekuko. "Euskaraldia.eus/bizipenak" atarian zenbait bizipen jasotzen ari gara, eta Twitter bidez ere bai. Iruditzen zaigu ohitura batzuk astintzen ari direla, esperientzia

positiboak bizitzen ari dela jendea, eta oztopo batzuk ere ari dira identifikatzen. Hori bage-nekien, eta ez da txarra horiek jasotzea ere".

Ekimenaren behin betiko eraginkortasuna neurtzeko, ikerketa bat dute martxan, eta "horrek esango digu inertiak astindu ote diren, eta hizkuntza ohiturak aldatu ote diren". Hala ere, uda arte ez dute emaitzen berri edukiko.


## Bailaran ere, datu onak

Debagoienean ere izen-emate datuak onak dira. Guztira, 13.458 herritarrek eman dute izena: Antzuolan, 467; Aramaion, 341; Aretxabaletan, 1.454; Arrasaten, 3.882; Bergaran, 3.423; Elgetan, 314; Eskoriatzan, 845, Leintz Gatzagan, 80; eta Oñatin, 2.652.

## Euskararen Eguna

Datorren abenduaren 3an emango zaio amaiera Euskaraldiari, Euskararen Egunean. "Egiten ari garena handia da eta merezi dugu ospatzea eta bizipenak partekatzea. Baina ez dugu ekitaldi nagusirik egingo, herrian herrikoa izango da ospakizuna".


## Zer moduz doa Euskaraldia?



**ITSASO LOPEZ DE BERGARA**  
ARAMAIOKO 'AHOBIZI'-A

**"Zaila da ohiturak aldatzea, baina saiatzea da bidea"**


"Etxe tutelatu batean egiten dut lan. Lehenengo egunean, bi pertsona geunden. Ni *ahobizi* moduan eta erabiltzailea *belarriprest* moduan. Gure eguneroko harremanak gaztelaniaz izan dira orain arte, eta egubakoitzean euskaraz egiten saiatu ginen. Hala ere, eta biok oso kontziente ginen arren, zaila egin zitzaigun elkarriketa bat mantentzea, oso artifiziala zen biontzat. Azken batean, ohitura kontua da eta zaila da hori aldatzea. Saiatuko gara berriro ere; azken batean, hori da bidea, saiatzea".



**MARIA EUGENIA DORNALETCHÉ**  
ANTZUOLAKO 'BELARRIPREST'-A

**"Ondo moldatzen ari naiz, baina asko daukat ikasteko"**


"Ondo moldatzen ari naiz, baina oraindik asko daukat ikasteko. Pozik nago, jendea nirekin euskaraz egiten ari delako. Egunerokoan ikasten dut, jendearekin hitz egiten, galdetzen, entzuten, eta abar. Hitz berriak ikasten ari naiz eta erabili egiten ditut. Erabaki dut Euskaraldian parte hartzea, batetik, euskara gehiago ikasteko, eta, bestetik, euskaldunok ez daukazuelako zertan hizkuntzaz aldatu nirekin hitz egiteko. Euskalduna izan nahi dut. Nire alaba euskalduna da, eta horrela izan dadila beti".



**JOSE ANTONIO FERNANDEZ**  
OÑATIKO 'BELARRIPREST'-A

**"Euskaraldiarekin, euskara berreskuratzea erabaki dut"**


"Euskaraz egitea kostatu egiten zait apur bat, baina uste dut ohitura aldatzea dela kontua. Hitz bat ahazten badut, erdarakada bat botatzen dut, eta albokoari galdetzen diot. Euskaraz gaztelaniaz bezain ondo ulertzen dut. Izan ere, lehen, ondo egiten nuen, baina, eskola bukatzean, alde batera utzi nuen euskara. Euskaraldia dela eta, nire euskara berreskuratzea erabaki dut. Egun hauetan, probatzen ari naiz, lotsarik gabe, ea nola moldatzen naizen. Hala, ahaztuta nituen hitzak, pixkanaka, gogoratzen ari naiz".



**ARANTXA ARANZABAL**  
ARRASATEKO 'AHOBIZI'-A

**"Dagoeneko aldaketa handia nabaritu dut inguruan"**

"Euskaldun berria naiz, eta, hamaikakoaren parte naizenez, lehenago kontzientziatu nintzen euskaraz egin behar nuela. Dagoeneko aldaketa handia nabaritu dut inguruan. Dendan, adibidez, lehen, Asunek eta biok gaztelaniaz egiten genuen gehiena, eta orain, euskaraz hitz egiten dugu. Herrian ere jende asko ikusten da txapa aldean duela, eta nabaritzen da euskaraz gehiago hitz egiten saiatzen dela. Ibai-Arten Euskaraldiaren harira egin dugun erakusleihoen lehiaketak ere arrakasta handia izan du, eta hori polita da".



**IBORES AREJOLAIKAR**  
ESKORIATZAKO 'AHOBIZI'-A

**"Orain arte, oso erraza egiten ari zait Euskaraldia"**

"Orain arte, oso erraza egiten ari zait Euskaraldia. Ikastola batean egiten dut lan, eta, oraingoz, ez dut egoera zailik edo deserosorik aurkitu. Aurrekoan, adibidez, okindegira joan nintzen, eta langilea *belarriprest*-a zen. Hala ere, euskaraz oso ondo egin zidan, eta inongo arazorik gabe aritu ginen hitz egiten. Beste egoera kurioso bat tabernari batekin gertatu zitzaigun; *belarriprest* txapa zeukan, baina ez zuen ulertzen euskara, eta ea zer zen galdetu zigun. Berak parte hartu gura zuen, baina txapa kendu behar izan zuen".



# Etorkizuneko erronkak, idazlan batean jasota

Liburu Zuriaren oinarriak aurkeztu ditu Eusko Ikaskuntzak Oñatin; etorkizunari begira egindako hainbat proposamen, hain zuzen. Hiru administrazioen arteko Euskal Herri mailako telebistaren sorrera izan da erakundearen proposamen esanguratsua

**Eneko Azurmendi OÑATI**

XVIII. Kongresua Oñatin boro-bildu zuen asteburuan Eusko Ikaskuntzak, eta Liburu Zuriaren oinarriak aurkeztu zituen, "Euskal Herriaren etorkizuna hobetzen" lagunduko dutenak.

Eusko Ikaskuntza ez da organo exekutibo bat, erabakiguneetan daudenei proposamenak egiteaz arduratzen den erakundea da. "Eusko Ikaskuntzak beharrezko izaten jarraitzen du, epe luzerako norabidea markatzeko, erakundeetan eta erabakiguneetan ez dagoelako epe luzeko begirada eta begirada estrategikoa lantzeko ardurarik. Erakundeek lau urteka funtzionatzen dute, baita alderdien logikak ere", dio Mikel Irizarrek, kongresuko euskararen talde eragileko kideetako batek.

Hain zuzen, epe luzeko begirada horri lotuta daude Liburu Zurian jasotzen diren oinarriak. 44 orrialde ditu eta hainbat lan-lerro finkatzen dituzte.

## Komunikabideak

Kohesio sozialaren lan-ildoaren baitan, azpimarratzekoa izan da komunikabideen gaia. Hainbat joera ezkor zehazten dira dokumentuan. Horietako bat da esparru komunikatiboak, neurri handi batean, estatuek markatzen



Oñatiko plazan soka dantza egin zuten unea. IMANOL SORIANO

dituztela. "Euskal Herria ez da, gaur-gaurkoz, komunikaziozko herria. Masa komunikazio egitura sendoenak, alde handiarekin, Espainia edo Frantzia mailakoak dira. Eta horri, komunikazioaren globalizazioaren ekarritako uholdea gehitu behar zaio. Euskal Herriko komunikabideei dagokienez, gutxi dira Euskal Herriko zazpi herrialdetara zabaltzen direnak edota Euskal Herria erreferente gisa dutenak; hortaz, bertakoek islatzen duten irudia, orobat, zatiketa autonomikotik datorrena da, oso aukera gutxitan ager-

tuz zazpi lurraldeetako errealitatea", dio dokumentuak.

Horri aurre egiteko, "premiatzekoa" da Euskal Herriko Komunikazio Plan Estrategiko bat adostu eta abian jartzea. "Beste sektore batzuetan jadanik egin den bezala –industrian edo zientzian, esaterako–, komunikazioaren arlo estrategikotzat definitu eta hurrengo urteetarako helburuak, ekintzak, baliabideak eta ebaluazioak ezarri behar dira. Plan horrek ahalik eta eragile gehien artean adostua behar du izan", azaldu dute.

Horren baitan, Euskal Informazio Agentzia bat hartu dute komunikazio sistema indartu, espazioa propioa sendotu eta puntu mankomuna eragiteko bide garrantzitsuenetakotzat, eta, "euskal lurraldeen kohesioaren bidean, Euskal Herri mailako telebistaren sorrera" proposatzen dute, "hiru egitura administratiboren artekoa –Euskal Hirigune Elkargoa, Nafarroako Gobernu eta Eusko Jaurlaritzak–. Irizarren esanetan, kongresu horrek egin duen azpimarra garrantzitsua izan da azken hau. "Eusko Ikaskuntzak, bere sorrerari eta izaerari erantzunez, Euskal Herriaren eta proiektu bateratuan jarri du fokua. Proiektu horren zutabe garrantzitsua izango litzateke telebista".

## Euskara erdigunean

Euskal komunikazio sistema horretan euskara zentralitatera eraman beharra da beste puntuetako bat. "Euskara izango da, etorkizunari begira, euskal komunikazio espazio propio eta amankomuna eraikitzeke euskarri nagusia. Horretarako, ezinbestekoa da gure hizkuntza historikoa komunikazioaren zentralitatera eramatea, oraingo errealitatea ahaztu gabe, baina gertatzen ari diren aldaketa soziolinguistikoko gogoan izanik". Horrez gain, jadanik euskaraz aritzen diren komunikabideak indartzeko politikak garatu behar direla azpimarratu dute, baita horien arteko elkarlana bultzatu behar dela ere. Bestalde, euskara gutxi edota batere erabiltzen ez duten komunikabideak hizkuntzara erakartzeko politikak ezarri beharrez ere hitz egiten dute. Azkenik, "komunikazio politikak hezkuntza politikarekin adostu beharra dago, komunikabideen

bitartez eskolak abiatutako euskalduntze politikari osagarritasuna eta jarraikortasuna emanez. Betiere, euskaldundu berriak euskaraz sozializatzen laguntzeko helburuarekin".

Horiek izan ziren, Irizarren esanetan, euskararekin lotutako beste ideia batzuk: "Identitate partekatua bat eraikitzea euskararen eta euskal kulturaren bueltan; komunikabide sistema bat eraiki beharra; lankidetzaren garrantzia –erakundeetan inoiz ez bezalako politika aktiboak daude euskararen alde, eta hortik estrategia bateratu bat atera behar da, euskararen herria eraiki–; lankidetzaren publiko soziala –parez pare jartzea erakunde publikoak, gizarte eragileak eta gizarteak, eta euskararen alde lan egitea, Euskaraldian egiten ari garen moduan–".

Hiru lehendakariak Eusko Ikaskuntzaren adierazpena onartu dute. "Hori oinarri bat da lanean jarraitzeko, baina orain, erabaki egin beharko dute hau guztiau gauzatu daitekeen, nola eta zein epetan", dio Irizarrek.

## Soka dantza

Hiru administrazioetako lehendakariak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako diputatu nagusiek soka dantza egin ez izanak zeresana eman du. Oier Arabaolaza dantzariak, esaterako, gogor kritikatu du agintarien jarrera, *Dantzan.eus* webgunean idatzitako artikulu batean.

## ERAKUNDEAREN ADIERAZPENA ONARTU DUTE HIRU ADMINISTRAZIOTAKO LEHENDAKARIEK

## Omenaldi hunkigarria

Arrasateko Udalak Isaias Carrasco omendu zuen zapatuan. Udaltzako alderdi guztietako ordezkariak gain, Carrascoren alargunak eta hiru seme-alabek hartu zuten parte; txiki geratu zen udaletxeko osoko bilkuren aretoa.

Bukaeran, Isaias Carrascoren omenezko plaka erakutsi zien Maria Ubarretxena alkateak Marian Romerori eta Sandra Carrascori.



IMANOL SORIANO

## Kerexetaegia Hegokoa trikuharriko lanak, amaituta

Aranzadi Zientzia Elkartek ikerketa egin ostean, EHUko eta UNEDeko irakasleek osatutako diziplina askotariko talde batek egin ditu berreraikitze lanak, urria eta azaroa bitartean, eta dagoeneko trikuharria jatorrizko egoeran aurkituko dute bertaratzen direnek. Dolmen hori Elosua-Plazentziako estazio megalitikoaren parte da.





ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA

## 'Ahobizi' eta 'Belarriprest'

Lazkao Txikiri honela galdetu omen zioten behin: "Hi, Joxemiel, ze egin behar diagu euskeraren alde?". Eta Lazkao Txikik erantzun: "Euskeraren alde? Ze egingo diagu, ba, hitz egin!".

Ezin errezeta hoberik proposatu.

Euskararen alde gauza asko egin litezke, baina ez dago hori baino oinarritzakoagorik: hitz egin. Hori gabe, jai du edozein hizkuntzak.

Eta horixe proposatu digu Euskaraldiak: egin euskaraz eta eskatu beste euskaraz egiteko. Utzi lotsak, konplexuak eta aurreiritziak eta egin euskaraz. Alboratu nagiak eta aitzakiak eta jardun euskaraz. Hain simplea eta aldi berean hain nekeza gertatzen zaiguna. Eta hori bultzatzen jardun dugu euskara teknikariok aurtengo urtean buru-belarri.

Hamaika eguneko ariketa da Euskaraldia, eguneroko

### EUSKARALDIAK ASPALDI EZ BEZALAKO ILUSIOA ETA GOGOIA PIZTU DU HERRITARRONGAN

lasterketarako entrenamendua. Bergaran 3.400 herritarrek eman dute ariketan parte hartzeko izena: 2.800 *Ahobizi*-k eta 600 *Belarriprest*-ek. Izena emateko aukera zutenen %35 inguruk. Adin-tarte batzuetan, izena emateko aukera zutenen

erdiak baino gehiagok. Kopuru aldetik, espero izandakoa baino nabarmen emaitza hobea.

Baliteke, hala ere, guk nahi beste txapa kalean ez ikustea. Neguko jantzi-aldaketa ugariak, txapa zenbait jantzitan jartzeko zailtasunak... ikusgarritasuna kendu diote ekintzari. Txapa asko dabilta txaketa eta txamarra azpietan gorderik.

Baina txapa Euskaraldian bide da, eta ez helburu, eta bagenuen hasieran horrekin lotuta beldur bat: jende asko "txapa bistan eta euskara ezkutuan" ibiliko ez ote zen. Eta esango nuke alde horretatik balorazioa guztiz positiboa izaten ari dela: milaka lagunak, baita Euskaraldian apuntatu ez diren askok ere, entrenamendua serio hartu dutela. Euskaraldiak aspaldi ez bezalako ilusioa eta gogoia piztu duela herritarrongan, aspaldi ez bezalako inplikazioa enpresetan, elkarteetan, eskoletan, dendarietan...

Horregatik, eskerrik asko, *Belarriprest*; eskerrik asko, *Ahobizi*.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Gau amandrea

JAUME GELABERT

[HTTPS://LABUR.EUS/YGT8Z](https://labur.eus/ygt8z)  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Howard W. Campbell, Jr. antzerkigilea Jerusalemgo espetxe batean dago epaiaren zain. Bigarren Mundu Gerran aliatuen espioi izana, horren ongi bete du bere lana III. Reicheko Propaganda Ministerioan infiltraturik ezen AEBetako gobernuak jakinarazi baitio ezin duela publikoki onartu bere aginduetara aritu zela. Guzion etsai, gorroto dituen talde neonaziana izan ezik, aitormena idazten ari da ziega ilunean. [...]

Seguru asko, Solana kontseilariaren eta bere saileko langileen aurkako mehatxuak idatzi zituen sasi-literatoak ez du sekula inongo ziegari zapalduko. [...] Ez du benetako idazlerik bere istorioa zabalduko Kurt Vonnegutek *Mother Night*, Gau amandrea, eleberri zinez gomendagarrian Campbellena trebezia eta ironiaz kontatu zuen eta bere mehatxuzko oharrek bezain anonimo eta ilun gordeko da. [...] Nahiz eta tarteka garaipen txikiren bat izan Skolae programa zela eta, Iruñeko eskola batera deitu eta alabari zer postura eginaraziko ote zioten yoga saioan asaldatuta galdetu zuen aitarena, kasu ez du nobelaren protagonistaren

maila erdietsiko. Beharbada, bipolaritatea litzateke gure bi protagonisten amankomuneko ezaugarria. Batak, erregimen naziaren kontrako lanean, mezu naziak sutsu zabaldu zituen, neonazien ikur bilakateraino; besteak, balizko moral kristauaren defentsan, eduki pornografikoko mehatxuak igorri dizkie Hezkuntza Departamentuko arduradunei. [...] Campbellek, barne-barnean, ideologia faxista arbuiatzen zuen; jazarle baldarrak, aldiz, mehatxuen edukia maite duela erakusten du, oharkabean Skolaeren beharraren eredu bihurtuta.

Post gehiago 8. orrialdean.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Goyatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.  
**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.  
**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**



## BERBAGAI

# "Gozatu egin dut 'Buruz buru' liburuxken sortze-lanean"

MANEX AGIRRE BERTSOLARIA

Eneko Azkarate ARAMAIO

Atzo aurkeztu zuten *Buruz buru*, zazpi liburuxkaz osatutako kutxa. Kultur adierazpide askotariko zazpi sortzailek gaia jarri diete zazpi bertsolariri eta azken hauek prosan erantzun diete. Ruper Ordorika oñatiarrak eta Manex Agirre aramaioarrak hartu dute parte.

**Zein euskarritan argitaratu da?**

Liburuxka sorta bat da, zazpi liburuxka labur. Liburuxka bakoitzean, kulturgile batek gaia jarri, eta bertsolariok erantzun egin dugu; bertsotan barik, testu luzez. Joseba Sarrionandia, Uxue Alberdi, Gorka Urbizu, Nerea Ibarzabal, Onintza Enbeita, Eneko Sagardoy, Danele Sarriugarte, Igor Elortza, Andoni Egaña, Ilaski Serrano, Julio Soto, Maite Berriozabal, Ruper Ordorika eta nik neuk hartu dugu parte..

**Zuri, nork jarri dizu gaia?**

Ilaski Serranok. Udan egin genuen.

Manex Agirre, *Buruz buru* sortako bere liburuxka eskuan duela. LANKU

**Aurrez aurre zeundetela?**

Ez, idatziz. Eta ezelako testuinguru barik, lehenago elkarrekin egon barik. Testua jarri, eta horren ostean idatzi dut nik. Testua sortzeko abiapuntu eta tresna bakarra

izan da gai jartzaile rolean jarritako Ilaski Serranok idatzitako testua.

**Bertsolaritzaren ohiko moldetatik urruntzen den proposamena da.**

Bai. Sortzeko prozesua oso bestelakoa da. Testu bat

idazteak dakarren guztiarekin. Niretzako, zailena izan da asmatzea edo erabakitzea gaia nondik eta zelan planteatu, hau da, hasierako hausnarketa prozesua, idaztea bera baino gehiago.

**Abiapuntua zein izan da?**

Nirea ipuin bat da, narrazio labur samarra. Pertsona edo norbanako fikziozko edo ez fikziozko baten barruko minari egiten dio erreferentzia Serranok, eta baita min hori gainditzeko prozesuari ere. Hori da nik egin dudana interpretazioa testua abiatu eta eraikitzeko. Min bat aurkitu dut, eta ez da min fisiko bat, eta horren gaineko ipuin bat egin dut; bi pertsonaia ditu ardatz. Izenburua da *Kolpe*.

**Liburuxkak kutxa barruan sartuta salgai daude dagoeneko?**

Bai. Durangoko Azokan egongo da. Esan behar dut, bestalde, Malen Amenabarren diseinu landuz eta ilustrazioz lagunduta datozela liburuak eta kutxa.

**Emaitzarekin gustura?**

Bai. Literaturazalea naizen arren, formatu berria zen niretzako, erronka. Bertigoa izan dut, nire ofizioa ez delako eta nire ohiko alorra ez delako. Baina gozatu ere egin dut, egia esan.

## HAU BE BADOGU!

**Euskaraldia eta anekdotak sarean**



Aste osoan zehar *trending topic* izan dira #Euskaraldia, #belarriprest eta #ahobizi traolak txiolari euskaldunen artean. Izan ere, askok eta askok euren esperientziak partekatu dituzte sare sozialetan:

@jklakasta: "Kontsulta atzo Nafarroako ospitaleko errehabilitazioan, sendagile berarekin. Aurreko bietan, gaztelaniaz. Atzo, ahobizi txapa neramala ikusi eta, nik ahoa ireki aurretik, euskaraz hasi zitzaidan, irribarre zabal batez. #Euskaraldia."

**Zoramena Vigon Gabonetako argiekin**

Galiziako herriko alkatea sare sozialetako txantxen erdigune izan da Gabonetako argiak piztean eman zuen ingelesezko hitzaldi kaskarra dela eta:

@begiranago: "Pena da Berlanga hilda egotea, benetan. Mr. Marshall-eko alkatea, XXI.mendean".

@GoizaldeL: "Vigoko alkatea... Ez dakit zelan esan, entzun ezazue".

@Joxe: "Vigoko alkatea Gabonetako argien izpirituak hordituta-edo..."

**Durangoko Azokarako dena prest dago**

Abenduaren 5ean, Ikasle Egunarekin, emango diote hasiera 53. Azokari, eta dagoeneko sortzaileak, hedabideak eta herritarrak Durangoko berritasunei begira jarri dira:

@ttapaldizkaria: "Durangoko Azokaren gaineko edizio berezia kaleratuko dugu ostiralean! Gune guztietako arduradunen azalpenak; liburu, disko eta ikus-entzunezkoen gomendioak; azokako oroitzenak eta gehiago!"

## ITURRI ONETIK

## Urreiztietaren gaineko lana, Arrasatera

Donostia Zinemaldian aurkeztu zuten Josu Martinezen *Jainkoak ez dit barkatzen* dokumentala. Aita bergararra zuen Lezo Urreiztietara santurtziarraren bizitza kontatzen da, Urreiztietaren eta Martin Ugalderen arteko solasaldi luzeen grabaketetatik abiatuta. Orain estreinatu dute, eta Arrasatera helduko da urtarrilaren 25ean. Agirre lehendakariarekin eta Prieto sozialistarekin harreman estuak izan zituen Urreiztietak Espainiako gerraren sasoiaren.

## ALBISTE IZAN ZEN

2007-11-26

## Amaitu gabeko etxeetatik 30 galdara ostu

Elgetako Urruburun egiten ziharduten etxebizitza familiarretan eta bi bizitzako etxebizitzetan 30 galdara ostu zituzten. Horretaz gain, Bergarako San Antonio kalean egiten ziharduten etxebizitzetan ere beste 30 galdara lapurtu zituzten lapurrek. "Profesionalek egindako lana" zirudiela esan zuen Ertzaintzak. Leihoak apurtu, etxebizitzetan sartu eta galdarak banan-banan desmuntatu zituztela adierazi zuten.





## GUTUNAK

## Lau urtaroak

**IÑIGO GARITANO LARRAÑAGA**  
BERGARA

Negua. Azaroaren 24an urtea bete da GOIENAn zinemaz egin nuen eskaera idatzia argitaratu zenetik. Gogoan dut egun batzuk geroago ezagun batek, adar jotze puntu batekin, esan zidala gutuna argitaratzea eraginkorra izan zela, hurrengo astean Udalak iragarri baitzuen Seminarixoan zinema ekipamendua eskuratzeko asmoa bazuela orduan, eta 2018an zinema berriz izango genuela Bergaran.

Uda. Berdin jarraitzen dugu. Komunikabideetan iragarri zen 2018ko uztaile edo irailerako martxan izango zela; gero, arduradun politikoki bati irakurri nion Olentzeroren oparia izango zela.

Udaberria. Orain, berriz, 2019ko lehenengo hilabeteetan izango omen dugu aukera zinema ikusteko; badirudi oraingoan baietz, zinema emateko ekipamendua eskuratu dela.

Baina ezin ahaztu aurtengo urtarrilean kultur gaiez interesatutako herritar mordo bat elkartzu ginel, jatorriz eta adinez oso anitzak, eta Seminarixoko ekipamenduaren kudeaketa Udalarekin elkarrekin jarduteko borondatea erakutsi genuela. Badirudi Udalak ez zuela proposamena aintzat hartu ere egin. Tamalgarria. Zinemari

dagokionez, programazioan eta kudeaketa parte hartzeko gogoan duenik izanik, udal arduradunei eskatuko nieke ikuspegi irekiarekin aritzeko, mesfidantzak baldin badaude horiek baztertu eta eskaintzen den lankidetzeta eta jakituria onartzea. Bergaran bada zinemaz guztioi erakutsi ahal digutenik. Ondo legoke aukera bat ematea, planteamenduak elkar trukatzeta eta egindako inbertsioari etekin sozial ahalik eta handiena ateratzea.

Espero dezagun urtebete barru, aipatzea falta zaidan urtaroan, berriz honetaz hitz egiten ibili behar ez izatea.

## Mangera, berandu eta gaizki

**IBAN DIAZ**

MUSAKOLAKO BTT TALDEAREN IZENEAN  
ARRASATE

Arrasateko agintariak herritarren eskarienganako zein errespetu gutxi duten erakusten du bizikletak garbitzeko mangeraren historiak. Duela 3 urtetik, modu askotan eskatu dugu: BAZen Zigorrolako alkatetzaren aldetik, guk geuk Udaleko Kiroletako batzordean, bizikleta munduko herriko taldeekin proposamen bat aurkeztu genuen... baina Gobernuak ez du mangera nahi izan. Azkenik, aurrekontu parte hartzaileei esker derrigorrez egin behar izan dute, 2. bozkatuena izan zelako. Argi dago herritarrek

behartuta ipini dutela eta ez dutela gustuko, ezta turismo, kirol edo mugikortasunerako azpiegitura interesgarri bezala ikusten. Bestela, arlo horietako aurrekontu arruntekin aspaldi jarrita egongo zen, edo, guk proposatu bezala, auzolanean egina.

Gutxi balitz, ez gaude konforme gauzak nola exekutatu diren. Hasteko, bozkatu ez zen leku baten jarri delako –erdigunean, Udaltzaingoen ondoan planteatu eta bozkatu zen–, ordaindu egin beharko da eta eskaria egin genuenokin ez dute ezer kontsultatu edo azalpenik eman.

Ura kontrolatzearen alde gaude, baina ordaindu gabe. Adibidez, erabiltzaileen izenean leudeken txartel magnetikoekin. Harrituta gaude, gainera, ura erantzukizunez erabiltzeko ordainduko dela entzun eta gero, ur zikina –kateko olioarekin, eta abar– zuzenean errekarra joango dela ikustean, eta ez, udaletxean eskatu genuen bezala, araztegiara. Harrituta gaude, gainera, Munarren umeentzako ur jolas parke bat egingo dela irakurtzean; dohainik, noski. Hirigintzako arduradunari bidegorrien alde dagoela irakurtzeak ere txunditzen gaitu, ez dakigulako ziur bidegorririk nahi duen.

Besterik gabe, eta gure nahiak bete dituzuelakoan, atera dezakezue argazkia.

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Euskaraldiak

**JON ORDOÑEZ GARMENDIA**  
HTTPS://LABUR.EUS/QWNFV  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Euskaraldia bat da, eta aldi berean hamaika dira euskaraldiak. Ez 11 egun direlako, baizik eta *ahobizi* bat, *belarriprest* bat edo euskaraz zipitzik ere jakin nahi ez duen norbait dagoen lekuan euskaraldi bat dagoelako. [...]

Ez da gauza bera lehen hitza euskaraz egitea Ondarroan edo Bardozen. Ez da gauza bera euskaldun izatea Goizuetan edo Garesen. Euskara da ardatz, baina ardatz berak ez du balio inguru euskaldunetarako eta erdaldunetarako.

Lehenengoetan erronka pertsonalagoa baita, eta bigarrenagoetan, sozialagoa, nazionalagoa. Berebiziko garrantzia du horregatik inguru erdaldunetan bizi diren euskaldunak euskararen alde egiten ari diren lana, konpromiso eredugarria inguru euskaldunetan erronka pertsonalagoa dutenentzat. [...]

Hori guztia aintzat hartu gabe sekula ez lirakeke neurtu behar inguru ez-euskaldun batean euskararen alde egiten den lana eta lortzen den emaitza. Euskaraldia ez delako bakarra. Inguru erdaldunetan kantu-pote bakoitza delako euskaraldi bat, jolas-gau bakoitza delako lorpen bat. Inguru erdaldunetan euskaldunek elkar ezagutu behar dute lehenik. Eta konplizitate sortzen den bakoitzean euskarak arnasa hartzen du.

## Populua

**ANDONI EGAÑA**  
HTTPS://LABUR.EUS/NHZK7  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Esango nuke guk estreinatu genuela jendaurrean. [...] Hamalau-hamabost urteko gazteak ginen gehienak, taldetxo bat herriko musika akademian –zentzurik platondarrenean hartu hau, ikasketa ahalik eta osoenarenean–. [...]

"Kalera, kalera!" hark gerora izango zuen hedapenaz ez genuen deus sumatzen. Ikasi genuen doinua nola edo hala, betiere taldekoren batek guk baino hobeto ikasiko zuen esperantzan. Eta ikasi genuen letra ere. Baina gogoan dut azken orduan sortu zen eztabaida, baten edo bestearen aldeko zein-nor ziren gogoratzen ez badut ere. "Bultza ta bultza euskal langile, euskal herri sufritua...". "Herri" hori neutroegia zela, burges-txikiogia esango zuen norbaitek, eta ea zergatik ez genuen "euskal populu" kantatzen. Joe! Ikasten pasatako orduak pasatu eta gero! Silaba bat gehiago gainera! Azkenean, "herri" kantatu genuen eta hala geratu zen.

*Handik bost-sei urtera, Bryanen bizitza* pantaila handian ikustean berriro zitzaidan pasadizoa. Orain, irakurri berri dut "populu" hitza Harkaitz Canoren *Fakirren ahotsa* eleberrian. Garai hartaz ari da...

Post gehiago 6. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**





# Mila eurotik gorako obrek diru-laguntza dute

**IKER URBINA SURADESAKO ZUZENDARIA**

Debagoieneko herrietan etxebizitza eta eraikinak hobetzeko aholkularitza tekniko zein juridikoa eta diru-laguntzen kudeaketa eskaintzen ditu Suradesak

Suradesako zuzendari Iker Urbinak lehen eskutik azaltzen ditu zerbitzu publiko horrek herritarrei begira eskaintzen dituenak.

**Zer da Suradesa eta zer zerbitzu ematen ditu?**

Debagoieneko herritarrei zuzendutako zerbitzu publikoa da. Etxebizitza eta eraikinen birgaitzerako aholkularitza eta diru-laguntzen informazio eta tramitazioaz arduratzen da. Zerbitzu honekin lortu nahi duguna da Debagoieneko etxebizitza eta eraikinen segurtasuna, kalitatea, irisgarritasuna eta energia eraginkortasuna bermatzea. Eskualdean hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzen dituen Eusko Jaurlaritzako Bizigune programa ere kudeatzen dugu. **Etxe batean obra egiterakoan, zuegan jo daiteke?**

Bai. Obra guztiek, etxe barrukoek zein komunitatekoek, dute diru-laguntza, bizilaguneko gastua 1.000 euro baino handiagoa baldin bada. Adibidez, komun edo sukalde berritzeak, galdara edo leihoak aldatzea edo etxebizitza guztiz eraberritzea. Diru-laguntzen eskaera hori obra hasi aurretik egin behar da.

**Eta komunitatean obra bat egin behar bada, zeintzuk dira eman beharreko pausoak?**

Ezer egin aurretik gurekin kontaktuan jartzea gomendatzen dugu. Guk obra era egokienean aurrera eramateko jarraitu beharreko pausoak azalduko dizkiegu: lortu beharreko akordioak, teknikoki egon daitezkeen aukera desberdinak, momentuan indarrean dauden diru-laguntzak eta horiek nola lortu...

**Eta etxebizitza bat erosteko asmatan ibiliko bagina?**

Bigarren eskuko etxebizitza alde zaharrean edo Debagoieneko herri txiki batean kokatuta badago –Antzuola, Elgeta edota Gatzagan– diru-laguntza bat eskuratu daiteke. Erosleak Etxebiden alta emateko baldintzak bete behar ditu, eta dituen diru-sarrerak baldintzatzen du jasoko duen laguntzaren zenbatekoa. **Renove proiektuan hainbat etxebizitza eraikuntza daude sartuta. Zein puntutan daude?**

**Renove** Eusko Jaurlaritzak birgaitze integralerako ematen duen diru-laguntza berezia da. Irisgarritasuna eta efizientzia ener-

**"KOMUNITATE BATEK OBRAK EGITEKO ASMOA BADU, EIT AURRETIK EGITEA GOMENDATZEN DUGU"**

getikoa bermatu behar dira diru-laguntza hauek eskuratu ahal izateko. Azken deialdian, Debagoieneko hamaika komunitatek 1.773.773,75 euroko diru-laguntzak eskuratu zuten; guztira, 162 etxebizitzak. Orain, 2018ko deialdira aurkeztu diren eskaerak lantzen gabilta.

**Eta auzo oso batek behar edo nahiko baluke birgaitze bat?**

Bloke batek berritze lanak egin nahi dituenean, saiatzeko gara auzokoei zabaltzen eta beraien arteko akordioak lortzen. Normalean, garai berean egindako etxeek antzerako arazoak izaten dituzte, eta, gure ustez, arazo horiei erantzun hobea ematen zaio auzo guztia osotasunean hartzen bada. Arrasateko Markatzena auzoa edo Bergarako Martoko auzoa izan daitezke horren adibide. Gure erronka nagusietako bat da hau, birgaitzeak auzo mailan egitea.

**Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa (EIT) egitea derrigorrezkoa da 50 urte baino gehiagoko etxebizitzetan. Baina ordura arte itxaron behar da?**

Lehenago egitea ez da beharrezkoa; eraikinak 50 urte betetzean, urtebeteko epea dago txostena Udalean aurkezteko. Komunitateko obretarako diru-laguntzak eskatzeko, ordea, EITren txostena aurkezteko derrigorrezkoa da,



Bergarako Martoko eraikinak, fatxada berrituta eta isolatuta. SURADESA

eraikinak 50 urte beteta izan edo ez. Dena den, komunitate batek obrak egiteko asmoa izanez gero, EIT aurretik egitea gomendatzen dugu, egin nahi dituzten obra horietan EITn azaldu daitezkeenak konpondu ahal izateko.

**EITri buruzko dekretua, gainera, aldatu egin da, ezta?**


Dekretu berria irailean argitaratu zen, eta bi aldaketa nabarmendu behar dira: alde batetik, familia bakarreko etxebizitzetara ematen zaien tratamendua malgutzen da; bestetik, baserriek

eskakizuna bete behar duten edo ez zehazten da.

**Alokabiderek ere badaukazue harremana.**

Batez ere, Alokabiderek Bizigune programaren bitartekaritza lanak egiten ditugu. Jabeek, programan, etxebizitza alokairuan jarri ahal izateko kudeaketa egiten dugu eta maizterren eskaerak eta Alokabidek erabakitako esleipenak kudeatzen ditugu baita ere. Programa honetan parte hartzeak abantaila handiak dituela esango nuke.


**OBRAK ETXEAN?**



INFORMATU


**BADAKIZU LAGUNTZAK LOR DITZAKEZULA?**


**KOMUNITATEAN edo ETXEAN egiten diren obrek hainbat laguntza dituzte eskura: onura fiskalak, mailegu kualifikatuak eta zuzeneko diru-laguntzak. GUK LAGUNTZEN BERRI EMATEN DIZUGU ETA TRAMITATZEN DITUGU.**



**SURADESA**  
Hiri birgaitzea • Rehabilitación urbana

Nafarroa etorbidea 17, Arrasate-Mondragón 07:30-14:00  
suradesa@suradesa.eus / 943 79 33 99 / twitter: @suradesa







# Bizikletentzako txorrota erabiltzeko prest dago

Aurrekontu parte hartzaileetako bigarren proposamen botatuena erabilgarri dago astelehena ezker. Ura neurritz erabiltzeko fitxa sistemarekin dabil, eta 20 zentimoren truke eskuratu daitezke kiroldegian. Musakolako BTT taldeak ez du begi onez ikusi

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Bizikletak garbitzeko gunea erabilgarri dago Musakolako Arruena parkean, eta astelehenean egin zuten horren aurkezpena Maria Ubarretxena alkateak eta Kirol zinegotzi Ander Garayk.

Esan bezala, aurrekontu parte hartzaileetan boto gehien

pilatu zituen bigarren proiektua izan zen -552 puntu jaso zituen-, eta Udal Gobernuak 2018an zehar proiektua errealitate bihurtzeko konpromisoa hartu zuen.

Guneak 7.500 euroko inbertsioa izan du eta erabiltzeko prest dago. "Txapa bidezko sistema ipini dugu. Ez da dirua biltzeko neurri bat, kopuru

sinbolikoa delako. Arazo larria dugu Garagartzako autoak garbitzeko gunean, ur kontsumo oso handia dugulako, eta pentsatu dugu hemen bestelako sistema bat jartzea. Garagartzako gunean ere zelan jokatu pentsatu beharko dugu; izan ere, erabiltzaile batzuek erantzukizun handiz jokatzeko dute, baina beste batzuek ez", azaldu du Ubarretxena.

2017ko azaroan, Garagartzako arazoa konpontzeko 20.000 euroko partida bat egongo zela esan zuen Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun zinegotzi Ibon Arrupek, baina gaur gaurkoz ez da esku hartzerik izan.

## Fitxa sistema


Garagartzako guneak duen kontrol falta saihesteko, fitxa sistema bidez funtzionatu du txorrotak. 20 zentimoko prezioa jarri diote, eta kirol-



Maria Ubarretxena eta Ander Garay, Arruena parkeko gunean. LARRAITZ ZEBERIO

## Hasteko, 100 fitxa; laster, gehiago

Erabiltzen hasteko 100 fitxa jarri dituzte, baina alkateak adierazi du laster gehiago jarriko dituztela. "100 fitxa daude une honetan, baina gehiago eskatu ditugu; pentsatzen dugu jendeak hainbat hartuko dituela kiroldegira behin eta berriz joan behar ez izateko".



degiko harreraren eskuratu daitezke.

Fitxa batekin hiru minutuz ematen du ura txorrotak. "Nahikoa denbora dela pentsatzen dugu. Ur emaria ere egokia delakoan gaude", adierazi du Kiroldegiko zinegotzi Ander Garayk. Erabilera egokirako ondorengo arauak ere aipatu zituen: "Gune honetan ezin dira motordun ibilgailuak garbitu, eta ezin da xaboirik edo bestelako garbiketara produkturik erabili".

## Musakolako BTTkoen oharra

Behin inauguratuta, Musakolako BTT taldeak gutuna igorri dio GOIENARI. Aurrekontu parte hartzaileetan Udaltzaingoaren egoitza alboan egitea eskatu arren, beste kokapen batean jarri dutela salatzen dute, besteak beste, eta baita eurekin kontsultatu gabe egin izana. Ur kontsumoa kontrolatzeko beste sistema bat ere planteatzen zuten, baita eta bertatik aterako ur zikina araztegi bideratzea ere. Gutuna osorik irakurtzeko, jo zortzigarren orrira.



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

## Baratzeko pikukak

Urteak dira Sozialisten nagusia Garcia Damborenea izan zela. Mitin batean, La Casillan, ibaiaren ezker aldeko sozialistaz beterik zegoela, Rikardok, euskarari barre egin nahian, hitz moteletan, ia ezinean, eta gaizki ahoskatuta, jendetzaurrean aurrean bota zituen koplak ezagunaren hasierako hitzak.

*Baratzeko pikukak hiru txorten ditu...*

Hango publikoaren hizkuntza ulertu ezina isiltasun bihurtu nahian egin zuen, baina berak ahoa itxi zuenean, taldeak, mutu egon beharrean, buruzagiari sekulako txalo zaparrada bota zion. Damboreneak, haserretu, eta txaloak bertan behera uzteko garrasia egin zien -gaztelaraz, noski-, ez baitzuen nahi euskara goratu zezaten. Ariketa praktikoa batekin adierazi nahi izan zion Aitorren hizkuntza soberan zegoela, baina bertakoek, nahiz eta euskaraz tutik jakin ez, hemengo hizkuntzari errespetu eta zaletasun bat zor ziotela pentsatu zuten, eta euren euskaltasun txikia eskuak astinduz nabarmendu zuten.

Kamaradek txortan ez, popatik eman zioten. Horra hor *belarriprest* izateko lehenengo pausoa.

## OHARRAK

### Gabonak eta dolua

Norbaiten falta izanez gero horri aurre egiten laguntzeko hitzaldia antolatu dute San Felipe Elkarteok. Abenduaren 10ean, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian.

### Palestina

Hango doinuak gaur Irati tabernan, 23:00etan. Domekan, Palestinako Aida errefuxiatu gunean bizi den Bilal Jadouk hitzaldia egingo du, 18:30ean.

### San Nikolas

Musakolako haurrak ez dira goxoki gabe geratuko, Jai Bartzordeak bolo-boloa egingo baitu aurten ere. Abenduaren 6an izango da, 12:00etan, Herri Eskolan bertan.

## Oposizioak dio politikarientzako kode etikoa ez dela EAJren ideia

Oscar Garciaren salaketaren afera "estaltzeko" ahalegin bezala definitu dute jeltzaleek egindako proposamena

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Ikusitakoaren arabera, alderdi guztiak ados daude kode etikoa bat adostarekin, baina oposizioak salatu du kode etikoarena ez dela EAJren ideia izan. Horren egiletzarekin ondorengo irakurketak egin dituzte: EH Bilduk dio "politikarien jokabide eze-goki hainbati erantzuteko kode baten beharra" oposizioko alderdiek jarri dutela mahai gainean, eta irailaren Berdintasun Batzordean jasotako aktekin hala frogatzen dutela. Baleikek ere irailako batzarretan landu zela

aipatzen du. EAJk, berriz, dio batzorde horretan "komentatu zela" ez dagoela "inongo protokolorik", eta, horren harira, kode bat adostea proposatu zutela bozeramaileen batzordean. Bestalde, Irabazik dio bozeramaileen batzordean eurek proposatu zutela.

Oposizioaren iritziz, gobernu-kide baten aurka izandako salaketaren aurrean egindako kudeaketaren aurrean "euren burua zuritzeko erantzun inprobisatua" izan zen EAJk hilaren 21ean egindako agerraldia.



Alejandro Iturbe Arana *Malbe*, Bedoñako artzaina. JOSEBA GARITAONAINDIA

# 'Malbe'-ri buruzkoak, zazpigarren zikloa ixteko

Bedoñako artzainari buruz Maixol Iparragirrek eta Joseba Garitaonaindiak egindako hitzaldiarekin amaitu da AZEkoen 'Iragana Astintzen' zikloa. "Ur eta larre libreak" exijitu zituen, nekaezin, eta XIX. mendeko artxiboek frogatzen dute haren eskaria legezkoa izan zela

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Alejandro Iturbe Arana, *Malbe* ezinez ezaguna zena, 1888an jaio zen, Bedoñan. Txiki-txikitatik -7 urterekin- lanera joan zen Bedoñako Magalbe baserrira, morroi, eta bertatik zetorkion *Malbe* ezizena. Honelaxe deskribatu zuen gertutik ezagutu zuen Modesta Arangurenak: "Altua, guapoa, indartsua eta burugorria". Azken adjektibo hori ondo merezita zuen, batez ere, lur-jabeekin izan zituen istilu eta eztabaida amaigabeengatik.

## Artzain izateko hautua

XIX. mende bukaeran jaio zen, eta, orduan, Arrasate industrializazio prozesuan zegoen. Edozelan ere, argi izan zuen abeltzaintza izango zela bere bizimodua. Garai hartan, zelaiak lantegiarekin aldatu zituzten baserritar askok, eta, epe laburreko errentagarritasuna lortzeko, gaur egun gainbeheran dauden pinudiak nonahi ugari zituen. Testuinguru hura ez

zen aproposena artzain jarduteko, baina bazeuden zailtasun handiagoak. Frantseseek eta Karlistaldiak eragindako gastuak estaltzeko, hainbat herri lur pribatizatu zituzten. Horren eraginez, zelai libreak burdinhariz eta hesiz bete ziren, eta transhumantzia aritzen ziren artzainentzako oztopo itzela zen.

*Malbe*-k horren aurka borrokan pasa zuen bizi osoa, azken arnasara arte. Nonbait entzuna zuen herri lurrak saltzerakoan, baldintza moduan ezarri zela bertako urek eta belarrek herriarentzat izaten jarraitu behar zutela, eta horregatik aldarrikatatu zituen, nekaezin, "lur eta larre libreak".

**HIZLARIEN ARTXIBO LANAK FROGATZEN DU 'MALBE'-REN ALDARRIA LEGEZKOA ZELA, ERABAT**

Aldarrikatzen zuen araua *Malbe* jaio baino 50 urte lehenagokoa zen, eta, Joseba Garitaonaindia hizlariak esandakoaren arabera, jauntxo askok ahaleginak egin zituzten arau hura ahaztu zedin. "Ikerketa prozesuan jakin genuen Oñatiko jauntxo aberats batzuk prest zeudela dirutza ordaintzeko arau hori jasotzen zuten agiriak erretzeko".

Joseba Garitaonaindiak eta Maixol Iparragirrek ikerketa lan sakona egin zuten, *Malbe*-ren aldarrikapena legezkoa zela frogatzeko. Hala, Aretxabaletako eta Eskoriatzako artxiboan egindako ikerketan, urek eta larreek libreak izan behar zutela zioten dokumentuak aurkitu zituzten, 1839koak eta 1853koak.

Parisen preso dagoen Iparragirren hitzekin hasi zen martitzeneko hitzaldia, eta Garitaonaindiak esker hitzak izan zituen *Malbe*-ri buruzko testigantzak batzeko etxeko sukaldea parezparez ireki zieten guztientzako, baita AZEko kideentzako ere.



Azkarragaurizar, Zubizarreta, Barberena, Altuna eta Galparsoro. ENEKO AZURMENDI

## EH Bilduren alkategaia bilatzeko prozesua, alkate ohiek babestuta

Maiatzeko hauteskunderi begira "gogotsu eta ilusioz" daudela azaldu du Barberenak, "Arrasate hobe bat lortzeko"

## X.G. ARRASATE

EH Bilduk agerraldia egin zuen martitzenean, alkategaia aukeratzeko martxan duten kanpainaren berri emateko. Bertan, Eneko Barberenak hartu zuen hitza, baina ez zen bakarrik egon, alboan lau alkate ohi izan zituen: Iñaxio Azkarragaurizar, Xabier Zubizarreta, Eneko Barberena, Jose Antonio Altuna *Txatillo* eta Ino Galparsoro.

"Duela lau urte ez genituen behar bezalako emaitzak lortu. Urte hauetan, gogor egin dugu lan horiek gainditu eta etorkizunean ikusi nahi dugun Arra-

sate irudikatzen eta egikaritzeko. Orain, garai berri bati ateak ireki nahi dizkiogu", adierazi zuen Barberenak. "Aurkezten zaigun erronka ez da erraza, baina eraberrituta, ilusioz eta gogotsu gaude lan egiteko".

Abenduan alkate izateko hautagaiak aurkezteko epea egongo da, eta parte hartzeko dei egin diote euren komunitateari, eta noizbait huts egin dietela ueste duten horiei ere. Hiru bide jarri dituzte horretarako: 644 29 85 87 Whatsapp zenbakia, *elkarrekin.ehbildu.eus* ataria eta *arrasate@ehbildu.eus* helbide elektronikoa.

EUSKARALDIA

## Euskaraldiaren amaiera ekintzaz beteta dator

Hizkuntza ohiturak iraultzeko ariketa soziala asteleheneko Euskararen Egunean amaituko da, eta Arrasateko Batzordekoek ganoraz agurtzeko moduko egitaraua prestatu dute.

18:00etan, Herriko Plazan, *flashmob*-a grabatuko dute, eta bertan parte hartu nahi dutenek Arrasateko Euskaraldiaren Facebook orrian aurki dezakete dantza ondo-ondo ikasteko bideoa. Ostean, 18:30ean, Potx eta Lotx pailazoek *Agur Euskaraldia?* izeneko ikuskizuna egingo dute. Behar bezala amaitzeko, ordea, kontzertu sorpresa bat izango da, 19:00etan.

## OHARRAK

### Pentsiodunak

Astelehenean Herriko Plazan elkartuko dira, 12:00etan.

### 'Harira' programa

Oscar Garcia PSE-EEko bozeramaileak Eneko Azkarateren galderak erantzungo ditu, asteartean, Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean.

### Jaikiren egitaraua

*Argala*-ri buruzko hitzaldia, film proiektzioa eta murala egingo dituzte abenduan.

### Prebentzio Saila

Gurasoentzako hitzaldia egingo du abenduaren 13an, sare sozialak eta seme-alabak ipar hartuta.

# Ponferradan egindako lanarekin gustura

**IOSU MADINABEITIA ETA ANE GARCIA** KARATEKAK

Euskadiko Txapelketan garaile irten ziren Saioa Taldeko bi karatekak, junior mailan, eta horrek Euskal Selekzioarekin Espainiako Txapelketan aritzeko aukera eman die

**Jokin Etxebarria** ARRASATE

Euskadiko Txapelketan garaile irten eta gero, Saioa Karate Taldeko Ane Garcia eta Iosu Madinabeitia Ponferradan (Leon) izan dira Espainiako Txapelketan parte hartzen pasa den asteburuan. Kumite (borroka) modalitatean, junior mailan, parte hartu dute biek. Anek, 59 kilo gorakoetan; Iosuk, berriz, 55 kilo azpikoetan. Euskal Selekzioak bost domina eskuratu ditu, arrasatearrek ez, baina egindako lanarekin eta bizi izandako esperientziarekin oso gustura bueltatu dira.

**Zer sentitzen da Espainiako Txapelketa batean parte hartzen?**

**Ane:** Esperientzia ikaragarria da. Denetik bizi izaten da. Batetik, urte osoan zehar egin duzun lana saritzen da, eta, ikustea entrenamenduetan egindako esfortzu guztiak zerbaite-rako balio dutela, itzela da. Bestetik, nolako maila dagoen ikusi, jendea zenbat entrenatzen den ezagutu... asko ikasten da.

**Iosu:** Niretzat, ez da lehen aldian izan Espainiako Txapelketa batean, bigarrena baizik. Infantil mailan ere parte hartu nuen bere momentuan. Orduan ere, lehenengo txandan kanporatu ninduten, baina aurtengoan oso gustura gelditu naiz egindako lanarekin. Iazko txapelduna eta hirugarren gelditu zena zeuden nire taldean eta aurrera egitea oso zaila zen. Baina, era berean, onenen aurka lehiatzeak gehiago ikasteko aukera ematen dizu. **Dominak eskuratzea beti da polita, baina parte hartze-soilak bete egin zaituzte?**

**Ane:** Baietz esango nuke. Askotan, galtzen duzunean, irabazten duzunean baino gehiago ikasten duzu. Politia eta denon gustagarria da irabazi eta dominak eskuratzea, baina, lortzerik ez dagoenean, ikasi duzunarekin gelditu beharra daukazu. Guztiak dauka alde positiboren bat. Ho-



Madinabeitia eta Garcia pozik daude bizi izandako esperientziarekin. JOKIN ETXEBARRIA

## "GARRANTZI HANDIA HARTZEN DU KUMITE MODALITATEAN ESTRATEGIAK"

ANE GARCIA KARATEKA

## "ONENEN AURKA LEHIATZEAK GEHIAGO IKASTEKO AUKERA EMATEN DIZU"

IOSU MADINABEITIA, KARATEKA

rrek hazten laguntzen du, eta barrutik betetzen zaitu.

**Ponferradako Toralin kirolddegiko harmailetatik 4.000 pertsona pasa ziren. Guztiak, karateaz disfrutatzen.**

**Iosu:** Karatea ez da horren eza-guna, eta berezia da horrenbeste jende ikustea guk maite dugun kirolarekin disfrutatzen.

**Bi modalitate nagusi daude karatean: kata eta kumitea. Zein da horien arteko diferentzia?**

**Ane:** Diferentzia handia dago. Katarekin, teknika ezberdinak eta posizioek nolakoak behar duten izan erakusten da; horrekin, aurkariarekin batera nola-

baiteko jolas antzeko bat sortzen da, baina ez dago kontakturik. Bietako nork posizioak eta teknikak hobeto egin puntuatzen da. Kumitean, berriz, bai, borroka egiten da, eta estrategiak garrantzi handia hartzen du. Eraso defentsaren aurka eta alderantziz, puntuak nola batu bilatu behar baituzu.

**Iosu:** Kumitea filmetan eta ikusten denaren antzekoa da. Nik kumitean aritzea nahiago dut. Buruari momentu oro eragiten ari zara ikusteko non egin diezaikezun min aurkariari.

**Espainiako Txapelketa pasa da. Eta orain?**

**Ane:** Bilbon jokatu dugu Presidentes txapelketa bi aste barru eta bertan, Euskadi, Nafarroa, Errioxa eta Kantabriako karatekak egongo dira presente. Podiumean egotea gustatuko litzaidake.

**Iosu:** Azken finean, Euskadiko Txapelketan lehen postuan amaitu genuen eta bertakoen aurka badakigu nola jokatu. Horrek nolabaiteko abantaila ematen digu. Hala ere, Euskal Herrian lehen postuetan ibiltzen direnek maila handia dute; batez ere, zenbait pisu kategoriatan.



Mondrateko jokalaria kontrarioengandik ihes egiten. ARTXIBOA

## Bigarrenari irabazi, eta lehen postuaren lehian jartzea helburu

Zapatuan, 17:30ean, Musakolan hartuko du Mondratek puntu batera duen Scorpio talde ermuarra

**J.E. ARRASATE**

Areto futboleko Euskal Ligan Mondrate egiten ari den denboraldi hasierari akats gutxi jarri dakizkioke. Zortzi partidu jokatuta, bost irabazi ditu eta porrot mingarri bakarra jaso du, gaur egun lider den Gernikaren Lagunak-en aurkakoa, hain zuzen ere.

Bolada on horren arrazoi handienetako bat mondragoetarrek egiten duten defentsa zorrotza izan daiteke. Ligan gol gutxien jasotzen duen taldea da Mondrate, 21 besterik ez zortzi partidutan. Egia da ez dela talderik

goleatzaileena, baina egiten dituen zuku handia ateratzen die eta 15 punturekin hirugarren dago sailkapenean.

**Aurkaria, bigarren**

Zapatuan 17:30ean Musakolan jokatu duten partidua gogorra izango dela ez dago dudarik. Scorpio talde ermuarra bigarrena da sailkapenean, baina gol aldeagatik bakarrik -aldeko golak-, lehenaren puntu kopuru bera dauka eta. Beraz, defentsako lanak sekula baino garrantzi handiagoa izango du aurkaria sailkapenean atzean uzteko.

## Egoerari buelta eman nahi diote Kanpanzar Arrasate Errugbikoek

Aurreko astean, mailari eusteko borrokan, aurkari zuzen baten aurka ezin izan zuten garaipena lortu mondragoetarrek. Denboraldia ez da nahi bezala hasi, baina egoerari buelta ematen hasteko beste aukera bat dute Igor Isasiren mutilek aste honetan, azken sailkatua izango baita bisitari Mojategin. Menditarrak talde nafarraren aurka denboraldiko lehen garaipena eskuratu gero, beste modu batera ikusi ahal izango dira gauzak, ez jaisteko lehian izango direnen aurka puntuak lortzea ezinbestekoa izango baita helburua eskuratzeko. Horretarako, bonus puntuak eskuratzeko garrantzi berezia izan dezake.

## Arrasateri mendi-bira Abenduaren 2an Besaideren eskutik

Arrasatek dauzkan altxor paisajistiko eta naturalak ezagutarazteko helburuarekin, Besaide mendizale elkarteak herriari mendi-bira antolatu du abenduaren 2rako. Oinez ibiltzeko ohitura duen edozein herritarrentzat pentsatuta eta, batez ere, umeak mendizaletasunean hazi nahi dituztenei begira sortu dute ideia. Ibilbide zirkular bat izango da, eta, pare bat aldiz herritik pasako denez, nekaitza sentitzen denak edozein momentuan ibilbidea uzteko aukera izango du. Parte hartzeko ez da izenik eman behar, Jose Maria Arizmendiarieta plazan goizeko zortzietan azaltzearekin nahi-koa izango da.





Gipuzkoako Aldundiko, Arrasateko Udaleko eta Hauspoz elkarteko ordezkariak iazko irabazlearekin. TXOMIN MADINA

# Ia 400 parte hartzaile Akordeoi Lehiaketan

Abenduan hasiko da Arrasateko Akordeoi Lehiaketa. Hamahiru herrialdetako 30 akordeoilarik hartuko dute parte eta, lehenengoz, Eskoziako eta Islandiako ordezkariak egongo dira. Aurtengo lehiaketak parte hartze parekidea duela aurreratu dute

**M.A. / T.M.** ARRASATE

Abenduaren 7tik 9ra, akordeoi doinuek hartuko dute Arrasate, orduan egingo dute eta Arrasateko Akordeoi Lehiaketan 39. edizioa. Aurreko urteetan legez, hiru atal izango ditu ekimenak: musika eskoletako ikasleek parte hartuko duten Gipuzkoa akordeoi jaialdia; kontserbatorio profesionalentzako Gipuzkoa akordeoi lehiaketa eta kontzertu egile izan nahi duten akordeoilariendako Arrasate Hiria nazioarteko lehiaketa. Inoiz baino parte-hartzaile gehiago izango dira aurtin. "Ia 400 izango dira parte hartzaileak eta horrek erronka handitu egin digu. %66 inguru, gainera, ema-

kumezkoak dira. Gizartearen beste esparrutan ez da parekidetasun hori maiz ikusten. Ez dut lorpen bezala esango, baizik eta normalitate gisa", azpimarratu du Hauspoz elkarteko lehendakari Aitor Furundarenak.

Hamahiru herrialdetako 30 akordeoilarik hartuko dute parte nazioarteko lehiaketan eta, lehenengo aldiz, Eskoziako eta Islandiako ordezkariak ere egongo dira. Asteon egindako aurkezpenean, Maria Zubimendi iazko irabazlea ere izan da. Neza Torkar esloveniarrarekin batera irabazi zuen zumaiarrak nazioarteko txapelketa. Lehiaketak nazioartean duen izena azpimarratu du Zubimendik: "Kanpora

irtetean ohartu naiz lehiaketak daukan oihartzunaz eta ospeaz. Kalitate handiko eta anitzeko parte hartzaileak datoz, gainera, aurtengoan ere". Ohiturari eutsiz, Zubimendik kontzertuak eskainiko ditu Neza Torkar-ekin batera: abenduaren 6an Aretxabaletan eta abenduaren 7an Arrasaten.

Maria Ubarretxena alkateak nazioarteko Akordeoi Lehiaketa aurrera ateratzeko dagoen elkarlana azpimarratu gura izan du. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendari Maria Jesus Telleriak, berriz, horrelako lehiaketek Gipuzkoarendako duten garrantzia nabarmendu gura izan du aurkezpenean.



IMANOL SORIANO

## 'Luisa Fernanda', txalotua

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren 19. zarzuelak aurreikuspenak bete ditu eta erabateko arrakasta izan du. *Luisa Fernanda* maisuki taularatu dute eta harrera ezin hobea izan dute lau emanaldiek. "Txalotzekoa da. Oso politak geratu dira emanaldiak; dekoratua, jantziak... ederra! Benetan hunkituta nago", esan du zarzuelako eszena zuzendari Mertxe Salaberrik.

## Elkartasun doinuak Goikobalu abesbatzarekin, bihar

Caritasek antolatuta, Fair Saturday mugimendurekin bat egingo dute Goikobalu taldekoek. Gizartearen inpaktua duen mundu mailako kultura mugimendua da #fairsaturday.

Emanaldia 20:00etan San Juan Bataiatzailearen parrokian izango da, zapatuan. "Kontzertuak bi zati izango ditu. Huescan abestutako errepertorioaren oso antzekoa da. Lehen zatian, Bizente Goikoetxearen meza abestuko dugu; bigarrenean, berriz, herri kantu sorta bat", azaldu du Juan Antonio Barriocanal zuzendariak. "Ondoren, Sara jatetxera joango gara afaltzera eta Santa Zezilia igaro berri dela ospatzera", gaineratu du.

## The Potes taldeak 'etxean jokatu du' gaur gaztetxean

Urteetako ibilbidea duen The Potes musika talde arrasatearrak estudioko lehen lana kaleratu berri du: *Ametsak dira egi erabat bete aurretik*. Gaur, egubakoitza, gaztetxean zuzeneko eskainiko dute, 22:30ean. "Momentua iritsi da gure abestiak egin eta kalera irteteko", azaldu du Arrasate Irratian Igor Sala taldekideak.

Sorkuntza berria plazaratzeko aukera iritsi zaiela orain gaineratu dute arrasatearrek eta etxean jokatu dutela gaurko zuzenekoan diote. 12 kantu berri jasotzen ditu disko kaleratu berriak.

Screamers And Sinners bide-lagunak izango dituzte gaur gaurko zuzenekoan.

## AZOKA TELEBISTA

DURANGOKO AZOKA TELEBISTAKO SAIOAK GOIENA TELEBISTAN  
ABENDUAREN 5ETIK 9RA, 21:30ETIK AURRERA

BABESLEA:  
DURANGOKO AZOKA



goiena  
Zu hemen zaude.





Aramaioko trikiti eskolako kideak, pieza bat jotzen. AMAIA ZABALA

## Diskoak batu ditu 61,4 kilometrora daudenak

Bi herrien arteko distantzia da, hain justu, Aramaioko eta Errezilgo trikiti eskolek elkarrekin atera duten diskoaren izenburua. Hamahiru abesti ditu, doinu ezagunak eta lan horretarako propio sortutako letrak, tartean. Domekan jarriko dute salgai

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Aramaiori dagokionez, herriko trikiti eskolako irakasle Aritz Alustizak bultzatu du Errezilgo eskolakoekin batera ateratako diskoa: "Hango irakaslea aspaldiko laguna dut, eta beti komentatzen genuen egunen baten grabaketa bat egin behar genuela, baina atzeratzen joan gara, ze ez zen proiektu erraza".

Diskoko hamahiru abestietatik, batzuk Aramaiokoenak dira eta beste batzuk Errezilgoenak. Ainhoa Ullibarriarana pandero irakasleak dio ez dela aukeraketa erraza izan: "Aramaiokoen kasuan, ahalegindu gara adin guztietarako kantuak izaten, ze 6 urtetik hasi eta helduetaraino ditugu ikasleak, eta saiatu gara denen gustuko abestiak sartzen".

Askotariko abestiak dira, Altsasuko gertaerei eskainitakoak tartean, adibidez: "Altsasukoen abestia, gainera, berezia izan da, ze eskolako ikasle batzuek eurek sortutakoa izan da", dio Ullibarriararak. Herriko ber-

tsolarien letrak ere baditu diskoak; eta Gozategi, Pantxoa eta Peio edo Huntza moduko taldeen abesti ezagunak ere moldatu dituzte.

Trikiti eta panderoaz gain, beste instrumentu batzuk ere sartu dituzte: "Abesti batzuetan ditugu baxua, gitarra eta perkusioa sartuta; baina gure zerbait ikaslek jotzen dituzte saxofoia, tronpeta edo flauta ere, eta zuku guztia atera nahi izan diegu, instrumentu denak ekarri, moldaketak egin eta horiek ere sartu genituen", dio Alustizak.

Ikasleei dagokienez, diskoa grabatzea oso esperientzia polita izan dela diote, asko entseatu zutela eta, hasieran urduritasunik ere izan arren, oso gustura

**ARAMAIOKO ETA ERREZILGO IRAKASLEEN LOTURAK ERAGIN DU DISKOA EGITEA ELKARREKIN**

geratu direla emaitzarekin; eta ilusioa egiten die orain euren doinu eta ahotsak diskoan entzuteak.

Diskoa aurtengo udan grabatu dute, Axular Arizmendiren laguntzarekin, Mutrikun.

**Zaletasun handia**

Herri txikia izan arren, jende askok dihardu Aramaion trikiti eskolan -40 inguruk-, zaletasun handia dago eta: "Trikiti eskola bogan dagoela esan dezakegu. Duela urte batzuk hasi ginen Aritz eta biok, lehenengo ikasle gutxiagorekin, baina joan dira taldeak handitzen eta, berezitasun moduan, esango nuke talde heterogeneoak direla, gainera: helduak daude, umeak, nerabeak... eta bakoitzak aukera du hor bere txokotxoa topatzeko", dio Ainhoa Ullibarriararak.

Domekan jarriko dute salgai diskoa, plazan, Euskararen Egunaren bueltako ospakizunak aprobetxatuz.

## EUSKARALDIA



Ikasleak, eskolan ateratako txaparekin. OIHANA ELORTZA

## Euskaraldiko azken ekintzak izango dira herrian eta eskolan

Gaurkoen ostean, Euskararen Eguna ospatuko dute eskolan; herrian lasterketa egingo dute domekan

**J.I. ARAMAIO**

Eskolan aste osoan egin dituzte ekintzak, Euskaraldia dela-eta. Gaur, ipuin musikatu emanaldia izango dute aurrena, eta txokolate-jana 16:00etan. Astelehenean, bestalde, jolasak izango dituzte lehenengo, eta Euskaraldiaren abestia kantatu eta dantzatuko dute gero, 15:30ean. Eskolarako txapa bereziak atera dituzte, eta antzerako dinamika martxan jarri, ikastetxe mailan.

**Irabazle bakarra, euskara**

Herrian, berriz, bezperan, domekan ospatuko da Euskararen

Eguna. Euskararen aldeko lasterketa izango da 12:00etan hasita -izena, 11:00etatik aurrera, plazan-: 270, 725, 1.600 eta 3.200 metroko ibilbideak izango dira, oinez edo korrika egitekoak. Sailkapenik ez da egongo, eta amaieran luntxa egongo da udal-letzeko arkupeetan. Parte hartzen dutenek bi euroren truke *buff* bat eskuratzeko aukera ere izango dute.

Aurretik, baina, gaur bertan, bikoizketa lehiaketako eszenaratzekak izango dira: 17:30ean, 8 eta 12 urte artekoenak; eta 18:30ean, 12 urtetik gorakoenak.



**NIRE USTEZ**

**PERU ABARRATEGI**

## Jantzi txapa eta eman txapa

Iritsi zaigu Euskaraldia, hamaika egunetan euskara hutsean bizitzeko aukera; aukera, edo desafioa. Izan ere, hamaika egun, euskaraz, behintzat, asko omen dira. Txapa paparrean jarri eta ahoa bizi edo belarriak euskara barneratzeko prest izanez ea nora arte iritsi gaitezkeen neurtzeko aukera. Txapa jantzita duenari edo txapa jantzi gabe duenari ere egin diezaigun euskaraz egun hauetan, saia gaitezen gazteleraz ditugun harremanetan euskarari bere lekua uzten eta euskaraz ditugun harremanak sendotzen. Euskaldunok badugu berba-lapiko fama, ur azpian ere kostatzen zaigu guri isilik geratzea; beraz, jantzi dezagun txapa, baina, batez ere, eman dezagun txapa. Egongo dira Euskaraldiaren aldeko jarrera dutenak; aldi berean, egongo dira Euskaraldiaren kontrako jarrera dutenak ere, baina ez dadila geratu inor Euskaraldiaren berri ez duenik; berriro diot, eman dezagun txapa. Ez dut uste munduari erakutsi behar diogunik euskaraz bizitzeko gai garenik; uste dut nahikoa dugula geure buruari eta albokoari euskaradun Euskal Herri bat posible dela erakustea.





Joan den egunean egindako ohiko osoko bilkuran, Karmele Uribarri zinegotzia azalpenak ematen. MIRARI ALTUBE

# Drogen errealitatera egokitutako plan berria

Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek adikzioen prebentziorako plana egin dute elkarlanean datozen lau urteetarako; hor jaso dituzte nerabeen bueltako proiektuak, kale hezitzaileen lana, Kanabis Protokoloa eta tratamenduetarako laguntzak

## Mirari Altube ARETXABALETA

Drogen kontsumoaren gaineko errealitatea aldatu egin dela eta Eusko Jaurlaritzak Udalarari eskatu dio plan bat izan dezala indarrean. Hala, Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek elkarlanean egin dute 2018 eta 2023 arteko plana –datuak bate-ratuak dituztelako eta teknika-ri berbera–, eta joan den asteko ohiko osoko bilkuran onartu zuten hori udalbatzak aho batez.

## Prebentziorako indarra

Karmele Uribarri, Ongizate Saileko zinegotziak, plan horren nondik norakoen berri eman du: "Esku artean ditugun proiektuak jaso gura izan ditugu", eta zertan oinarritzen den argitu du: "Pertsona jarri dugu ardatz, pertsona ahaldundu eta bere bizitzaren jabe izan dadin".

Jasotako proiektuen artean dago nerabeekin egiten dabilzan lana: "Ikastetxeetan egiten ari diren lana dago hor, nerabeen eredu positiboa bultzatzeko. San

Juan de Dios ospitaleko kideak ere sartu dira orain proiektuan, Sasoiak elkarlanean batera, elkarlanean jarduteko".

Kale hezitzaileen proiektua ere badago. Iazko irailaz geroztik, bi kale-hezitzailek dihardute lanean Aretxabaletan gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden adin txikikoengana iristeko helburuarekin.

Eta prebentzio alorra indartzeko Kanabis Protokoloa ere badu Udalak. "Kurtzebarri institutuko egindako eskaera batetik sortu zen. Eskola orduetan, aisialdi unean, kalera irte-ten dira bertako gazteak, eta eskatu ziguten kontsumoaren jarraipena egiteko. Batzorde bat sortu genuen eta hor egon gara

## KANABIS PROTOKOLOA DAGO ABIAN, AISIALDIAN PREBENTZIOA LANTZEKO

udaltzain bat, Prebentzio teknikaria, guraso ordezkari bat, institutuko zuzendaria eta ni neu. Geroago, kale hezitzaileak eta gazte teknikaria ere sartu dira, eta, hortik abiatuta, aisialdiarekin lotutako beste prebentzio batzuk egiten hasi gara, Arizmendi Ikastola ere gonbidatuta".

Tratamenduetarako diru-laguntzak jasotzen jarraituko dutela gaineratu du Uribarri.

## Datuak jasotze prozesuan

Datuak jasotzeko prozesua dago abian. "Gurasoekin ere gaia lantzen hasi da orain eta ikusiko da zer emango duen". Bestetik, nerabeen artean diagnostiko bat egingo du Farapi kooperatibak: "Gazteekin landuko dute zein aisialdi mota, zein herri mota nahi duten". Emaitzak urte bukaeran jasoko dituzte. Hurrengo pausoa erakundeek eman beharko dutela dio: "Plan hau oso zabala da eta guztioi dago-kigu gure aletxoak jartzea".



Deba ibai alboko lanak, hasita. ARETXABALETAKO UDALA

## Deba ibai alboko pasealekuaren lanak geldi daude, oraingoz

Egokitze lanak ez doazela aurrera ikusita kontratua eten du Udalak Construcciones Legasko SL enpresarekin

## M.A. ARETXABALETA

Orain dela hilabete pasatxo hasi ziren ibai alboko pasealekua egokitzen, baina, lanak geldirik daudela ikusita, erreklamazioa aurkeztea erabaki zuen Udalak. Enpresaren aldetik erantzunik ez duenez jaso, kontratua etetea erabaki du orain.

## Erreklamazioa ezarrita

Ekainean sinatu zuten Ibarra kiroldegiraino pasealekua luzatzeko obren kontratua Construcciones Legasko SL enpresarekin. Joan den asteko Gobernu Batzordean, ostera, kontratu hori etetea onartu zuten. Izan ere, lan horiek ez doazela aurrera ikusi dute. Udal ordezkariak jakinarazi dute dagokion erreklamazioa jarri, erantzukizuna eskatu, eta enpresari legeak ezarritako epea eman zaiola erantzuna emateko. Behin epea agortuta ez dutenez inolako eran-

tzunik jaso, kontratua bertan behera uztea erabaki dute.

## Atzerapena eta kostuen igoera

Ondorengo pausok lehenbailehen zehaztu gura dituzte, eta obra ahalik eta azkarren martxan jarri. Horretarako, proiektua gainbegiratzeko eskatu diote Sestra Ingeniaria aholkularitza-enpresari; ondoren, berriro lizitazioa aterako dute.

Lana atzeratu egingo dela dio Unai Elkoro alkateak: "Hasieran lau hilabeteko epea definitu bazen ere, izan dugun ustekabe honek atzeratu egingo du amaiera. Uste dugu hasierako aurrekontua %20 igoko dela, balazio berria egin behar delako; hala ere, gure asmoa da lehenbailehen esleipena egin eta pasealeku berria egiteko obrak martxan jartzea". Urtarrilean lanak berriz abian izatea espero dute, eta lau hilabeteen bukatu.

## Futbol zelaiak egiteko hitzarmena Udalaren eta UDAREN artean

Zazpiko futbol zelai berria egin ahal izateko bigarren pausoa eman zuten atzo udal ordezkariak eta Aretxabaleta kirol elkarteak: hitzarmena sinatzea. Lehenengo proiektua egitea izan zen, eta, behin hori mahai gainean dela, aurrera egiteko baie-tza eman dute bi aldeek.

Apartekorik ez duen hitzarmena dela adierazi dute biek

ala biek. Zelaiaren aurrekontua 451.206 euro da; hortik, Udalak 400.000 euro hartuko ditu bere gain, dagoeneko aurrekontuan sartuta dituelako, eta gainerakoa UDAk jarriko du: 51.206 euro. Urtarril ingururako lanak has-tea gurako lukete, eta lau hilabeteen, udarako, bukatuta izan.

UDAK izango du zelai horren erabilera lehentasuna, eta entrenamenduak egiteko erabiliko duela adierazi dute. Libre dagoenetan, ostera, edonorendako egongo da zabalik.

# "Oposizio bortitzik ez dugu egin gura izan"

**ION ALBIZU GONZALEZ** ARETXABALETAKO EH BILDUKO BOZERAMAILEA

Pozik dago agintaldian zehar egindako lanarekin eta alkatetza berreskuratzeko gertu agertu da, "orain arte lez, jarrera eraikitzailearekin lanean" jarraituta

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Oposizioan dagoen EH Bilduko bozeramaile Ion Albizu (Eguzkitza, 1978) orain arte egindako lanarekin gustura agertu da Goiena telebistako *Harira* saioan. **Udal esperientzia berria izan da zuretzat; gustura?**

Herrigintzan badut eskarmentua eta Lizarran udal dinamikatik oso gertu izan nintzen. Dena den, oso ezberdina da Udalaren funtzionamendua barrutik. Ni neu pozik nago egin dugun lanarekin. Politikaren eginkizuna beste parametro batzuetan kokatzen saiatu gara eta, zelanbait, lortu egin dugula uste dut. Horren adibide, 2014ko ekainaren 13an Unai Elkorok alkatetza hartu zuenean abstenitu egin izana, beste modu batean aritu behar genuela uste genuelako; eta gero ere, arauak apurtzen saiatu gara. Unaiak pozik egon beharko luke aurrean halako taldea izanda.

**Ez duzue egin oposizio bortitzik...** Ez, eta, gainera, kontziente egindako hautua izan da. Kritikatzeko mila kontu egoten dira udal jardunean, baina bereizi egin behar dira. Herritarrei bidaltzen zaien mezua, gainera, baikorra izan behar du, bestea desgastatzeko kritika bakarrik ez.

**Deigarria da hori; izan ere, aurreko agintaldian, Bilduko alkatea izan zenuten Aretxabaletan eta oposizioarekiko beste jarrera bat zuen.** 2015ean sartu ginenok beste parametro batzuetan jarduteko asmo argiarekin etorri ginen. Aurreko agintaldia berezia izan zen, liskartsua, eta herritarrek ez zuten ulertu. Aldaketa bat eskatzen zuen horrek, ez bakarrik gure aldetik, guztion aldetik, eta guk gure alea jarri dugu. **Alkategaia zara; zer egin beharko luke EH Bilduk alkatetza berreskuratzeko?**

Orain arte egindakoa egiten jarraitu. Gobernantza eredu ezberdina planteatzen gabilta, beste parametro batzuetan kokatzen,



Ion Albizu, martitzenean, Goiena telebistan. MIRARI ALTUBE

## "EH BILDUKO SENTSIBILITATE EZBERDINEN BATURA IRUDIKATZEA POZGARRIA DA"

harremanak beste erabatekoak izaten... Gainera, planteamendu ausartak egiten gabilta, baina,aldi berean, herritarren beharrei egokitutakoak. Eta gero, zerrenda on bat osatu behar dugu, alkategaiarekin bakarrik ez delako nahikoa.

**Prozesu horretan hasita zaudete?** Oraindik ez. Alkategai lez aurkeztu nintzenean, talde batek babesa eman zidan, baina hori ez da zerrenda. EH Bilduko sentsibilitate ezberdinen batura irudikatzen nuela esan zuen Inaxio Garrok nire aurkezpenean, eta hori pozgarria da.

**Udaletxean jardun erdira zaude; horrek alkatearekin hartu-eman erraztuko zuen, ala?**

Nik uste dut Unaiak ez duela aprobetxatu guk izan dugun jarrera; gauzak aurrera ateratzeko aukera zegoen, eta ez da ausarta izan. Halako prestasuna

erakutsi duen oposiziorik ez dut nik inon ezagutu. Ni alkate izanez gero, bere ekarpena aprobetxatuko dut, guk izan dugun jarrera izan dezaten gurako nuke. **Dena den, Gobernu batzordean alderdi guztiak zaudete ordezkaturata...**

Bai, bost pertsona gaude; hiru EAJkoak dira, sozialista eta gu. Hortaz, erabakitze gutxi dugu, ekarpenak egitera joaten gara. Badago boto bat- Gobernu batzordean zein osoko bilkuran-gehiengo absolutua osatzen duena: PSE-EEkoa. Doako boto bat da, ez du ezer eskatzen, ez du ezer egiten, boto lotsagarria, niretzako; pena da gure prestasunaren ordeztu boto hori nahia- go izatea Unaiak.

**Hirigintza kontuak oso gustuko dituzu; zer eman diezaiokezu Aretxabaletari alor horretan?**

Hirigintzatik gizartea zizelkatzen delako dut gustuko. Jendeak ez daki zenbat baldintzatzen duen hirigintzak eguneroko bizitza eta gizartearen egitura. Agintaldi hasieran esan genion Gobernuari plangintza baten beharra zegoela eta hori plan orokorra garatzen bukatu; batzorde bat ere sortu zen horretarako, baina bertan behera geratu da

guztia. Eta gaur arte, nahiz eta 2030erako eginda beharko lukeen eta hori egitea lau urte kostatu. Oso garrantzitsua da, herriko arau guztiak jasotzen direlako. **Gobernua epe luzera begira ez dela jartzen aipatu izan duzue...**

Hala da. Hirigintza arloa, esaterako, desastrea da, ez dago planifikaziorik, ez antolaketarik. **Berdintasun Plana bukatu berri duzue; gustura emaitzarekin?**

Bai; anbizio handikoa da, baina, era berean, oso zehatza. Hala ere, ez gaude pozik hori gartzeko planteatutako baliabideekin, ezinezkoa da eta horrela aurrera egiterik. Agintaldi honetan, erdira murriztu da Berdintasunaren aurrekontua.

**Herriko merkatariak Gabonetako iragarkiarekin dabilta lanean; osasuntsu dago merkataritzan?**


Badute ekimena, baina laguntza behar dute. Ildo horretatik, proposamen zehatzak egin genituen eta bi neurri datorren urteko ordenantza fiskaletan sartu dira: zaborren gaineko kuota batzuk egokitu eta irekiera lizentzia murriztu. Eta uste dugu elkarlanean jardun behar dutela Udalak eta merkatariak.

**Agintaldiko azken aurrekontua esku artean duzue?**

Oraingoz ez. Gizarte Zerbitzuetan erronka potoloa dugu eta gure ekarpenak hortik joango dira, zerbitzu-kartera osatu behar dugulako: eguneko zentroa, harrerera pisua... Eta beste proposamen zehatz batzuk: ludoteka...

## Juan Karlos Izagirre bisitan

Gipuzkoako diputatu nagusia izateko EH Bilduren hautagai den Juan Karlos Izagirrek eta Ion Albizuk aurkezpen-topaketa ekitaldia egingo dute martitzenean, hilaren 4an, Taberna Berri jatetxean, 18:30ean; herritarrek gonbidatu dituzte bertara. Etorkizuneko erronken gainean jardungo dute, eta galderak erantzun ere bai. Aldez aurretik ere egin daitezke galderak; hona bideak: [ehbildu@aretxabaleta.eus](mailto:ehbildu@aretxabaleta.eus) edo 688 82 65 81 Whatsapp zenbakia.



Eñaut Zubizarreta. AMAIA TXINTXURRETA

## Eñaut Zubizarreta biolontxelo-jolea eta Jaikiren dantzak

Jaiki elkarte 15. urteurrena ospatzen dabil azaroan, eta horren harira Arkupen jarritako erakusketa itxiko dute gaur, egubakoitza (19:00). Horretarako, musikarekin eta dantza saioarekin girotutako ekitalditxo gertatu dute; Jaikiko kideek jardungo dute dantzan erakusketa aretoan bertan, Eñaut Zubizarreta Mendieta biolontxelojolea lagun hartuta.



Ana Galarraga saio batean. GOIENA

## Zientzia oinarri duen ipuin kontaketa saioa abenduaren 13an

*Zer gertatuko litzateke Frankeisten esnatuko balitz?* saioa antolatu dute liburutegiak eta ludotekak elkarlanean. Abenduaren 13an izango da, liburutegian (17:30), eta Ana Galarraga joango da gidatzera. 7 eta 10 urte bitarteko haurrendako gertatu dute eta izena aurrez eman beharra dago (ludotekan), plazak mugatuak direlako; azken eguna abenduaren 5a da.



# Barru-barrutik sortzen den irrintziari gorazarre

'Erraiak' filma estreinatuko da bihar, zapatua, Arkupen; sarrerak leihatilan izango dituzte egunean bertan. Irrintziaren gaineko ikus-entzunezkoa da eta Arteman Komunikazioak egin du, Ekain Martinez de Lizarduy zuzendariren esanetara

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Irrintzia ardatz duen dokumentala estreinatuko dute bihar, zapatua, Arkupen; bi emanaldi izango dira, 12:00etan eta 13:00etan, eta hogeina sarrera izango dituzte leihatilan. Ekain Martinez de Lizarduy Stürtze da zuzendaria eta gidoigilea, eta Euskal Herri osoko testigantze-kin osatu du lana.

**Animalien oihuekin lotura**

"Nire asmoa zen irrintziaren gaineko bilketa-lan bat egitea kuriositatea asetzeko asmoarekin, eta, lagun batekin berrikerian, dokumentalaren ideia agertu zen". Hala, gidoi bat idatzi zuen, Arteman Komunikazioak enpresari erakutsi eta lanean jarri ziren. Bilketa-lan horretan kosta egin zitzaioala materiala topatzea dio. Horregatik, hango eta hemengo irrintzilarien bizipenak bildu ditu: "Jasotako guztiarekin hausnarketa egin, eta dokumentala josi dut. Uste dut emaitza kuriozosa eta berritzailea dela".

Bilketa-lan hori ez du Euskal Herrian bakarrik egin, mundu mailako oihuek aztertu gura izan ditu: "Afrika, Asia, Amerika... Eta konturatu naiz oihu horiek guztiak antzeko funtzioa betetzen zutela; gehienek, gainera, animaliekin dute zerikusia, Euskal Herriaren kasuan, zaldiarekin edo behorarekin. Zaldi basatien irrintziaren giza imitazioa da. Hori da, behintzat, nik proposatzen dudana, zientifikoki baieztatzerik ez dudalako".

Irrintzilariak harrera ezin beroagoa egin diotela adierazi du, eta "konplize" izan ditu proiektu honetan: "Elkarrizketatu ditudan guztiak irrintzia oso modu ezberdinean bizi dute. Emozioak eta sentipenak bildu ditut horren bueltan".

Aztertu eta topatutako guztia jasota utzi gura du: "Ikertzen jarraitu gura izanez gero norbaitek hor dauka bidea zabalik".



Emakume bat irrintzia botatzen. ARTEMAN

## "Irrintziaren gaineko hutsunea bete gura izan dut dokumentalarekin"

**EKAIN MARTINEZ DE LIZARDUY STÜRTZE** ZUZENDARIA

Zuzendari eta gidoigile lanak egin ditu Aretxabaletan bizi den irakasle donostiarrak.

**Nolatan dokumentala?**

Lagun min bat hil zenean, haren amonak izugarriko irrintzia bota zuen hura agurtzean. Eta ni horrekin geratu nintzen: irrintzi honek kontu asko du azpian...

Antropologia ikasia nuen, gainera, eta beti izan dut Euskal Herriko kultura adierazpenekiko begirunea.

**Eta zer topatu zenuen?**

Nire harridurarako, ezertxo ere ez; dokumentalik ez, idatzita oso lan gutxi, ikerketa handirik ez... Harrigarria benetan, guztiok ondo ezagutzen dugun kontu bat izanik. Izugarriko hutsunea zegoela iruditu zitzaidan, eta, nahiko saltseroa eta ipurterrea naizenez, dokumentalean bukatu da kontua.



TXOMIN MADINA

**Eta zer jaso duzu?**

Gauza asko, eta emozio puntua ere baduela uste dut. Irrintzia kolektiboa da, baina oso pertsonala ere bai. Teknika ere badu, nahiz eta arau idatzirik ez egon, eta emozioak pisu handia du. Edonork bota dezake, baina barru-barrutik atera behar da. Hain zuzen, dokumentalaren tituluak hori erakutsi gura du, erraietatik ateratzen den zerbait, beste zerbaitekin lotzen gaituen oihua dela.

EUSKARALDIA



Umeak eta helduak Euskaraldiari babesa erakusten. MIRARI ALTUBE

## Euskaraldiari jai giroan bukaera emateko gertu aretxabaletarrak

Dantzak, atxikimendua erakusteko unea, mezua eta gehiago izango dira astelehenean, Herriko Plazan

**M.A. ARETXABAETA**

Euskaraldia ziztu bizian doa aurrera, giro onean joan ere. Aretxabaletan ez da izen-emaierik itxi, eta dagoeneko 1.184 *ahobizi* eta 270 *belarriprest* dabilta txapa paparrean jarrita. Egunotan bizi izan dituzten esperientziak partekatzeko tartetxo bat hartu zuten atzo iluntzean horietako batzuek, eta gustura jardun zuten kontukontari udaletxe zaharrean.

Ez da izan astean egin den ekitaldi bakarra; izan ere, solasaldi bana eskaini dute Miriam Urkia euskaltzain osoak eta Kike Amonarriz soziolinguistak. Herriarrek harrera beroa egin zieten, eta benetan gustura jarraitu zituzten haien esanak. Horrez gain, Basotxoko kantu taldeak euskal abestiekin girotu zituen kale bazterrek eguaztanean.

**Jaialdia, 18:30ean hasita**

Jai giroan hasi zenari jai giroan eman gura diote bukaera. Hala, astelehenean, Euskararen Nazioarteko Egunean, borobilduko dituzte egunotan hartutako konpromisoak, esfortzuak eta ohi-tura aldaketak.

Hasierako ekitaldian lez, Herriko Plazan elkartzeko dei egin dute (18:30). Leizarra musika eskolako nagusien dantza taldearen emanaldiak irekiko du ospakizuna, eta, ondoren, Euskaraldiari babesa emandako taldeetako ordezkariak dei egingo diete, elkartu eta argazkia ateratzeko. Bukaerako mezuaren berri emango dute, gero, Lora-mendi elkarteko kideek, eta, ospakizuna jai giroan bukatzeko, *flashmob*-a dantzatzeko dute elkartutako guztiak, helduek eta umeek.

## Ikastolaren eta Euskararen eguna eskutik, Basabeazpin

San Frantzisko egunak –Arizmendi Ikastolaren eguna– eta Euskararenak bat egingo dute abenduaren 3an Basabeazpin. Jolasekin ekingo diote (09:30) eta txistorra dastatuko dute gero. Kalejiran joango dira Almengo batxilergoko ikasleekin (11:00) eta plazara iritsitakoan dantzan egingo dute; manifestua irakurritu bukatuko dute ekitaldia.

## Jolasak ezagutzeko erakusketa gaur komentuan

Erakusketa antolatu du Lora-mendi elkarteak, jolasak ezagutzera emateko. Hainbat eratakoak jarriko dituzte ikusgai gaur, mojen komentuan (17:00-19:00), batez ere, kooperatiboak, eta horiek probatzeko aukera egongo da. Hiru begirale egongo dira, gainera, ezaugarriak azaltzeko. Umeek heldu baten laguntzarekin joan beharko dute.



Azaroaren 23an, Euskaraldia egitasmoaren hasiera ekitaldian plazan batutakoek talde argazkia egin zuten. GARTXOT ZUBIZARRETA

# Herri Eguna izango da Euskaraldiaren baitan

Euskaraldia amaitzeko lau egunen falta dira, eta egun osoko egitaraua antolatu dute Eskoriatzako Batzordeko kideek zaturako. Hori horrela, besteak beste, 'Euskaraldiaren bizipenak, aulki baten gainean' bideoa grabatuko dute

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Euskaraldiak bere hamaika egunak hasi zituen pasa den egubakoitzean, eta hainbat herritar batu dira egitasmoa. Izan ere, 845 pertsonak eman dute izena: 545 *ahobizi-k* eta 300 *belarriprest-ek*, hain zuzen.

Bihar, Euskaraldiaren Herri Eguna antolatzea erabaki du Euskaraldia Batzordeak. Honako da egitaraua: goizean, taloak jateko eta euskal dantzez gozatzeko aukera izango da. Ondoren, herritarrek Euskaraldian bizitakoak kontatzeko aukera izango dute kamera aurrean. Ostean, kantu bazkaria izango da kiroldegian. Salda beroa, txistorra eta kantu liburua banatuko dituzte; beraz, beharrezkoa da txartelak hartzea. Txartelak 12 urtetik gorakoek hartu beharko dituzte eta prezioa 3 euro da. Eta, amaitzeko, Tio Teronen Semeak taldeak *Festamentua* ikuskizuna eskainiko du plazan.

## Zaturako egitaraua

### Fernando Eskoriatza plazan

- **12:30** Taloak.
- **13:00** Euskal dantza herrikoiak.
- **13:30** *Euskaraldiaren bizipenak, aulki baten gainean* bideo grabazioa egingo dute Euskaraldiko batzordeko kideek.
- **19:00** Tio Teronen Semeak taldearen *Festamentua* ikuskizun berria.

### Manuel Muñoz kiroldegian

- **14:30** Kantu bazkaria: *Zuk ekarri, zuk jan*.

Eguraldi ona egiten badu kantu bazkaria plazan egingo da.

## Hasiera ekitaldia, bikain

Euskaraldiari hasiera emateko, udaletxe bakoian, Itsaso Villar Euskaraldiko batzordekideak eta Beñat Illarramendi eta Inma Murillo hamaikakoaren ordezkariak eman zioten hasiera egitasmoari. Haiekin batera, izena eman duten herritar guztien ordezkari Mari Paz Akizu herriko parte-hartzaile nagusienera eta Galder Isasmendi gazteenetara batu ziren. Bertsoan, berriz, Oihana Arana eta Asier Galartza aritu ziren, balkoitik balkoira.

## Itxiera eguna, abenduaren 3an

Datorren astelehenean, 17:00etan, buruhandiak irtengo dira kultura etxetik Eskoriatzako kaleetara. 17:30ean, txokolata hartzeko aukera izango dute herritarrek –nork bere edalontzia eraman beharko du–, eta, Kontzejupean, *Euskaraldiaren bizipenak, aulki baten gainean* bideo emanaldia eta hamaikakoari agurra egingo dute.



Azaroeko ezohiko osoko bilkura Eskoriatzan. MIRARI ALTUBE

## Euskararen Egunarekin bat egin du Eskoriatzako udalbatzak

EH Bilduko Maider Otamendi eskoriatzarrak zinegotzi kargua hartu du azaroeko ezohiko osoko bilkuran

### I.B ESKORIATZA

Astelehenean egin zuten azaroeko ezohiko osoko bilkura Eskoriatzako ordezkari politikoeek, eta hainbat gai tratatu zituzten. Horietako bat izan zen euskarari buruzko erakunde adierazpena. Aho batez onartu zuten.

### Maider Otamendi, zinegotzi

Horrez gain, EH Bildu Eskoriatzako hautagai hautetsiak zinegotzi kargua hartu zuen, Nestor Aranek zinegotzi kargua utzi ostean. Hala, agintaldia amaitu arte, Maider Otamendi izango da EH Bilduko zinegotzia –goi-

ko argazkian, ezkerretik hasita, lehena–.

### Airearen kalitatea hizpide

Rafael Bernalek, Irabazi Eskoriatzako bozeramaileak, kutsadura atmosferikoa nabari denean biztanleriaren osasuna bermatzeko jardun-protokoloei buruzko mozioa aurkeztu zuen asteleheneko osoko bilkuran. Bertaratuak bederatzi zinegotzietatik lauk emandako aldeko botoarekin –1 Irabazi eta 3 EH Bildu– eta gainontzeko bosten abstentzioarekin –4 EAJ-PNV eta 1 EEE– onartu zuten.



IÑAKI KORTAZAR

## Indarkeria matxista salatu dute

Pasa den domekan, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen, eta, beste hainbat herritan moduan, Eskoriatzan elkarretaratzea egin zuten. Udalak, Feminista taldeak eta Gu Denon Artean taldeak deituta, herritar ugari batu ziren plazan, eta antzezpena ere izan zen, @remociones antzerki taldearen eskutik.



# Sarrionandiaren idatziak zinemara eramán dituzte

Hamabi zinemagilek elkarlanean egin duten 'Gure oroitzapenak' lana Joseba Sarrionandiaren idatzietan oinarritutako filma da. Donostia Zinemaldian estreinatu zuten, duela bi hilabete, eta domekan Zaldibarren ikusteko aukera izango da

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Joseba Sarrionandiaren obran oinarritutako film kolektiboa egin dute hamabi zinemagilek. *Gure oroitzapenak* izenburupean. Donostia Zinemaldian estreinatu zen duela bi hilabete, eta domeka honetan Zaldibar antzokian ikusteko aukera izango da, arratsaldeko zazpietan. Sarrera borondatezkoa izango da, eta, euskarazko filma den arren, gaztelarazko azpituak proiektatuko dute.

## Poemak, zinemara eramanda

Mikel Arrendondok, Hibai Castrok eta Lutxo Egiak osatzen duten Bilboko Adabaki ekoizte-  
txeak ekoiztu du; Elkar argita-  
letxeak, Gastibeltza Filmak eta  
Zenbat Gara elkarteak ere par-  
te hartzen dute proiektuan, eta  
hamabi zinemagile hauek elkar-  
lanean egin dute lana: Oskar  
Alegria, Ozcan Alper, Eugene  
Green, Itziar Leemans, Josu  
Martinez, Fermin Muguruza,  
Ane Muñoz, Maider Oleaga,  
Carlos Machado, Maialen Sara-  
sua, Mireia Gabilondo eta Asier  
Altuna.

Hogeita hamar urtez zuri-bel-  
tzeako argazki bat izan da Sarrion-  
andia euskaldunontzat. Argaz-  
ki bat eta bakarra. Hala, *Sarri*  
iruditan agertzea du helburu



*Gure Oroitzapenak* filmeko fotograma bat. ADABAKI EKOIZPENAK

*Gure oroitzapenak* filmak. Ho-  
rretarako, hau da, *Sarri* iruditan  
jartzeko modua, haren poemak  
eta ipuinak zinemara eramán  
dituzte.

## Aretoak beteta, lan berezia

Aurtengo Donostia Zinemaldian  
estreinatu ostean, eta izandako  
harreraren ostean, Eskoriatzara  
ekartzea pentsatu zutela adie-  
razi du Arantxa Unzuetak, Es-  
koriatzako Udaleko Kultura  
teknikariak: "Zinemaldian izan-  
dako arrakastaren ostean, hain-  
bat hiriburutan proiektatu da,

eta horietan ere oso harrera ona  
izan du. Izan ere, areto guztiak  
bete dira. Guk ekartzeko auke-  
ra izan dugu, eta domekan go-  
zatu ahal izango dugu *Gure*  
*oroitzapenak* filmarekin. Sarrion-  
andia Euskal Herriko litera-  
tura idazle onenatarikoa da,  
erreferentia izan da belaunaldi  
batendako. Mikel Laboak, Ruper  
Ordorikak eta halako musikariek  
bere olerkiekin egindako kantak  
daude, baina lehenengo aldiz  
eraman da pantailara haren  
obra. Beraz, gauza berezia izan-  
go delakoan nago".

## Eskoriatzarrentzat erabilgarri dago 'Merkatari' aplikazioa

36 komertziok hartu dute parte proiektuan eta aste  
hauetan promozio bereziak eta zozketak izango dira

## I.B ESKORIATZA

Astelehenean, azaroaren 26an,  
ireki zuten *Merkatari* aplikazioa  
Eskoriatzan. Hala, ordutik, au-  
kera dute eskoriatzarrek App  
Storetik edo Play Storetik apli-  
kazioa jaitsi eta erabiltzeko.

Aplikazioaren helburua he-  
rriko merkatarien eta bezeroen  
arteko komunikazioa hobetzea  
da. Hori horrela, promozioak,  
herriko eskaintza, komertzioekin  
komunikazio zuzena eta eskae-  
rak egiteko aukera ematen duen

aplikazioa sortu berri dute, bes-  
teak beste.

Eskoriatzako 36 komertziok  
hartu dute parte proiektuan eta  
aste hauetan promozio bereziak  
eta zozketak izango dira aplika-  
zioa erabiltzen dutenentzat.

Horrekin batera, aplikazioa  
herriarren artean zabaltzeko,  
sustapen-bideo bat egin dute;  
*Goiena.eus* webgunean ikusi  
daiteke. Proiektuko kideek apli-  
kazioa erabiltzera gonbidatu  
nahi dituzte herriarrek, mer-  
katari txikiak bultzatzeko.



Gatz Bidie, Leintz Gatzagara heldu aurretik. AITOR AGIRIANO

## Gatz Bidie: ametsa errealitate bihurtzeko bidea egiten ari da

Auzolanean lan asko egin bada ere, ezinbesteko ikusten  
dute Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako udalen babes

## Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

2016an herri ekimen gisa hasi  
zen ideia, ametsa, mugikortasun  
jasangarriaren beharra, Leintz  
bailara osora zabalduaz joan da,  
proiektu eraginkor eta iraunkor-  
ra izan nahi duen ekimena bihur-  
tuta.

Orain arte emandako pausoak  
honako hauek izan dira: lur-ja-  
beekin, Gatzagako, Eskoriatzako  
eta Aretxabaletako elkarte eta  
ikastetxeekin egindako bilerak  
eta aurtun egindako irteerak,  
besteak beste. "Hauek erakutsi  
dute bideari artapen egokia eta  
beharrezko egokitzapenak eginez

gatzagarren mugikortasuna ho-  
betu bakarrik ez, Debagoien osoa-  
ren onura ere ekarriko duela",  
adierazi dute Gatz Bidie herri  
ekimeneko kideek.

## Ibilbide osasuntsuak

Uztailean, ekimeneko kideek jar-  
duera fisiko osasuntsua bultzat-  
zeko diru-laguntzak eskatu zi-  
tuzten. Onartuta, bide horren  
egokitzapena burutzea izango  
litzateke hurrengo pausoa. Bidea-  
ren erabilera bultzatu eta herriak  
lotuz, landa-guneak errespetatuz,  
aisialdi, osasun eta kirol esparrua  
natura-guneetara zabalduz.

## Leintz Gatzagako ludotekari berria Ane Arraeta da

Ane Arraeta eskoriatzarra da  
Leintz Gatzagako ludotekari  
berria. Azaro hasiera ezker ari  
da herriko gaztetxoekin ekin-  
tzak egiten, ludotekan zein lu-  
dotekatik kanpo, eta "oso gus-  
tura" ari dela adierazi du. "Ha-  
mar ume etortzen dira ludote-  
kara, eta poliki-poliki ari gara  
gauzak antolatzen".

Aurtun, metodologia aldatuta,  
martitzenetan eta eguaztenetan  
17:30etik 19:00etara bitartean  
batzen dira herriko gaztetxoak  
ludotekan, eta hilean egubakoitz  
bat ekinga berezi bat egiteko  
aprobetxatzen dute. Hori horre-  
la, gaur, ludoteka Gabonetako  
apaingarriz atontzeko aprobe-  
txatuko dute.

## Autodefentsa tailerraren bigarren saioa, zapatuan

Urriaren 27an egin zuten, Leintz  
Gatzagako kultura etxean, au-  
todefentsa feminista tailerra,  
Gatzagako Emakume Taldeak  
antolatuta. Ikastaroan jende  
askok eman zuen izena, eta bi-  
garren saiorako "gogotsu" dau-  
dela adierazi dute antolatzaileek.  
"Lehenengo saioarekin gustura  
geratu ziren bertaratu zirenak.  
Dinamikoa izan zen, eta, lehe-  
nengo saioa teorikoagoa izan  
bazen, zapatuko praktikoagoa  
izango da", adierazi du Ainhoa  
Barandiaranek, antolatzaileeta-  
ko batek.

Hala, 10:00etatik 14:00etara  
bitartean izango dute tratu txar-  
rak saihesteko erabili ditzake-  
ten teknikak ikasteko saioa.

# "Hainbat gerra izan dira Elgetako lurretan"

**MANOLO CAINZOS** 'ELGETA LEHEN ETA ORAIN' LIBURUAREN EGILEA

Eguaztenean egin zuen liburuaren jendaurreko aurkezpena udaletxeko areto nagusian. Argitalpena Julian Markiegiren kioskoan dago salgai hoge eurotan

**Larraitz Zeberio** ELGETA


Hiru urte dira Manolo Cainzosek Elgetako Udal Artxiboa berrantolatatzeko lanean diharduela. Hainbat dokumentu pasa dira bere eskuetatik, eta pilatutako informazioa liburu batean jasotzea merezi duela iritzita jaio da *Elgeta lehen eta orain*.

**Zer dakar liburuak?**

Gehienbat, herriaren historia bere sorreratik. Ingurune naturala, giza taldeen egitura, historiako pasarte garrantzitsuenak, herriak emandako pertsonaia esanguratsuenak, Elgetako ondare artistikoa eta arkitektonikoa... Askotariko eremuak jasotzen saiatu naiz.

**Eta Elgetaren historian zein mugarrri nabarmenduko zenituzke?**

Lehenengo eta behin, 1335ean Alfonso XI.a erregeak aitortutako hiri gutuna, hori baita abiapuntu nabarmena. Gero, hainbat gerra izan dira Elgetako lurretan. Azkena dugu bereziki gogoan, baina Ahaide Nagusien arteko borrokak, Konbentzio gerrak eta Karlismenaren eragin handikoak izan dira herrian. Horrelakoetan, suteak, goseteak eta izurriteak izan dira Elgetan, eragin handia izan dute. **Herriko hainbat pertsona entzute-su ere aztertu dituzu zure lanketan. Datu berri ugari aurkitu dituzu?**



Manolo Cainzos, *Elgeta lehen eta orain* liburuarekin, Udal Liburutegian. L.Z.

## "POZIK NAGO DOMINGO ITURBE ONGILEAREN INGURUAN EGINDAKO AURKIKUNTZEKIN"

Batzuk bai. Ikaragarri pozik nago Domingo Iturbe ongilearen inguruan egindako aurkikuntzekin. Haritik tiraka ibili naiz eta aurkitu dut Bolivia inguruan ibili zela. Gero, herrira itzuli eta hainbat egitasmo gauzatu

zituen oinordetzaz jasotako ondasunek lagunduta. Aipatu nahiko nuke baita ere Maria Angela Telleria. Durango bizi zen elgetarra eta preso zeuden hainbat soldaduren ihesaldia ahalbidetu zuen frantsesen aurkako gerran, XIX. mende hasieran.

**Ikertzen jarraitzeko lan leerro berriak aurkitu dituzula esango nuke.**

[Barre] Bai. Hasita nago lanean, gainera. Informazio ugari aurkitu dut herriko eskolaratze prozesuen inguruan. Nire esparrua da, eta asko interesatzen zait. Uste dut badudala lana hor.

## Aurkezpen ekitaldi jendetsua

Udaletxeko areto nagusia bete egin zen eguaztenean *Elgeta lehen eta orain* liburuaren aurkezpen ekitaldirako. Manolo Cainzosek hiru urteotan egindako aurkikuntza nagusien berri eman zuen, eta Elgetaren historiaren pasarte nagusien erreposoa egin. "Lehenengo Elgeta ezagutzea oraingo identitatea sendotzea ere bada", adierazi zuen.



Manolo Cainzos, liburuaren aurkezpena egiten, eguaztenean. L.Z.

## EUSKARALDIA

### Festa giroan emango diote amaiera Euskaraldiari Elgetan

'Elgeta kantuan', txokolate-jana eta UrflaX pailazoaren ikuskizuna iragarri dituzte Euskararen Egunerako

**L.Z.** ELGETA

Euskararen Egunarekin —abenduak 3— emango zaio amaiera Euskaraldiari. Domekarako, *Elgeta kantuan* dago iragarrita. Kantuzaleak 13:00etan elkartuko dira plazan, tabernaz taberna kantuan egiteko. Eibarko Kantuzaleak taldeko kideak ere gonbidatu dituzte. Herritarrak ere gonbidatuta daude, noski.

Astelehenean, txokolate-jana eskainiko du Maala guraso elkarteak, 16:00etan. Udalak antolatuta, berriz, *UrflaXekin euskaraz...1,2,3 GoXaketaaaa* ikus-

kizuna izango da, 17:30ean, udaletxeko areto nagusian.

**Tailerra eta bertso jaialdia**

Euskaraz ez dakiten gurasoendako eta haien 4 eta 8 urte bitarteko seme-alabendako, *Euskararen musika* saioa egingo dute Udal Liburutegian, martitzenean, 17:30ean. Gaur da izena emateko azken eguna.

Udalak antolatuta, berriz, bertso saioa egingo dute abenduaren 14an, Espaloian, Andoni Egañak, Ainhoa Agirreazaldegik, Julio Sotok eta Maddalen Arzallusek.



L.Z.

## Indarkeria matxistarik ez!

*Indarkeria matxista gehiagorik ez* lelopean elkarretaratzea egin zuten domekan 50 bat herritarrek. Ekitaldian, indarkeria matxistak aurten hildako biktimak ekarri zituen gogora Elgetako emakume taldeak. Kolore moreko oihalekin estalitako zortzi hilotz eta hiru hilarri irudikatu zituzten. Indarkeria matxistak bederatzita emakume eta bi ume hil ditu aurten.

## PILOTA TXAPELKETA

**EMAITZAK**

Iban Retolaza-Jose Mari Zubiaurre / Mikel Elkoro-Iñaki Ugarteburu **18-04**  
Alberto Telleria-Anjel Ibarluzea / Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar **18-13**  
Josu Mañarikua-Beniat Arabalaza / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta **18-14**  
Andoni Elorza-Oskar Sarasua / Alain Valle-Eneko Ormaetxea **18-11**  
Ainhoa Zeziaga-Maitena Mañarikua / Olatz Olaortua-Eneritz Larrea **18-08**  
**Atsedendaldia:** Hurrengo jardunaldia gaur, barikua, jokatu da. Lau partida izango dira, 19:00etan hasita.

## OHARRAK

### Azken barikua

Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, gaur, 20:00etan.

### Kafe antzokian

*Go!azen* eta *Gari&Maldanbera* daude iragarrita abendurako. Sarrerak salgai daude.

### Ludoteka

Gabonetako apaingarriak egiteko CD zaharrak behar dituzte ludoteka zerbitzuan.



# ETXEBIZITZA & DEKORAZIOA



SUKALDEAK:  
AZKEN  
BERRITASUNAK

PROMOZIOAK:  
ETXEBIZITZAK  
SALGAI

DEKORAZIOA:  
AZKEN JOERAK

ENERGIA  
BERRIZTAGARRIAK:  
TEKNOLOGIA  
BERRIAK



 bastidasukaldeak

Zarautz  
Elizaurre Kalea 3, 20800  
94 3894999

Azpeitia  
Perez Arregi 9, 20730  
94 3150510

Bergara  
Ibargarai 36-38, 20570  
94 3767058





Aretxabaletako Iturrizar plazako etxebizitzak. MIRARI ALTUBE

# Salmentak gora, egoera ekonomikoa hobea baita

Etxebizitzen salmenta datuak bosgarrenez jarraian hobetu dira eta badirudi etxebizitza agentziak krisia atzean uzten ari direla; salmentek gora egin duten heinean prezioek ere bai, baina Debagoieneko agentziek ez dute beste burbuilarik espero

Eskaintza baliagarriak, akats tipografikorik ez badago.

## Jokin Etxebarria DEBAGOIENA

Badirudi krisi garaia atzean gelditzen dabilela eta horren erakusgarri handienetako bat izan daiteke etxebizitzaren salmentak gora egin duela. Euskal Autonomia Erkidegoan, adibidez, 2018ko lehen seihilekoan, 10.166 etxebizitza saldu dira. Horrek esan nahi du, bosgarren ekitaldiz jarraian, salmentek gora egin dutela. Aduku batzuen ustez, higiezinaren beste burbuila bat gertu egon daiteke.

Halakorik gerta daitekeenik, baina, ez dute uste ez Grupo Eibarko Salva Indakoetxeak ez eta Bibai etxebizitza agentziako Zigor Aginagaldek ere. "Azken finean, bankuek euren politika ere aldatu dute eta orain, dirua edo hipotekak emateko orduan zorrotzago jokatzeko dute", dio lehenak. "Gaur egun, bankuek ondo begiratzen diote erosleek euren diru-sarreraren ehuneko handi batekin aurre egin ahal izango dieten edo ez erosketari", berriz, bigarrenak. Grupo Ortuibar etxebizitza agentziako Gurutz Beitia ere iritzi berekoa da, baina beste ezaugarri bat gehitzen dio gaur egungo egoe-

rari, lehengoa errepikatuko ez dela ziurtatzeko: "Lehen, 200 etxe batera eraikitzeke ohitura oso zabalduta zegoen; orain, horrelako obra gutxi ikusten dira. Ematen duten finantziarioa ere salduta ditzuzun etxebizitza kopuruaren arabera eman ohi dute".

## Iturrizar plazako etxebizitzak

Grupo Ortuibar etxebizitza agentziak Aretxabaletako Iturrizar plazan daukan promozioa beste fase batean sartuta dago. Eginda dagoen azken eraikinean hiru etxebizitza bakarrik gelditzen dira salgai eta jendea dagoeneko hasi da galdezka hurrengo fasean egongo diren etxebizitzetara buruz, baita batzuk erosten ere.

"Gure merkatua Aretxabaletan dago momentu honetan, Iturrizar plazan, eta oso gustura gaudu. Oso harrera ona izan dugu herrian. Jendea zain zegoela zirudien. Egia da etxe berri askorik ez dela egon azken boladan, eta, gauzak nola joan zaizkigun ikusita, gustura egoteko moduan gaudu", dio Gurutz Beitia. Orain arte, aukera zabala eduki dute erosleek bertan; izan ere, bi,



## GELMAko etxebizitzak (Arrasate)




**GELMA PROMOZIOKO %92 DAGOENKO SALDUTA, AZKEN ETXEBIZITZAK! EZ GALDU AUKERA!**

### Eta ezin badut nire etxea saldu?

**EZ KEZKATU zurea saldu arte ez duzu eskrituratuko**

%100eko arrakasta azkeneko 5 urteetan



**2, 3 ETA 4 LOGELAKO ETXEBIZITZAK ETA ATIKOAK**

**AZKEN EROSLEEN %95ek GELMAN EROSTEA GOMENDATZEN DU**

2018KO URRIAN EGINDAKO INKESTA BATEN ARABERA





Tel 943 25 38 21

E-mail: info@inmobibai.com  
Deba kalea 3 Arrasate  
www.inmobibai.com





Gelmako azken etxebizitzak, Arrasaten. BIBAI ETXEBIZITZA AGENTZIA

hiru eta lau logelako etxebizitzak saldu dituzte. 60 metro karratukoak txikiak eta 110 metrokoak handiak. Gainera, prezioak mantentzeko joera erakutsi dute eta badirudi estrategia horrek ondo funtzionatu duela.

#### Gelman oso etxe gutxi jadanik

Arrasaten azken urteetan egin den etxebizitza promozio handiena Obenerreka enpresak lehengo Gelma fabrika zegoen

lekuan egin duena izan da. Baina promozio hori ere amaitzen ari da. Dagoeneko oso etxebizitza gutxi gelditzen dira salgai eta urte batzuetan eraikin *fantasma* bat zirudiena amaitzear dago jada. Barrutik dena txukuntzen ari dira, eta obra horiekin amaituko da promozioa.

"Oso ondo doa gure promozioa. Saltzen ari gara, nahiz eta aurtengo martxoan prezio igoera izan zen. Oso etxe gutxi gelditzen

zaizkigu saltzeko, geroz eta gutxiago, gainera, azken asteetan ere izan ditugulako salmenta batzuk, eta laster amaitu egingo da. Ez dago beste eraikin bat non barrutik egitekoak gelditzen diren, ez ezer. Hori gure alde doa, Arrasaten ez dagoelako etxe berririk; gainera, etxe onak dira, erdialdean daude, auzoa bera ere indarra hartzen ari da, jende gazte asko sartu da... hori guztiori gure

aldekoa da", adierazi du Bibai etxebizitza agentziako Zigor Aginagaldek.

#### Bigarren eskuko etxebizitzak

Etxebizitza berrien promozioa amaituta, bigarren eskuko etxeen merkatuan dauka jarritako ikusmira Bibai agentziak. Merkatu hori ere gora doa, eta, batez ere, etxebizitza mota bat saltzen da Arrasaten: erdialdean dagoena, igogailua daukana eta garajearekin.

"Horrelako etxeek merkatuan ez dute askorik irauten. Arrasatek, baina, aldapa asko dauka eta hori beste mota bateko etxe batzuk daude, orokorrean. Horiek, normalean, garai bateko langileen etxeak dira, etxe txikiak, askotan, isolamendu gabekoak, igogailurik ez dute izaten eta zaharrak dira. Horiek saltzea zaila da, nahiz eta prezioa asko finkatu den eta, seguruenik, ez duen gora egingo", dio Zigor Aginagaldek.

Hala ere, Bibai etxebizitza agentzian pozik daude bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta kopuruarekin: "Egia esan, emaitza onak izaten ari gara. Datu

## ARETXABALETAKO ITURRIZAR PLAZAKO ETXEBIZITZA PROMOZIOA BESTE FASE BATEAN DAGO

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN 10.166 ETXEBIZITZA SALDU DIRA 2018KO LEHEN SEIHILEKOAN

## MERKATUAN GUTXI IRAUTEN DUTE ERDIAN DAUDEN ETA IGOGAILUA ETA GARAJEA DUTEN ETXEBIZITZEK

## GELMAKO ETXEBIZITZETAKO PROMOZIOAN OSO ETXE GUTXI GELDITZEN DIRA SALGAI



**Ortuzal Promociones S.L.**

**2 eta 3 logelako etxebizitzak**, sukalde guztiz hornituak

Gozatu Aretxabaletako ingurune pribilegiatu batean.

**Garajeak ere aukeran.**

Información en:

Telf. 943 794 000 | 943 761 118 | 619 718 278

www.grupoortuibar.com | info@grupoortuibar.com





Bergarako Lorentxokoko etxebizitzetako azken blokea amaitzeaz dago. JOKIN ETXEBARRIA

garrantzitsu bezala, saldu ditugun azken zazpi etxeetan, batez beste, 73 eguneko denbora tartean egin dugu". Horretarako, sistema berezi bat jarri dute martxan, zerbitzua gehiago profesionalizatu nahian. Saltzailearekin harreman estuagoa eduki nahian, dokumentazio asko sortzen dute etxearen baitan, bisita eta dei guztiak erregistratuta gelditzen dira eta etxea ikusten dutenek inkesta bat bete behar izaten dute: "Horrek erabakiak hartzen laguntzen digu. Ikusten dugu salneurri ondo gaudela, baina ez dela pertsona iritsi, edo mundu guztiak esaten duela prezioetik pixka bat kanpo gaudela, edo distribuzio aldaketa bat egin beharko litzatekeela".

#### Lorentxokoko etxebizitzak

Grupo Eibar etxebizitza agentziak Bergarako Lorentxokon daukan

promozioa ere ondo saltzen ari da, agentzia horretako kide Salva Indakoetxeak adierazi duenez: "44 etxebizitzetako bloke bat ari gara entregatzen eta dagoeneko oso etxe gutxi gelditzen zaizkigu saltzeko".

2012 eta 2014 urte bitartean oso zailak izan zirela aitortu du Indakoetxeak: "2012, 2013 eta 2014 urteak nahiko gogorrak izan ziren sektorearentzat eta 2015ean dena finkatzen hasi zen. 2016tik aurrera hasi ginen nabaritzen, batez ere, urteko salmenta kopurua igotzen ari zela. Orduan hasi zenak jarraitu egiten du eta 2018a ere bide beretik doa".

Salmenta igoerak berarekin ekarri du prezioetan ere igoera izatea. Jendearen segurtasun ekonomikoak hobera egin duen heinean, merkatua animatu egin da eta horrek berekin dakar prezioetan igoera. Segurtasun

## LORENTXOKON, 44 ETXEBIZITZATAKO BLOKE BERRIAN, OSO ETXE GUTXI GERATZEN DIRA SALGAI

## ETXEBIZITZA PILOTUEK EROSLEARI LAGUNTZEN DIOTE ETXEA NOLA GELDITU DAITEKEEN IKUSTEN

## EROSI BEHARRAREN MENTALITATEAN, ERAGINA IZAN DEZAKE HEMENGO ALOKAIRU POLITIKAK

ekonomikoak ere animatu ditu agentzia eta etxebizitza eraikitzen dituzten promozio berrietan sartzeraz. Debagoienean ez da merkatua askorik mugitu, hala ere: "Gure kasuan, badakit terreneoak eta aztertzen ibili direla, baina, gaur egun, horrelako operazioak asko aztertzen dira. Batzuk ez dira bideragarriak. Beste batzuk bai, baina norbait aurreratzen zaizu...", diote Grupo Eibartik.

#### ETxebizitza pilotuak

Lorentxokoko etxebizitzetan entregatu behar duten bloke horretan, etxebizitza gutxi gelditzen dira salgai eta Grupo Eibar etxebizitza agentziakoek erabaki dute hiru etxebizitza pilotu sortzea. Momentu honetan, dekoratzaile bat daukate lan horietan eta abendurako prest edukiko dutela uste dute.

"Dekoratzailak bukatutakoan, kanpainatxo bat abiatuko dugu salmenta hori indartzeko. Azken finean, etxe hutsa erakutsita, jendeari kosta egiten zaio ikustea leku horretan ohe bat edo armairu bat edo sofa sartu ahal izango duen. Modu honetara, jantzi egiten duzu etxea eta erosleak ikusi egiten du nola gelditu daitekeen. Honek asko laguntzen du salmenta orduan", dio Salva Indakoetxeak.

#### Ohiturak aldatzen?

Krisiak erosteko ohituretan eragina izan duela esateko orduan bat egin dute hiru agentzietako kideek, baina eskatzen den etxebizitza motan aldaketa handirik ez dela izan ere aipatu dute. "Lehen egunetik, hiru logelako etxebizitza, igogailuarekin eta, ahal dela, garajearekin nahi du gazte jendeak. Eta, noski, etxe horrek erdialdean

egon behar du", dio Zigor Aginagaldek. Grupo Eibarko Salva Indakoetxeak uste du mentalitate horretan eragina izan dezakeela, baita ere, gure inguruan dagoen alokairu politikak: "Hemen ez da Europan bezala. Han hipoteka kuotaren eta alokairuaren artean alde handia izaten da. Hemen, berriz, parean gaude. Azkenean, konturatzen zara 10 urte pasa dituzula alokairuan, eta bizitu zaren arren, diru berdinarekin, agian, zuretzako eta zure ondorengotzako patrimonioaren bat izan zenezakeela".

Bibai etxebizitza agentziako Aginagaldek uste du gazte gutxi egiten dutela lehengo garaietan egiten zen moduan; alegia, etxebizitza duin bat erosi, baina hori ordaindu eta gero lehena saldu eta bigarren hobeago baten bila joan: "Gazte batzuek badute mentalitate hori, baina gazteen %90ek, ez. Beraz, hiru logeladun, igogailudun eta garajedun etxea erosteko, gurasoen laguntza eskatu ohi da; eta etxe zaharragoak direnak baina independizatzeko bidean lehen pauso hori emateko balio duten etxeak ez dira erosten".

Aretxabaletako Iturrizar plazako etxeak erostera joan diren gehienak, berriz, bigarren fase batean daudela aipatu du Grupo Ortuibarko Gurutz Beitiak: "Gure kasuan, galdetzeraz eta erostera etortzen dena dagoeneko familia izan duen jendea dela esango nuke, etxe txiki batetik 3 edo 4 logelarako jauzia eman nahi duena. Aurreneko jauzia independizatzeko izaten da; gurean igarri duguna da familia sortuta edo sortzeko asmoarekin dagoen jendea dela etortzen dena, eta jauzi hori ematera ausartzen dena".

# UGARTE

## ERAIKUNTZAK

- > HORMIGOIZKO ETA EGURREZKO EGITURAK
- > IGELTSEROTZA
- > ZAHARBERRITZEAK
- > PROMOZIOAK

943 78 05 54

663 97 31 64

OÑATI

ugarte@cnes-ugarte.com  
www.cnes-ugarte.com



**Handiagoak. Merkeagoak.  
Partekatutako gune gehiago.  
Gozamen gehiago. BIZI gehiago.**

2, 3 ETA 4 LOGELAKO ETXEBIZITZAK  
125.000 €-TIK AURRERA  
TERRAZA HANDIEKIN

Laster izango duzu  
gure etxebizitza pilotuak  
bisitatzeko aukera.

**ZUZENEKO  
ESKRITURA**




**loren txoko**  
bizigunea

**Etor zaitetz etxebizitza pilotua ikustera  
edo sartu zaitetz Bisita Birtualean.**

**AZKEN  
2 ETXEBIZITZAK  
SALGAI!!**

**BEREHALA SARTZEKO**

GARAJEAK ETA  
TRASTELEKUAK  
BARNE







Ikaste-mahai handia duen gazte logela, paretak kolore grisez eta zuriz nahastuta. UGARTE AROZTEGIA

## Pertsona bakoitzaren nortasunari eutsita

Gaur egun, estilo minimalista eta modernoa asko erabiltzen da, estilo industrial batekin nahastuta, logelei dotoretasuna emateko. Horrekin batera, Ugarte Aroztegian, egur-imitazioko altzari sintetikoaren aldeko apustua egiten dute

**Imanol Beloki** BERGARA

Bergarako Ugarte Aroztegian, bakoitzaren pertsonalitatea irudikatzen duen espazioaren aldeko apustua egiten dute. Izan ere, inguratzen duen guztiak du garrantzia. Honela adierazi dute Ugarte Aroztegioko ugazabek: "Argazki batek, aulki batek edo alfombra batek dauka zer esana. Paretan argi-koloreak eta de-

korazio xehetasunek esaten digute nor bizi den etxe horretan. Gainera, etxebizitza bat dekoratzean eta altzariz hornitzean, jendeak espazio ordenatuak bilatzen ditu, ikus eremu erlaxatua eskaintzen duena".

Higigarrietan, orokorrean, estilo minimalista eta modernoa asko erabiltzen da, estilo industrial batekin nahastuta,

dotoretasuna emateko. Gaur egun, gainera, egur-imitazioko altzari sintetikoaren aldeko apustua egiten da, tonalitate ezberdinekoak erabiliz, zuri, beltz edo gris koloreekin nahastuta.

**Gazte logelak**

Logeletan, antolamendu egokia nahi dute bezeroek, ahalik eta edukiera handien duten armai-



Espazioa ondo aprobetxatzeko armairua. UGARTE AROZTEGIA



Logela zabala, egurra nagusi duena. UGARTE AROZTEGIA

ruak eta deskantsurako erosoak eta osasungarria den koltxoia. Hala, jolaserako eta ikaste-mahairako ere lekua behar izaten dute; beraz, Ugarte Aroztegian ohe eraisgarrien aldeko apustua egiten dute, horiek jasota eta espazio libre handiagoa utzita.

Salan ere, logeletan moduan, edukiera handia bilatzen da. "Sofa handi eta erosoak bilatzen ditugu, distribuzioarekin bat datozenak. Jarleku finkoak, erlaxatzekoak edo irristagarriak eta kolore leunekin tapizatuta

daudenak: berde goroldio, gris, beix, zeru urdin edo urdin ilun kolorekoak, batez ere".

**Detalle naturalak bueltan**

Elementu naturalak erabiltzen dira dekorazio gisa; egurra, esaterako. Eskuz egindako koadroen markoak eta paretetan jartzeko egurrezko erlojuak, besteak beste. Horrez gain, *poft* eta kutzak *-capitone* estilokoak- gauzak gordetzeko erabiltzen dira. Horiek, tonu neutroak dituztenak, eta forma geometrikoak dituzten kuxinekin erantsita.



**Ametsa**  
Rehabilitaciones

**MANTENTZE-LANAK KOMUNITATEETAN**  
**SATE** (Kanpoko isolamendu termikoaren sistema)  
**ERAIKINEN BIRGAIKUNTZA**  
**FATXADA AIREZTATUAK**  
**TEILATUAK**

646 35 31 99 info@ametsa.es DURANGO



# Kalitatea eta gertuko tratua, ezinbesteko

Bezeroak nahi duen ametsetako sukaldea diseinatzea da Bastida Sukaldeak-en helburua. Horretarako, prestakuntza eta kalitatea bermatzen dute, guztiz pertsonalizatuak diren proiektuak eginda, sukalde perfektua lortzeko

**Imanol Beloki** BERGARA

Bergarako Bastida Sukaldeak-ek hogeitaz hamar urteko esperientzia du -Azpeitian eta Zarautzen ere baditu dendak-; lehen mailako prestakuntza eta kalitatea bermatzeaz batera, diseinu taldeak proiektu pertsonalizatuak eta bezeroendako etxebizitzara egokitutako sukaldeak egiten ditu.

Batez ere, bezeroen beharrei eta eskaerei erantzutea da Bastida Sukaldeak-en zerbitzuaren helburua; lantaldea guztiz trebatuta dago bezeroentzat sukalde perfektua diseinatzeko. "Hori da bezeroak bilatzen duena, euren ametsetako sukaldea, eta hori gauzatzea da gure helburua.

Horretarako, diseinua eta materialak erakutsi eta merkatuan dauden joerak azaltzen dizkiegu, bezero bakoitzak sukaldea bere nortasunaren eta gustuen arabera egokitu dezan", adierazi du Ione Bastidak.

**Ate markoztatuak, modan**

"Milanoko *Salone del Mobile* altzari azokan ikusi ahal izan genuen moduan, ate markoztatuak, harria imitatzen duten ateak, egurrezko ateak, ate herdoilgaitzak... daude modan. Baina gehien saltzen direnak edozein akabera duten ate leunak dira". Hori horrela, modek denbora behar izaten dute sektorerara hel-

tzeko, eta, Bastida Sukaldeak-en berrikuntzaren aldeko apustua eginez, moda horiei aurreratzen saiatzen dira, betiere, produktuaren kalitatea eta xehetasun egokiak bermatuz. Horrekin batera, beste edozein dendetatik ezberdintzen dira Bastida Sukaldeak. Izan ere, zerbitzua hobetze aldera, une oro ari da lanean, mota ezberdinetako produktuak eskaintzen dituzte, eta guztiz pertsonalizatuak diren proiektuak gauzatzen dituzte.

**'Doimo Cucine', moda-modakoa**

Gainera, *Doimo Cucine* fabrikatzaile italiarraren sukaldeak merkataturatzen dituzte Bastida



Zarazuko dendako erakustokian, kristalez eta egurrez eginiko sukaldea. BASTIDA SUKALDEAK

Sukaldeak-en. Publiko zabalagoarengana iristeko eta poltsiko guztietarako aukerak eskainiz. Hala, eskaintzak pertsonalizatuak eta mota askotakoak dituzte: diseinuzkoak, gaur egungoak, dotoreak, minimalistak, kolorez beteak eta erromantikoak. "Beti esan ohi da diseinuari dagokionez italiarrak pauso bat aurrerago daudela, eta guk hori egia den ziurtasuna daukagu. Ez bakarrik

diseinuaren aldetik, altzariet bizi luzeagoa izan dezaten gogorragoak eta iraunkorragoak izateko lan asko egin baitute", adierazi du Bastidak.

**Askotariko altzariak**

Sukaldeko altzariet gain, mahaia eta aulkiak, komunetarako elementuak, horman sartutako armairuak eta etxeko altzari ezberdinak ere saltzen dituzte.

## Etxea berriztu behar al duzu?

**GU ARDURATUKO GARA GUZTIAZ!**

Giltza eskura formatua aprobeztatu eta ahaztu etxean obrak dituzula!



**eki termik**  
efizientzia energetikoa

Aurreztu energian!

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



www.ekitermik.com



ekitermik@ekitermik.com



688 870 219



# Zaharberitze lanak, hasieratik bukaeraraino

Arrasateko Ekitermik eta Durangoko Ametsa Rehabilitaciones enpresak etxebizitzaren zaharberitze lanetan adituak dira eta prozesu osoaz arduratzen dira: proiektua, diseinua, obrak osotasunean, baimenen tramitazioa eta diru laguntzen aholkularitza

## AMAIA ZABALA ARRASATE

Ekitermik Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean kokatuta dagoen kooperatiba da lantalde osoa bailarakoa da: arkitektoak, teknikariak eta ingeniariak. Etxebizitza, baserri eta lokalak zaharberitzen dituzte eta *giltzak eskura* metodoa erabiltzen dute horretarako. "Obraren inguruko lan guztiak hartzen ditugu gure gain: proiektua, aholkularitza, diseinua, baimenak, diru laguntza, eta abar. Hasieratik amaieraraino, obrak dakartzen lan guztiez arduratzen gara, bezeroak ezertaz kezkatu beharrik izan ez dezan, eta horrek exekuzio denbora murriztea ahalbidetzen digu", dio Ekitermik kooperatibako kide eta arkitekto tekniko den Andoni Altubek.

Ametsa Rehabilitaciones SL sektorean esperientzia eta eskarmentu handia zuten bizilagunek sortutako Durangoko enpresa da eta horrek ere zerbitzu "oso" eskaintzen die bezeroei. Berezitasun moduan aipatu behar da Europa iparraldean egiaztatutako eta finkatutako materialak erabiltzen dituztela, eta beste hainbat faktore ere hartzen dituzte kontuan beraien lanetan: "Eraikinen zaharberitze eta birgaitze prozesuan, kalitateaz, efizientzia

energetikoaz eta aurrezte ekonomikoaz gain, ingurumena ere kontuan izaten dugu", azaldu du Fernando Castilok, Ametsa Rehabilitaciones SL enpresako gerentek.

Efizientzia energetikoaz ere asko daki Ekitermik lantaldeak, garrantzi handia ematen baitiote eta argi baitute energia berriztagarriak erabilia "%70 aurreztu daitekeela" energia kontsumoan: "Etxea berritu gura duenak pentsatu behar du beste hogeitaz urterako obra egingo duela; beraz, alderdi energetikoa ondo begiratzea garrantzitsua da. Gainera, berreskuratutako egindako inbertsioa", dio Altubek. Azpimarratu du gero eta gehiago direla horretaz ohartu diren bezeroak.

## Eguzki energia

Eguzki-energia fotovoltaikoaren legean aldaketak egin dira urrian eta Espainiako Gobernuak "eguzkiaren zerga" kendu du; ondorioz, plaka fotovoltaikoak etxean iza-

## EFIZIENTZIA ENERGETIKOA KONTUAN IZATEN DUTE ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEAN

teagatik ez da zergarik ordaindu behar eta oraindik eta errentagarriagoa izango da. "Ekitermik adituak gara eguzki panelen instalazioan, eta baserri zein etxebizitzetan instalatzen ditugu", azaldu du enpresako arkitekto tekniko Altubek.

## 30 urtera arteko bermea

Etxebizitzak berritzea lan mardula izaten eta ahalik eta garrantzia zabalena bilatu ohi da; hala, Ametsa Rehabilitaciones SL enpresan "hogeita hamar urtera arteko garrantzia" eskaintzen dute, kasu batzuetan. "Ametsako lantalde osoak formazio bikaina eta esperientzia zabal du; beraz, esku artean ditugun proiektu guztietan arrakasta bermatzen dugu", dio enpresako gerentek. Gainera, "aitortza handiko" markekin egiten dute lan: Euronit, Tempio, Fundermax, Ivas, Baumit eta Weber, besteak beste. Fatxada aireztatua eta SATE sistemak ere aplikatzen dituzte.

## Ordaintzeko aukerak

Ametsa Rehabilitaciones SL enpresak ordainketa metodo ezberdinak eskaintzen ditu, bai finantza entitateekin hitzartuak eta baita zuzenean enpresak eskaintako "arrazoizko" ordainketa egutegien bitartez ere.



Ekitermik eginiko infografia eta eraiki ondoreneko argazkia. EKITERMIK



Ametsak zaharberitutako eraikin bat. AMETSA REHABILITACIONES SL

UGARTE  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

ARROZTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA  
aroztegia@ugarteuroztegia.com







Ondarre eta Buztinzuri arteko estugunean hasi dira lanak egiten. MAIDER ARREGI

## Ondarretik Buztinzurira ezingo dira autoak pasa

Antiguan, Beheko auzoan eta Ondarren asfaltatze lanak egingo dituzten. Ondarre auzoan egingo dira lanak sakonenak eta dagoeneko hasi dira bertako espaloiko baldosak eta zuhaitzak kentzeko lanetan. Guztira, 120.000 euroko kostua dute lanek

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako hainbat auzotako espaloiak eta errepideak konponduko eta txukunduko dituzte ondorengo asteetan. Lanik esanguratsuen eta potoloena Ondarre auzoan egingo dute. Langileek martitzenean hasi zituzten espaloiz zaharra eta bertan dauden zuhaitzak kentzeko lanak. Antzuolako Hirigintza teknikari Valen Moñuxek azaldu duenez, bertako azalera osoa itxuraz aldatuko dute. Hau da, gaur egun dauden baldosa hidraulikoak kendu eta itxura modernoagoa eta dotoreagoa dutenak jarriko dituzte: "Egun Ondarren dagoen espaloiak ez ditu herritarren beharrak asetzen. Horregatik, azalera osoa aldatuko dugu. Galtzada-harri itxura daukan asfalto mota jarriko dugu egungoa ordezkatzeko. Bi koloretakoa izango da eta itxuraz urbanoagoa eta dotoreagoa izango da, gainera".

Ondarretik Buztinzurira doan pasabideak ere aldaketa izango

du. Izan ere, aurrerantzean, ibilgailuek debekatuta izango dute bertatik igarotzea. Auzotarrekin aurrez hausnartutako, landutako eta adostutako erabakia izan dela nabarmendu du Hirigintza teknikariak: "Autoendako bide zatia itxi egingo da eta ezingo dira aurrerantzean Ondarretik Buztinzurira edo Herriko Plazara igaro. Soilik aparkatzera sartzeko aukera izango dute. Aldaketa nagusia horixe da, hain justu. Hala, estugune horretan sortzen ziren arazoak saihestuko dira eta inguruak onura handia izango du".

Buztinzuriko bidegurutzean sortzen den arriskua ere ekidin gela azaldu du. Auzotarren lasaitasunerako autoen joan-

**ANTIGUA ETA BEHEKO AUZOKO LANAK ONDARREKOAK AMAITZEAN HASIKO DITUZTE**

etorriak ere arinduko dira. Aipatu behar da auzotarrek aparkaleku bat irabaziko dutela eta aurrerantzean baterian aparkatzeko zazpi aparkaleku edukiko dituztela –lehen, sei zeuden–.

### 120.000 euro

Aurrekontuen diru partidarik handiena asfaltatze lan horiek egiteko da: 120.000 euro. "Orain, Antzuolako hainbat auzotan egingo diren lanez gain, udan Lizarraga auzoko bidegurutzean egin zen lan potoloa ere kontuan hartu behar dugu. Asfaltatze lanok 120.000 euro inguruko kostua dute".

### Antigua eta Beheko auzoa

Ekaineko uholdeen ondorioz lanak pixka bat atzeratu egin direla aitortu du Valen Moñuxek. Baina ondorengo egunetan Antigua auzoa oso-osorik –bukarako plazatxoak izan ezik– eta Beheko auzoa ere asfaltatuko dutela azpimarratu du. Lanak erraz eta azkar egingo dira.



ANDRAMANUELAK

## Indarkeria matxista salatu dute

Istorio gordinez beteriko aulki hutsak jarri zituzten plazan joan den egubakoitzean. Domekan, aulki horiek jasotzen zituzten istorioak kontatu zituzten, indarkeria matxista salatuz, Andramanuelak talde feministako kideek. "Aulki huts bakoitzean arropak jarri genituen domekan. Izan ere, elkarretaratzearen ostean, emakume bakoitzaren istorioa irakurri genuen".



NIRE USTEZ

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ IRAKASLEA

### Arrola

Bi urterako nago batzordekide Arrola mendizale taldean. Egia esan, neurri batean, derrigortua ere banago, boluntariorik ez dagoenez federatuen esku jarri delako elkartearen bizi iraupena edo etorkizuna. Hala ere, ondo nabil, mendian ibiltzea gustatzeaz gain, zaletasun honek inguru asko ezagutzeko aukera ere eman didalako. Esan bezala, elkarteak bizi duen egoera ez da oparrena. Lau bat urte ondoren (2.022) 50 urte beteko ditu Arrolak, eta arnasa gero eta gehiago hartzea kostatzen zaion talde honek bizi iraupen estua duela ematen du. Baina, lasai, guk, behintzat, ez dugu etsiko, eta, horretarako, irteeretan pedagogia martxan jartzen saiatzen gara, eta inguruari galderak eginez erantzunen bila aritzen gara, eta, hala, gure eta inoren inguruetako ondare ederrari ere erreparatzen diogu. Bi urte aberatsak izaten ari dira: irteera bakoitzean herritarren eta belaunaldien arteko elkar ezagutza eta harremana sendotzeko paregabe esperientzia ere izaten ari delako eta, lehiaketa eta txapelketa menpekotasunik gabe, elkarren artean solasaldian, disfrutatzen dugulako. Beraz, animatzen zara hurrengo irteeran gurekin etortzen?

## San Esteban krosetan izena emateko epea zabalik dago

Gabonen atarian gauden adierazle da San Esteban krosa. Aurten ere, abenduaren 26an, eguaztena, egingo da herri lasterketa. Izen-ematea zabalik dago abenduaren 10era arte, astelehena. Liburutegian eta udaletxean eman daiteke izena. Eman behar diren datuak: izena, bi abizen, adina eta helbide elektronikoa. Epe horretan izena ematen du-

ten haurrek dominak jasoko dituzte eta 12 urtetik gorakoek Ternua sariaren zozketan parte hartzeko aukera izango dute. Izena abenduaren 10a baino geroago ematen duten haurrek ez dute dominarik izango; 16 urtetik gorakoek ezta ere Ternua sarietako aukerarik.

Krosaren antolatzaileek ohartarazi dute lasterketa behar bezala atera dadin boluntarioak behar direla ibilbideko bidegurutzeetan egoteko eta hainbat lan egiteko.





Indarkeria matxistaren aurkako adierazpena eta bigarren Berdintasun Plana aho batez onartu zituen udalbatzak. JOKIN BEREZIARTUA

## Biktima lehenesteko konpromisoa, aho batez

Indarkeria matxistaren aurkako adierazpena eta II. Berdintasun Plana onartu dira azaroko bilkuran; bestalde, pentsiodunek "jarrera aldaketa bat" eskatu zioten Udal Gobernuari, eta Zubietako bizilagunek 2019an egoera hobetzeko zer egingo den jakin gura izan zuten

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Indarkeria matxistaren aurkako adierazpena aho batez onartu zuen udalbatzak azaroko ohiko osoko bilkuran. Azaroaren 25ean, Martxantere indarkeria matxistaren kiribila irudikatu zuten San Martin plazan, eraso ikusezinen eta agerikoen adibideak jarrita eta eskuak *odoletan* ziztuztela, indarkeria matxista "oso

gertu" bizi dela gogora ekartzeko. Udalaren adierazpenean –Eudelena duena oinarri–, indarkeria jasan duten emakumeei ahotsa eman behar zaiela eta haien lekukotzari autoritatea eta bizi izan duten indarkeriaren kontakizunaren egiazkotasuna adierazi behar zaiela jasotzen da, besteak beste. Zerbitzuak hobetzera, elkarlanean jardutera eta

babesa ematera konprometitu zen udalbatza, besteak beste. Gainera, gizonen eta emakumeen berdintasunerako bigarren plana ere aho batez onartu zuten astelehenean. "Teknikariarekin gorabehera batzuk izan arren, bi urte daramatzagu lanean plan berria osatzeko; poztekoa da denon adostasuna lortu izana", dio alkateak.

## Abenduaren 3an hasiko gara truke azokarako liburuak jasotzen

Abenduaren 16an Seminarixoan egingo den azokan parte hartzeko, Jardunen egoitzatik pasatu eta liburu bat utzi

**Goiena komunitatea**

Jardun euskara elkarte / BERGARA

Badator euskarazko irakurzetatasuna bultzatzeko kanpaina. Euskararen Egunean hasi eta abenduaren 16ra bitartean, euskarazko liburuen truke azoka

izango dugu martxan. Bertan parte hartzeko, gaur egun erabili ez eta egoera onean dauden euskarazko literatura liburuak Jardunen egoitzara –Errotalde jauregira– ekarri beharko dituzue abenduaren 3tik 14ra arte.

Liburu bakoitzeko txartel bat emango da, eta, horrekin, abenduaren 16an Seminarixoan egingo den bigarren eskuko azokan beste liburu bat hartu ahalko da.

**Amodiozko gutunen lehiaketa**

Bestalde, amodiozko gutunen lehiaketan parte hartzeko aukera dago oraindik; gutunak entregatzeko azken eguna urtarrilaren 6a izango da eta mezuak urtarrilaren 24a baino lehen bidali beharko dira. Argibide gehiago: 605 71 24 69.



Erretiratuen eta pentsiodunen ordezkari bat, asteleheneko bilkuran. J.B.

## Pentsiodunak, "haserre eta minduta"

Duintasuna elkarteko Itziar Usandizagak bilkuran esan zuenez, "haserre eta minduta" daude: "Udal Gobernu honek ez digu inongo enpatiarik erakutsi. Irizpide ezberdinak daude baliabideak banatzeko; bigarren mailako herritar sentitu gara eskaerak egin ditugunean". Horren harira, alkateak esan zuen iaz mozio bat onartu zela haien aldarrikapenei atxikimendua adierazten, eta lankidetzarako gonbidapena egin zien: "Lankidetzara bultzatu beharra dugu, beste elkarte batzuekin moduan". EH Bilduk uste du tratua ez dela bidezkoa izan: "Baliabide batzuk eskatu dituzte, beste herritar batzuei uzten dietenak, eta, arrazoi handi barik, ezezkoa jaso dute; beste borondate eta jarrera bat eskatu diogu alkateari". Irabazik ere salatu zuen Leteren jarrera: "Urduri jartzen duenari bizitza jasanezin egiten dio; dirutza bat kobratzen du, eta beste eredu bat eman beharko luke".

**Zubietako bizilagunak, galdezka**

Zubietako bizilagunak ere egon ziren bilkuran, eta, prentsaren bidez enteratu zirenez Gobernuaren 2019rako aurrekontu proposamenean partida bat bideratuko dela euren auzorako, asmo horien gainean galdetu zuen Gorka Gonzalez bizilagunak. Alkateak honako hau erantzun zuen: "Datorren urtean, lur azpiko aparkalekuarekin batera, Zubietako kaleak erabilera handia izango du, eta neurri zuzentzaile batzuk hartu behar dira trafikaketa aldatu barik, une honetan

hori ez da-eta posible. Aurrekontua onartzean, hori garatuko da, parkinga egiten hasi aurretik eta zubiko lanak bukatu ondoren".

**Amatasun bajaran, botoa delegatu**

Amatasun bajaran dauden zinegotziek botoa delegatu izana albiste izan zen berriro. Udal Legeari esker, urriko bilkuran Leire Iruinek Agurne Barrusori delegatu zion botoa; azarokoan, berriz, Maite Agirrek Elena Leteri. Hortaz, hamabost zinegotzi egonda, bozketa guztietan hamazazpi botoa kontatu ziren.

## OHARRAK

**Pol-Poleko gazte taldearen mendi irteera**

Bihar, abenduak 1, Aramaiotik Orixolerainoko ibilbidea egingo dute. Lauzprobost orduko irteera izango da; Ibargaraiko geltokian elkartuko dira (08:15), hainbat autotan joateko. Gaur, oraindik ere, izena eman daiteke, 19:00etatik 20:00etara.

**Nazioarteko sukaldaritza saioa Angiozarren**

Kolonbiako eta Argentinako sukaldaritza ikastaroa egingo dute bihar goizean Angiozarko Pagomendi elkartearen: 943 76 93 94.

**Hilaren 16ko Domeka Azokarako izen-ematea**

Seminarioko patioan egingo den elkartruke, berrerabilera eta artisautza azokan izena emateko: [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus).



# Kaleak musika doinuz aurtengo Gabonetan

Abenduaren 4an, martitzena, argiak piztearekin batera emango zaio hasiera Gabonetako kanpainari. Munibe plazako ohe elastikoa, herrian barrena ibiliko den trena eta erdigunean jarriko duten musika dira berritasunak

## Eneko Azkarate BERGARA

Urtarrilaren 5era arte, Musika Eskolako Gabonetako kontzertua, Horra Horra Gipuzkoako haur abesbatzen emanaldia eta Gabonetako kontzertua; *Kibubu*, *Katillukadak* eta *Lau* umeendako ikuskizunak; jolas parkea; Olentzero eta Mari Domingi, Bizarzurri eta Errege kabalgata; erakusleho lehiaketa; kaleko musika eta beste hainbat izango dira, Gabonetako oporretako kirol hitzordu askotarikoekin batera. Familientzat Paleontologia tailerra izango da Laboratoriumen, 27an. Udalak, herriko dendarien elkarrekin –Bergara Bizi ekimenaren barruan– eta beste hainbat kirol elkartek antolatutako ekitaldiok. Bestalde, abenduaren 4tik 8ra bitartean eta 14tik urtarrilaren 6ra bitartean, musika entzungo da, bolumen baxuan, kalean, erdigunean jarritako 40 bozgorailuren bidez.

## Ohe elastikoak Muniben

Abenduaren 5etik urtarrilaren 6ra bitartean, ohe elastikoak jarriko dituzte txikiendako, Munibe plazan. Egunero erabili ahalko dira: lanegunetan, 17:00etatik 20:00etara; zapatu, domeka eta bestelako jaiegunetan, 11:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Horretaz gain, abenduaren 21ean eta 22an, egubakoitz eta zapatuan, txu-txu trena ibiliko da kalean barrena. Egubakoitzean, 17:00etatik 20:00etara; zapatuan, 11:30etik 14:30era eta 16:30etik 20:30era. Ohe elastikoetarako zein trenerako txartelak, herriko dendetan banatu dituzte erosketak egiterakoan.

## Zozketak eta erakuslehoak

Abenduaren 1etik 20ra bitartean, pazko-loreak eta turroi-sortak zozkatuko dituzte Bedelkar Txartelarekin erosketak egiten dituzten artean, eta, horretaz



Udaleko eta dendarien ordezkariak Gabonetako kanpainaren aurkezpenean. GOIENA

## ERDIGUNEAN 40 BOZGORAILU JARRIKO DITUZTE, MUSIKA SOINU BAXUAN ENTZUN DADIN

gain, 600 euro zozkatuko dituzte, 150 euroko lau erosketatxartelatan, urtarrilaren 5era arte herriko denda, taberna edo jatetxeetan erosketak egiten dituzten artean. Urtarrilaren 5ean egingo dute zozketa, San Martin plazan, 17:00etan, Bizarzurri bertan dela.

Erakusleho lehiaketa ere egingo dute aurtengo abenduaren 3tik 12ra bitartean eman ahalko da izena. Erakuslehoak abenduaren 4rako gertu egon behar dira. Hiru sari banatuko dituzte, 300, 250 eta 150 eurokoak, eta beste bat, 50 eurokoa, zozketan parte hartuko duten bezeroendako.

## Olentzero eta Mari Domingi

Udaletxeko atarian Olentzeroren eta Mari Domingiren txokoa egongo da, abenduaren 4tik aurrera, txikien gutunak jaso-

tzeko. Eta 24an ariko dira kalean. San Martzialdik etorriko dira eta 11:30ean Oxirondo azokan elkartuko dira eskoletako neska-mutikoekin eta gurasoekin; arratsaldean, 18:30ean gutunak jasoko dituzte Seminarixuan. Urtarrilaren 5ean, Bizarzurri –17:00– eta Errege Magoen kabalgata –19:00– izango dira.

## Musika eta kirola

Abenduaren 21ean, Musika Eskolako Gabonetako kontzertua izango da –18:30– eta 22an Orfeoarena, Aritzetarena, Bandarena eta Orkestrarena –22:30–. Igandean, 23an, osteran, Horra Horra Gipuzkoako haur Abesbatzen emanaldia izango da –18:00–. Hirurak ere Udal Pilotalekuan izango dira.

Kirol hitzorduak ere asko izango dira, kiroldegian eta pilotalekuan: eskubaloia eguna Labegaraietan, 22an; 3x3 irristaketa hockey txapelketa Labegaraietan, 26an; hiruko saskibaloia txapelketa Udal Pilotalekuan, 27an; eskubaloia, Labegaraietan, 27 eta 28an; saskibaloia, Labegaraietan, 29 eta 30ean; pilota txapelketako finalak 30ean; San Silvestre lasterketa 31n...



NIRE USTEZ

ANA CARPINTERO

## Kontzientzia

*Kontzientzia badago, aukera dago*, dio esaera budista batek. Esaldi hori nire egin nuen bere garaian, baina zenbat eta gehiago erabili, orduan eta argiago ikusten dut bide guztiak kontzientziara naramatela. Kontziente bagara, parekoari gertatzen zaiona ikusteko aukera daukagu; kontziente bagara, edozertaz jabetzeko aukera izango dugu; kontzientziak jokatzen badugu, nahi dugun horretan eragiteko aukera izan dezakegu... Beti dago kontzientzia guztiaren atzean... gero, horrekin zer egiten dugun... gure esku dago. Euskaraldia ere, kontzientzia ariketa bat, bakoitzaren euskara erabileraren kontzientzia hartze bat; zenbatetan automatismo hutsez gaztelarara jotzen dugu; zenbatetan ezezagunei *badaezpada* gaztelaraz hitz egiten diegun; eta zenbatetan gure *eskizofrenia linguistiko*-aren zurrunbiloan gaztelarazko hitzak edota esaldiak sartzen ditugun. Kontzientzia piztu didaten hainbat klik txiki izan ditut azaroaren 23tik hona eta behin kontziente izanda, norberak ikusiko du horrekin zer egiten duen baina ez ahaztu kontzientzia badago aukera dagoela. Nik nire aukera kontzientziak egitea erabaki dut, eta zuk?

## GORA ETA BEHERA



## Zubietako espaloientatik, kexu

Herritar batek bidali du argazkia. Zubieta kaleko bizilaguna da eta dio "kokoteraino" daudela kalearen egoera "tamalgarriarekin". Kexu da "espaloiak estuegiak" direlako eta argazkian ikusten diren moduko egoerak ohikoak direlako.

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



S.G.

## Kataluniako erreferendumaren gaineko dokumentala

Marta Jofrak eta Ferriol Moyak iaz urriaren 1eko Kataluniako autodeterminazio eskubidearen gainean egindako erreferendumari buruzko *Dia R* dokumentala ikusteko aukera izango da bihar, zapatua, Aroztegi aretoan, 12:00etan. Egileak bertan izango dira eta ikus-entzunezkoaren ostean solasaldia egingo dute. 2017ko irailaren 30ean eta urria-

ren 1ean, galdeketa egunean, Kataluniako Vilanova herrian jasotako irudi eta testigantzekin egindako lana da. Bozkalekue-tan, Vilanovako alkate Neus Lloveras, Quim Arrufat CUPEko diputatu ohia eta Sergi Lopez aktorea elkarrizketatu zituzten egileek, besteak beste, baina, horiekin batera, baita beste hainbat herritar "anoni-mo" ere.

Jofra eta Moya Euskal Herrian dira egunotan euren lana herri-rik herri aurkezten.





MovemBergara taldekoak, azaroaren 14an, Gurutz Orbe medikuaren hitzaldiaren ostean. JOXU ARANA

## Enkantera aterako dute bibotea kentzeko aukera

MovemBergara taldeak festa giroan emango dio amaiera Movember ekimenari. Hil osoan barrabiletako minbizia ezagutzera eman eta dirua batzen ibili ostean, gaur, jaialdia egingo dute. 19:00etan hasiko dira musika ekitaldiak, Irala kalean

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA Azaroari eta aurtengo Movember ekimenari amaiera emango diote gaur MovemBergara taldekoek. Hainbat ekintza egingo dituzte; ekimena modu onean agurtu eta, bide batez, dirua biltzeko asmoarekin.

19:00etan, Irala kalean kontzertua eskainiko dute Azkairer Pelox-ek eta Saltim Bankis taldeak. Gainera, *MovemBergara* abestia aurkeztuko dute ikuskitzunean.

### Enkantea egingo dute

Bibotedunen argazkia egingo dute, 20:00etan. Aurtengo ekimenean 132 lagunek parte hartu dute, eta, argazkian denak egongo ez diren arren, familia argazki handia egitea espero dute.

20:30ean, enkantera aterako dituzte biboteak: "Bibote bakoitzaren hasierako prezioa 5 euro izango da. Hortik aurrera, herritarrek aukera izango dute enkantean parte hartzeko. Diru gehien eskaintzen duenak izan-

go du bibote hori kentzeko aukera", azaldu du Joxu Aranak. Makina elektriko batekin kentzeko dituzte biboteak.

### Indartuz doan ekimena

Aranak dio aurten indarra hartu duela MovemBergara ekimenak: "Balorazio oso ona egiten dugu. Lehenengo urte hauetan gero eta jende gehiago joan da ekimenera batzen; iaz, esaterako, 50 lagun izan ginen bibotedunak eta aurten, 132 izan gara", nabarmendu du Aranak.

Gorantz doan mugimendua dela dio, baina garrantzitsuenaren atzean dagoen helburua dela azaldu du: "Gure helburua barrabiletako minbizia ezagutzera ematea da, jendeak

**BERGARAKO MUGIMENDUA HANDITUZ DOA; IAZ, 50 BIBOTEDUN ZIREN ETA AURTEN, 132 DIRA**

jakin dezan zer den gaitz hori, eta prebentzioak duen garrantzia nabarmentzea".

Hil osoan zehar jaso duten dirua eta gaurko enkantean baturko dutena mundu mailan lanean diharduen Movember fundaziora bideratuko dute. "Uste dute mundu mailan, aurten, 700 milioi euro izatera pasako dela fundazioa", dio Aranak.

### Medikuaren hitzaldia

Azaroan zehar hainbat ekitaldi egin ditu mugimendua. Hilaren 14an, esaterako, Eusebio II tabernan, Gurutz Orbe medikuaren hitzaldia eskaini zuten. "Diagnostikoaren eta prebentzioaren gainean jardun zuen, eta baita zein tratamendu dau den ere. Baina barrabiletako eta prostatako minbizia bakarrik ez, aipatu zuen baita, portzentaje txikian bada ere, badagoela zakileko minbizia ere. Horrez gain, buruko gaixotasunen gainean ere jardun zuen Orbek", azaldu du Aranak.

## Hainbat ertz musika proiektu baten bueltan elkartu dira

Ertzak taldeak 'Gaur' diskoa aurkeztu berri du. Bihar egingo dute lehenengo zuzeneko, San Juan auzoan

### A.E. BERGARA

Galizian sortutako ideia bati gorputza eman dio azkeneko urtean Alustiza, Aranzabal eta Vicente hirukoteak. Ideia hari tiraka, Ertzak taldea sortu dute, eta baita diskoa kaleratu ere: *Gaur*. "Ertz ezberdinetatik gazozen musikariak gara. Aritzek trikitia jotzen du, ni -Amaia- musika klasikoan ibili naiz, gehienbat, eta Oihane dantza mundutik dator. Oso ezberdinak eman arren, osagarriak gara eta bat egin dugu proiektu honetan", dio Aranzabalek. Hain zuzen, hortik dator taldearen izena.

Sei abesti jaso dituzte *Gaur* diskoan: "Lasaia, folk ukitua duena, runba bat, trikitia... zaila da etiketa bat jartzea", diote.

### Bihar, kontzertua

Zapatuan egingo dute zuzeneko emanaldia San Juan auzoko



Ertzak taldea. A.E.

ermitan, 20:30ean: "Ordubate inguruko emanaldia izango da eta bertsoak ere joko ditugu".

Abenduaren 7an, 15:00etan, Durangoko Ahotsenean joko dute, eta diskoa salgai izango dute Goenkaleko 46. zenbakian, 8 euroren truke.

## Lapurretak egin dituzte

Ertzaintzak aditzera eman duenez, Zurraderon eta Ortuibarren dauden Sustar kalamu elkartearen eta Aratz albaitaritzaren klinikan sartu ziren lapurrak martitzen gauean.

Bestalde, kartzela zaharrean ere sartu dira lapurrak: "Zapatutik domekarako gauean lapurrak sartu dira berriro; sartzeko, ate bat apurtu dute".



A.G.

## Neguko ligako igeriketa proba egingo dute bihar

Bihar, zapatua, Agorrosingo igerilekuan Gipuzkoako nagusien neguko liga txapelketako hirugarren proba egingo dute. Arratsalde igerilekua itxita egongo da -proba 16:00etan hasiko dute-. Denboraldi honetan Bergaran jokatu duten lehenengo proba izango da biharkoa. Senior mailako igerilariak ibiliko dira lehian.

## EUSKARALDIA.

### 3.423 dira Bergaran Euskaraldian izena eman dutenak

Guztira, 2.833 *ahobizi* eta 590 *belarriprest*. Euskaraldia batzordearen iritziz, "garrantzitsuen hartutako rola ondo betetzea da. Pisu berezia du txapa beti bistan eramateak". Bizipenak jaso nahi dituzte *bergaraeuskaraldia@gmail.com* helbidean edo 943 76 36 61 zenbakian.



# Bertsotan onena nor den erakusteko txapelketa

Bergarako bertsolari txapelketa hasiko dute gaur: Pol-Pol tabernan egingo dute lehenengo finalerdia, 23:00etan; hurrengoa abenduaren 14an izango da eta final handia abenduaren 28an jokatuko dute, Koplá Barik bertso eskolak antolatuta

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA Bertsozaleek gogoz itxaroten duten txapelketa gaur hasiko du bidea. Bergarako bertsolari txapelketaren lehenengo finalerdia jokatuko dute Pol-Pol tabernan, 23:00etan.

Lau bertsolari ibiliko dira kantuan: Jon Altuna *Oxan*, Unai Arantzabal, Eñaut Uriarte -azken orduko aldaketa izan du kartelak- eta Enaitz Alustiza. Bertsolariei gaiak jartzen, aldiz, Ibon Leibar *Txinbo* ibiliko da.

## Nork bere estiloa

Bertsolari bakoitzak bere estiloa izaten du, eta, hain zuzen, estilo horiek zelakoak diren



Enaitz Alustiza, 2016ko irabazlea.

azaldu du *Txinbo*-k: "Jon Altunak bertsoakera alaia du, umore ukituaz kantatzen du; Unai Arantzabal zaletasun handiko bertsolaria da; Eñaut Uriartek betidanik kantatu izan du; eta esango nuke Enaitz Alustiza txapelketa irabazteko faboritotako bat dela".

Gaurkoa lehenengo finalerdia izango da eta hurrengoa abenduaren 14an jokatuko dute, Bule tabernan, 22:30ean. Beste lau bertsolarik parte hartuko dute bigarren saioan: Gari Lopez de Muniain, Asier Kortabarria, Iñigo Arcelus eta Iraitz Artola izango dira bertsolariak. Finala, aldiz, abenduaren 28an izango

da, Bergarako kartzela zaharrean. Koplá Barik bertso eskolak antolatzen du txapelketa, Jardunen eta gaztetxearen laguntzarekin.

## Bertsoa kalera ateratzea

Bertso eskolak "osasun ona" duela diote: "Iraitz Artolak debuta egingo du txapelketan, beste bi mutiko gazte ere baditugu, neskak baita...". Aurtengo txapelketan epaile berriak ere izango dituzte.

Antolatzaileek uste dute final handiaz gain finalerdietan ere aretoak bete egingo direla.

Txapelketaren helburua bertsoa kalera atera eta herritarrengana heltzea dela diote; horrez gain, bertsolariek eurek ere publikoaren aurrean kantatzeko aukera izatea nabarmendu dute.

"Eguaztenenetan elkartzen dira bertso eskolan; lagunarte ona dute eta taldea eginda dago. Baina ez dute gura hori bertso eskolan bakarrik geratzea; herritarrengana zabaldu gura dute", dio *Txinbo*-k. Urtean zehar herrian sei bat bertso jaialdi egiten direla diote, eta saio horietan ikusten dela herrian badagoelako bertso zaletasuna.

## 'Ergelak' antzezlanak eta Lurpekariak musika, Seminarixoan

Bi ekitaldi izango dira aste bukaeran Seminarixoan. Bihar, zapatua, *Ergelak* antzezlan eskainiko du Txalo antzerki taldeak. Sara Cozar eta Joseba Apaolaza aktoreak izango dira protagonistak: bere arazo ekonomikoak konpondu gura dituen gizonezkoa proba psikologiko batzuetara aurkeztuko da. Proba horien atzean, baina, iruzurra aurkituko du.

Iruzur horretatik irteteko, eta istorioa gaizki amai ez dadin, bere onena eman beharko du protagonistak. Umorea eta misterioa izango dira antzezlanaren ardatz. Bihar izango da emanaldia, 19:00etan.

Domekan, aldiz, Lurpekariak proiektu berria izango da protagonista. Seikote formatuan arituko dira, eta, euskal musika tradizionala oinarri duten arren, musikariak eskarmentua tarteko, estiloen mugak gaindituko dituzte. *Itsasotik iturria* diskoa aurkeztuko dute etzi, domeka, 19:00etan.



**Hasi gara, urtero bezala, artisau-turroiak egiten.**

Gogorra - Biguna - Goringo txigortua - Pistatxo  
Pontxe errusiarra - Laranja trufa - Cadiz - Txokolate pralina - Fruta  
Deitu eta eska itzazu!

Ozaeta jauregia BERGARA | 943 76 10 55  
www.restaurantelasa.es | reservas@restaurantelasa.es | FB: koldolasajatetxea

**LASA** jatetxea

Atariak ostiral eta larunbat gau guztietan gure jangela berria.  
Gito jator eta atsogina. Musika-aurkeraketa onena.

Menuak aukeran

Eguneko menua: 29€  
Karta berezia: 36€  
Debagoiena: 52€

(BEZ barne)

Kinto-afari, despedida eta beste ospakizun batzuetarako aproposa.

Gabon jaietan abenduaren 24tik urtarrilaren 3ra itxita





Umeek etxera eramango dute kriseilua ikastetxetik. TOPAGUNEA

# 'Euskararen kriseilua' etxez etxe ibiliko da

Herriko hiru ikastetxeek hartuko dute parte egitasmoan eta ikasleek hartuko dute kriseiluaren ardura. Antzezlanak, kantu saioak, txokolate-jana eta afari tertulia ere antolatu ditu Hezkuntza Mahaiak Euskararen Eguna ospatzeko

## Oihana Elortza OÑATI

Euskararen Eguna da astelehenean, abenduak 3, eta herriko Hezkuntza Mahaiak egitaraua osatu du aurten ere. Euskaraldiaren azken eguna izango da, baina, euskararen erabilerak Oñatin jarraipena izateko asmoarekin, *Euskararen kriseilua* egitasmoa aurkeztuko dute astelehenean bertan.

## Eskuz esku doan kriseilua

Euskaltzaleen Topagunetik datorren egitasmoa da kriseiluarena eta "Euskaraldian hartutako rola eta ohiturak etxean eta familia giroan finkatzeko aukera eskaintzeko" erabiliko dute Oñatin, Euskarako Udaltzari Inaki Azkizuk azaldu duen moduan. Euskararen transmisioa familian sendotzea da egitasmo horren helburua, Azkizuk dioenez: "Herriko hiru ikastetxeek egin dute bat ekimen honekin. Hainbat kriseilu ekarriko dira eta ikastetxeek banatuko dituzte egitasmoarekin

## Egitaraua

### Abenduak 3, astelehena

- **11:00** *Euskararen kriseilua*. Aurkezpena udaletxean.
- **12:00** Antzerki solasaldia Santa Anan. *Ez dok hiru* antzezlanak.
- **18:00** Euskal kantu saioa eta txokolate-jana kontzejupean.
- **19:00** *Ez dok hiru* antzezlanak Santa Anan. Sarrera: hiru euro

### Abenduak 4, martitzena

- **20:00** afari tertulia Makalena elkartearen. Idoia Torregarai *Barretartia* ikuskizuna egingo du. Afalostean, tertulia egongo da euskararen egoeraz berba egiteko. Sarrerak, Txokolateixian: hamabi euro –zortzi euro ikasleek eta langabeek–.

bat egiten duten familien artean. Umeek etxera eramango dute eta euren ardura izango da garrapiztuta egotea etxean. Kriseilua etxean izango duten egunetan euskarari buruz berba egingo dute. Etxeetan euskararen erabileraren diagnostika jaso eta hobekuntzarako proposamenak lantzea ere bada asmoa".

## Sarrerak salgai daude

Urtarrilean jarriko dute martxan ikastetxeetan egitasmoa, ikasturtea bukatu arte.

Bestalde, aurten ere egongo dira antzezlanak bat eta afari tertulia. Tartean Teatro konpainiaren *Ez dok hiru, euskal musikaren benetako istorioa* izango da Santa Anara eroango duten antzezlanak. Eguerdian, batxilergo mailako ikasleendako saioa egingo dute eta iluntzean, herriar guztiendako. Makalena elkartearen egingo den afari tertuliara Idoia Torregarai gonbidatu dute.



Izaro Elorza Arregi. OÑATIKO EH BILDU

## Izaro Elorza da EH Bilduko alkate izateko aurkeztu duten hautagaia

Abenduaren 9a aurretik beste hautagairik aurkeztzen ez bada, hura izango da EH Bilduren alkategaia

### O.E. OÑATI

Alkategaiak proposatzeko barne prozesua ari da egiten Oñatiko EH Bildu, eta, horren barruan, Izaro Elorza Arregi aurkeztu zuten atzo, eguna, alkate izateko hautagai.

EH Bilduren barne arautegiaren arabera, hamabost kideen babestu behar dute zerrendaburu izateko hautagaitza, eta Elorza babestu dutenen zerrenda "eremu sozial zein instituzionalan aritu diren hainbat pertsona ezagunek" osatutakoa da.

Datorren urteko maiatzean egingo diren udal hauteskun-

deetarako EH Bilduk orain arte aurkeztu duen hautagaia da Izaro Elorza. Abenduaren 9a aurretik beste inor aurkeztzen ez bada, hura izango da, automatikoki, alkategaia, eta abenduaren 15ean izendatuko dute ofizialki. Beste hautagairik egonez gero, abenduaren 29an bukatuko diren primarioen prozesua egongo da.

Izaro Elorza Arregik 35 urte ditu eta oñatiarra da. MVEko zuzendari teknikoa da egun. Ortuzabala eta Fiare banku etiko baxkide da eta kirola, bidaiatzea eta musika atsegin ditu.



ARANTZAZU EZKIBEL

## Sarreraren aurre-salmenta makina

Kultur ekitaldietarako sarrerak erosteko leihatila digitala jarri du Udalak San Juan kalean, Udaltzaingoaren eraikineko paretan, komun publikoen ondoan. Santa Anako, kultura etxeko aretoko eta gaztelekuko ekitaldietarako sarrerak salduko dituzte. Txartel bidez bakarrik egin daiteke ordaintzea.



# Liztorren kontrako tranpak, emaitza onak

Asiako liztorrak harrapatzeko tranpa bat asmatu du Aitor Galdos oñatiarrak, eta, denbora laburrean emaitza onak izan dituela ikusi ostean, askoren interesa piztu du. Edonoren eskura utzi ditu argazkiak, gura duenak tramankulu berdinak egin ditzan

## Oihana Elortza OÑATI

Asiako liztorrak sortzen dituen arazoei aurre nola egin pentsatzen hasi, eta kaiola baten itxura duen tranpa bat egitea burutu zitzaion Aitor Galdos basozain oñatiarrari. Burututakoa gauzatu egin du. Gauzatu, probatu eta emaitza onak ematen dituela ikusi, gainera.

## Proteinak behar dituzte

Duela hilabete pasatxo jarri zituena tranpa horiek etxeko erlauntzen kontra, Urribarrin: "Bazkaloste batean jarri nituen eta bost orduan 62 liztor kateatu zirela ikusi nuen". Izan ere, hori da tranpa horien emaitza, bertatik irten ezinda gelditzen direla liztorrak.

Galdosen esanetan, euren larbendako proteinak behar dituzte liztor beltzek, eta horretarako hiltzen dituzte hemengo erlak: "Liztor langileak sartzen dira gure erlauntzetara eta erleei burua eta sabelaldea kendu, eta



Aitor Galdos, berak asmatutako tranparen aurrean, etxe ondoan. JOKIN ETXEBARRIA

muskulua duten aldearekin gelditzen dira".

Frantziatik sartu zen Euskal Herrira liztor beltza, Galdosek esan duen moduan, eta dagoeneko Galiziaraino eta hegoaldeko lurraldeetara ere irisi da.

"Asko hedatu da eta habietan pila bat sartzen dira. Ez dakit beste intsektuengan zer-nolako eragina izan duen animalia inbaditzaile honek, baina proteina asko behar dute, denak elikatzeko".

## Interesa duen edonori erakutsiko dio nola egin

Kaiola baten itxura du tranpak. Liztorrak hemengo erleak harrapatzea etortzen direnean, kaiolaren sarreratik sartzen dira, gora egiten dute eta irten ezinda gelditzen dira gero.

## Ez du patentatuko

Bi kaiola mota egin ditu, baina ez du ez bata ez bestea patentatzeko asmorik. Dio gertu dagoela laguntzeko liztorren arazoa pairatzen eta kaiola bat egin gura duen edonori: "Niri, lagungarria egin zait, eta, beste batek aprobetxatu gura badu, egin dezala". Hala, Interneten eskegi ditu argazkiak, erraz deskargatzeko moduan, "beharra duenak ikusi eta kopiatzeko".



Liztorrendako tranpa albotik, erlauntzaren sarreraren kontra. J.E.

## "Oinarri independentista mesfidati da erakundeekiko"

FERRIOL MOYA EGILEA ETA CDR-TAKO KIDEA 'DiaR' dokumentalaren egileekin tertulia gaztetxean

### Goiena komunitatea

Antixena gaztetxia / OÑATI

Asteburuan, Herrialde Katalanetatik bisita dugu eskualdean. Bartzelona probintziako Vilanova i la Geltru herritik etorriko dira hainbat lagun. Zapatuan Bergarara eta domekan Oñatira, Antixena gaztetxera, 12:00etan. Gure eskualdea bisitatzekeo aitzakia iaz urriaren leko erreferendumaren harira izan zituzten bizipenak biltzen dituen dokumentala aurkeztea da.

**Sorpresaz hartu zintuzten egun hartako biolentziak eta errepresioak?** Bagenekien polizia asko zegoela, baina hautetsontziak kentzea eta atxilotu gutxi batzuk egotea baino ez genuen espero. Haien asmoa zalantziatik kikiltzea zen. **Gertakariak zein eragin izan zuten erabakitzekeo eskubidearen aldeko mugimenduko jendearen artean?**

Proiektu independentistarekiko konbentzimendua areagotu zigun, baita zalantzak zituen jende askori ere, eta hirugarren bide baten ideia alboratu zuten.

**Hainbat arrazoiengatik, erakunde Katalanek ezin izan zuten eskatzen zitzaiena egin. Zer eragin izan zuen horrek herri mugimenduaren eta erakundearen arteko harremanean?**



Ferriol Moya. F.M.

Erakundeek uste zuten erreferendumaren ondoren estatuarrekin negoziatu ahaliko zutela. Eta estatuak bere indar guztia 155a ezartzen eta independentistak atxilotzen jarri zuen. Oinarri independentista mesfidati da erakundeekiko, neke eta norabiderik ezaren sentsazioa dago.

**Zein norabide proposatzen dute orain CDRek?**

Lehentasuna iazko batasuna lortzea da. Beste galdeketa bat lortu eta oraingoan bai, aurrera egitea.



NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA

## Etsaikeriak

Norgehiagokak, lehiak, beti izan dira gizakien artean. Egiptoarren dokumentuetan agertzen diren bezala, Kristo aurreko 2000. urterako praktikak ziren joko antolatutakoak, arautuak, nahiz eta ezagunenak Greziako *Olinpiadak* izan. Ondoren, beste mila kirol mota asmatu eta praktikak dira mundu guztian.

Euskaldunak ez gara atzean gelditzen, eta gero eta kirolari eta kirolzale gehiago daude. Kirolaren helburu nagusia disfrutatzea, ondo pasatzea eta herrien arteko kidetasuna sortzea da.

Baina gaur egun, profesional mailan, futboleko batez ere, diruaren negozioko da nagusi. Eta talde bateko eta beste zaleak hurbildu eta adiskidetu beharrean, urrundu eta etsaitu egiten ditu. Futbola eredu txar bat izaten ari da.

Giro txar hau hobetzeko ez dute askorik laguntzen komunikabide batzuek. Alderantziz, badira, tamalez, futbola edo beste edozein gai aitzakia hartuz, herritarren arteko probintziakeriak areagotzen ari direnak, harrigarria gertatzen bada ere, XXI. mendean.





Felix Sanchez oñatiarraren *Bedeinkazioa* argazkia. Selemon Barega atleta garaipena ospatzen, Elgoibarren. FELIX SANCHEZ

## 'Bedeinkazioa', 2018ko lau onenen artean

Atletismo Federazioen Nazioarteko Elkarteak (IAAF) saritzen duen urteko argazki onena izateko lau hautagaietako bat da Felix Sanchez oñatiarrak Elgoibarko krolean ateratakoa; abenduaren 4an aukeratuko dute onena, Monakon egingo duten galan

### Eneko Azurmendi OÑATI

Atletismo arloan, 2018ko mundu mailako argazki onena izan daiteke Felix Sanchez oñatiarrarena. Lau dira sari hori irabazteko hautagaiak, eta epaimahaiak abenduaren 4an hartuko du erabakia, Monakon.

Urtarrilaren 14an atera zuen argazkia Sanchezek, Elgoibarko krolean. Ordura arte ezezaguna zen Selemon Barega atleta gazteak irabazi zuen proba, eta, helmuga zeharkatu ostean, beluniko jarri zen, garaipena ospatzeko. Momentu hura aprobetxatu zuen oñatiarrak. Haren esanetan, argazkia "desberdina" da. Hainbat arrazoi aipatu ditu. "Lehenik, krosa delako. Atletismoan, baztertutako diziplina da krosa, pista askoz indar handiagoa du. Haren keinua ere esanguratsua da, Jainkoari eskerrak ematen. Atletismoko pista batean dago, eta goitik behera lokaztuta". Gaineratu du momentuan bertan ohartu zela argazkiak bazuela "zerbait be-

rezia". "Egun hartan bertan partekatu genuen Instagramen eta izugarritzko arrakasta izan du ordutik. Hala ere, esan beharra daukat orain politagoa ikusten dudala lehen baino".

Atleta bera ere erabakigarria izan da Sanchezek argazki hori aukeratzeko orduan. "Elgoibarko lasterketan egin zen ezagun. 18 urte besterik ez du, eta inoizko laugarren markarik onena ezarri du 5.000 metroko proban. Promesa izateko hautagaia da", azaldu du.

Sanchezek, normalean, ez du parte hartzen lehiaketa horretan, "argazkia bidaltzeak gastu bat dakarrelako eta parte-hartzea ordaindu egin behar delako". Hala ere, argazki hori edukita,

**IRABAZTEKO AUKERAK IKUSTEN DITU SANCHEZEK; AURKARI BAT DA BEREZIKI KEZKATZEN DUENA**

izena ematea erabaki du, eta dagoeneko lorpen handi bat bereganatu du. "Lau onenen artean egotea sari handia da niretzako, eta galan egoteko aukera izatea ohorea da. Irabaztea, berriz, sekulakoa izango litzateke", azpimarratu du.

### Hiru aurkariak

Beste hiru argazkiek dagokienez, bat da Sanchez bereziki kezkatzen duena. "Uste dut hesien aurrean etzanda dagoen kirolariarena izango dela aurkari gogorrena. Besteak artistikoa-goak dira. Oihua argazkiak, nire ustez, ez dauka ezer, eta itzalaren argazkia, oso artistikoa den arren, ez da askorik ikusten. Gero, agian, horietako bat izango da irabazle, baina, nire ustez, aurkaria bestea da".

Behin hor egonda, irabaztea izango da haren helburua. "Instagram sare sozialean faborito moduan dago nire argazkia, baina, gero, epaimahaiak izango du azken hitza", adierazi du.



BILBAO EXTREME

## Denboraldiarekin pozik

Bigarren postuan bukatu du Argider Isasti oñatiarrak udazkeneko Diario de Navarra BTT Opena –zortzi proba dira–. Horrez gain, Bilbao Extreme proba ere bigarren bukatu du asteburuan –argazkia proba horretakoa da. Isasti, ezkerrean–. Oso pozik azaldu da denboraldiak eman duenarekin, eta lortutako emaitzekin. Orain, atsedean hartzeko tarte bat hartuko duela dio.



ALOÑA MENDIKO TENIS SAILA

## Aitor Magallanes, txapeladun

Pasa den asteburuan jokatu zituzten Oñatiko Mikel Deuna Tenis Txapelketako finalak, eta Aitor Magallanes izan zen irabazle, finalean Sebas Sierra menderatuta (6-2/7-5). Hirugarren eta laugarren postua erabakitzeke partidua ere jokatu zuten. Jesus Kortabarrirrentzat izan zen hirugarren postua, Jose Luis Caballerori 6-3/6-4 irabazi ostean.

### Bazkide kanpaina martxan jarri du eskubaloiz sailak

2018-2019 denboraldiko bazkide kanpaina abiatu du Aloña Mendiko eskubaloiz sailak. Inprimakiak Zubikoa kiroldegian jaso daitezke seniorren partiduetan, edo Aloña Mendiko bulegora joanda. Bazkide-kuota hamabost euro da, eta 2019ko urtarrilean kontu korrontetik kobratuko dute. 225 jokalarik daude aurten, hamahiru taldetan banatuta.

### Liderra hartuko du Azkoagainen Endika Ruizen Aloña Mendik

Hamabigarren jardunaldia jokatu dute asteburuan Erregional Preferentean, eta oñatiarrek hitzordu garrantzitsua dute. Izan ere, Lagun Onak CD taldea etorriko da domekan Azkoagainera, 16:30ean. Gaur-gaurkoz, 25 puntu dituzte azpeitiarrek eta 21, berriz, Endika Ruizen mutilek. Beraz, hiru puntu garrantzitsu egongo dira jokoan.



# 'Juzgado de guardia', Ikusi Makusiren eskutik

Erretiratuentzako egindako lehen emanaldiaren ondotik, herritar ororentzako izango da domekakoa. Taldean sei lagun bakarrik geratu arren, aurrera segitu eta guardiako epaitegi bateko gorabeherak kontatzen dituzte oraingoan Pake Lekuko artistek

J.I. OÑATI

Adinean aurrera eta Ikusi Makusi antzerki taldea murriztuz doa, artista kopuruari dagokionez. Zenbait lagunek utzi egin dute azkenaldian, eta antzezto-kira ateratzeko gertu sei lagun baino ez dira geratu, sei emakume. Ohiturari jarraituz, hala ere, aurtengorako ere prestatu dute obra berria, *Juzgado de guardia*: "Oraindik bagenuen animoa, eta esan genuen: 'Zergatik ez saiatu?'. Saiatu gara eta, bueno, gero eta huts handiagoak egiten ditugu, burua gero eta okerrago dugulako, baina uste dut nahikoa ondo atera dela", zioen Axun Artzua-



Erretiratuentzat egindako emanaldi eguneko irudia. BERBIA OÑATI

ga zuzendariak duela hiru aste Pake Lekuko bazkideentzat egindako emanaldiaren ostean.

Antzezlanak, izenburuak dioen bezala, guardiako epaitegi bateko gorabeherak kontatzen ditu: "Errealitatekoak ez dira gurea baino hobeak, eta haietan gertatzen diren antzerako gauzak gertatzen dira gurean ere. Haietan, gainera, ez da irtenbide onik egoten; gurean, oster, dena konpontzen da. Borroka badute epaileak eta abokatuak, baina, azkenean, konpondu egiten da dena".

## Herritik kanpora ez

Domekako emanaldia 19:00etan hasiko da, Santa Anan, eta sarrerak saltzen 18:30ean hasiko dira, 5 eurotan. Saio horren ostean, mojen komentura eta erresidentziara joango dira antzezlanarekin; herritik kanpo, baina, ez dira aterako, "asko nekatu barik" ibili nahi dute eta.

Herrian bertan jarraitzeko asmoa badute, hala ere: "Ahal dugun bitartean hemen egongo gara". Eta ateak zabalik dituzte, beste inork antzerkiarekin aproba egin nahiko balu ere.

## Ikasturteko lehen kontzertua egingo du gaur Ganbara Txikik

Ganbara Txiki osatzen duten talde guztiek hartuko dute parte, tailerrekoek, txikitxoek eta txikiek. Pertsiar merkatu batean kokatuko da kontzertua, eta talde guztiek elkarrekin abestuko dute amaieran. Emanaldia Aitor Garitano gazte bergararrak zuzenduko du, Aitor Biainekin batera. 19:30ean izango da, institutuko aretoan.

## Caboverde rock talde madrildarra, domekan gaztelekuan

Juan Blasek sorturiko proiektu musikala da Caboverde. Aurretik, Nothink eta Minor Empires rock talde ezagunetan ibilia da, eta, orainoan, Javier Seisedos, Pablo Ponz eta Tweety Capmanyekin elkartu da. Rock alternatiboaren baitan mugitzen diren hamar abesti grabatu dituzte *La peor versión de nosotros mismos* diskoan. 12:30ean da saioa.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
[blasaga@conef.es](mailto:blasaga@conef.es)

#### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### AHOLKULARITZAK

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABAILETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
[andrama@arrakis.es](mailto:andrama@arrakis.es)

#### GARRAILAN

BERGARA / Mabiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

### ARKITEKTOAK

#### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
[www.biark.net](http://www.biark.net)

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
[uribesalgo@uribesalgo.es](mailto:uribesalgo@uribesalgo.es)



# "Euskadi Murias-ek ezin du talde izaera galdu"

**JON ODRIOZOLA** EUSKADI MURIAS TALDEKO ZUZENDARIA

**ZIKLISMOA** Urte ikusgarria egin du talde orlegiak, "inflexio puntu" izateraino; erronka, baina, errepidean eta bulegoetan dago: "Bakarrik ezin dugu gehiago egin"

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Jon Odriozolak urteak daramatza txirrindularitza profesionalak duen babes falta nabarmen-tzen. Errepidean zaila da 2018 honetan egin dutena baino lan txukunagoa egitea, eta 2019ra begira Tourreko agintariek aurretiko izen-ematea egiteko aukera eman diete. Taldeak hazten jarrai dezan, baina, Oñatikoak dio laguntza ezinbestekoa dela. **Azaroa, txirrindulariendako oporraldia; taldeetako agintariendako, ordea, ate asko jotzeko sasoa.**

Betiko martxan gabilta gu, estres puntu batekin. Baina dago-kigun lana egiten gabilta. Gainera, gainean dugu denboraldi-aurrea. Dagoeneko egin dugu lehenengo kontzentrazioa, eta, egia esan, denboraldia amaitu eta hurrengo hasi, ia segidan egiten dugu gaur egun. Dagoeneko hasi zaizkigu lanak pilatzen. **2018a inflexio puntua izan da Euskadi Muriasendako?**

Inongo zalantza barik. Kirol arloan talde honek aurten lortu duena izugarria izan da, kontuan izanda baliabide aldetik muga handiak ditugula eta kontinental profesional mailako taldea garela. Euskal txirrindularitza iraganen gauza handiak egin dira, baina orain egiten ari garenaz ere etorkizun berba egingo da. Orain ez da horrenbeste baloratzen, baina urte batzuk barru baloratuko dugu. **Esan duzu datozen lau urteotan taldea Tourrean etapa garaipen bat lortzen ikusi gura duzula. Batzue-dako, handikeria izango da, baina aurten Camperonan egin duzue egin eta gero... [Vuelto 13. etapa Euskadi Muriasen Oscar Rodriguezek irabazi zuen]**

Euskadi Murias gertutik jarraitzen dutenek ilusioarekin bizi dute egunen baten talde honek Tourrean irabazteko aukera izatea. Are gehiago, orain arte genituen ilusioak betetzen ari garela ikusita. Beste batzuen-



Jon Odriozola. EUSKADI MURIAS

## "PUBLIKOAREN ERREKONozIMENDUA JASO DUGU, BAINA EKONOMIKOKI BEHAR DUGU BABESA"

dako handikeria izan daitekeela? Guk umiltasun osoz jarraituko dugu lanean, serio, baina badakigu aurten lortu ditugun helburuen ondoren hurrengoak horiek izan behar direla. **Tourrean etapa bat irabaztea oso zaila da, baina lehenengo pausoa eman duzue, aurretiko izen-ematea egin ahal izan duzue.**

Gu gure pausoa ematen gabilta. Hasiera-hasieratik oso harreran onak izan ditugu Tourreko antolatzaileekin, eta lan horri esker bagoaz gure bidea egiten. Hor, Francis Lafargueren lana ezinbestekoa izan da. Baina, sarritan esan dudana, guk bakarrik ezin dugu aurrera egin, beste batzuen laguntza ere behar dugu, babesletza, instituzioak... Gure eskuetan dagoen dena egiten gabilta, eta, laguntza izaten badugu, Tourrerako bidea egingarri ikusten dut.

## Zelakoa da Tourreko aurretiko izen-ematearen prozesua?

Ez da erraza aurre-augeratuen artean egotea. Halako lasterketak plataforma ezberdinek antolatzen dituzte -Tourra Amaury Sport Organisation (ASO) plataformak antolatzen du-, eta Tourreko antolatzaileen aurre-augeraketan badakit beste bizpahiru talde ere badaudela. Baina hemen garrantzitsuena da Tourreko antolatzaileek, jada, Euskadi Murias kontutan hartzen dutela. Eta hori aurrerapauso handia da, kontuan izanda guk urte bakarra daramagula kontinental profesional mailan. **Lasterketa askotan amaitu duzue 10 onenen artean; guztira, hamar etapa garaipen dituzue... Zein nota jartzen diozu taldeari?**

Bikain altua. Lehen aipatu moduan, uste dut taldeari kategoriako lehenengo urtean ezin zaiola gehiagorik eskatu. Zerenolako lasterketak irabazi ditugun, zelan irabazi dugun... Eta jakinda zein den gure aurrekontua. Nik aurtengo urtearekin ziklo bat ixten dut talde honetan, duela urte batzuk talde honekin ezarri nituen helburuak bete ditut, akaso, azkarregi, baina

lan serio baten ostean. Eta orain, fase berri bati ekingo diogu.

**Dena dela, taldearekin errepidean lortu dituzuen garaipenak besteko albiste ona izango litzateke babesle berrien etorrera.**

Txirrindularitza egoera zailean dago, ez da batere erraza babesle berriak bilatzea, eta enpresak ere ez dabilta momenturik gozorian. Akaso, ez daude krisialdi urteetako larritasunekin, baina egoera ez da erraza. Errekonozimendua beste modu batean iritsi zait, izugarria izan da jendearen partetik jaso dudana babesa, Euskaltel Euskadiko urteetan baino errekonozimendua handiagoa jaso dut. Baina egia da horrek ez duela balio izan babesle berriak proiektura gerturatzeke. Eta pena galanta ematen dit, gure partetik dena egin dugulako. Baina Murias enpresaren babesari esker lanean jarraitzea dago-kigun.

**Ikusmina piztu duen fitxaketa bat egin duzue, Beñat Intxausti.**

Berez, muga handiak ditugu fitxaketak egin ahal izateko, aurrekontu txikia daukagulako. Beñaten kasuan, baina, bion partetik egin dugu apustua. Taldeko ziklista gazteendako oso garrantzitsua izango da Beñat moduko esperientziadun txirrindulari bat ondoan izatea, eta gure partetik ahalegin guztiak egingo ditugu Beñat ostera ere txirrindulari sentitu dadin. [Azken urteak geldirik egin ditu mononukleosi baten ondorioz] **Debagoieneko ziklista Julen Irizarrek eta Mikel Aristik taldean jarraituko dute 2019an.**

Bai, eta asko espero dut biengandik, taldearen exijentzia maila oso handia delako. Bestela, ezinezkoa izango litzateke aurten batutako emaitzak batzea. Izan ere, Julenek profesional mailako lehenengo garaipena eskuratu du aurten, Portugalen, eta hor erakutsi du kapaza dela etapak irabazteko, baduela irabazteko sena; eta hori oso gauza zaila da. Eta Mikel Aristik, berriz, Tro Bro Leon lasterketan [Paris-Roubaix txikia] erakutsi zuen halako lasterketetan zer egiteko gai den -zazpigarren izan zen-. Lasterketa ederra egin zuen, horrelakoetan sekulako maila egoten da eta aurrean ibiltzeko gaitasuna daukala erakutsi zuen. Esperantza handia daukat biek, eta espero dut aurten beste salto bat egingo dutela aurrera.



Valverde sinatutako maillota. J.A

## ZIKLISMOA Gatzagan egingo dute gaur mahai-ingurua

*Euskal txirrindularitza izenburupean, mahai-ingurua egingo dute gaur, egubakoitza, Leintz Gatzagako Kultur Etxean (19:00). Mikel Bizkarra, Ivan Velasco eta Haimar Zubeldia egongo dira mahaiaren bueltan. Bestalde, Dorletako Santutegian jarri duten ziklismoaren gaineko museoak badu, jada, Alejandro Valverde munduko txapeldunaren maillota erakusgai.*



Urdenetaren kontrakoa. GOIENA

## ESKUBALOIA Gasteizko Corazonistas hartuko du Fagor Industrialek

Joan den astean Ugeragako enpresa kontra galdu eta gero, Fagor Industrialek atzerapauso txiki bat egin du sailkapenean, baina horri konponbidea jartzeko moduan egongo da bihar, Corazonistas kontrako partidua irabazita (18:00). Ford Mugarri Arrasatek, berriz, etxetik kanpora jokatu du, zazpigarren dagoen Gure Auzunerren kantxan (zapata, 19:30).



# Badute kirola sustatzen jarraitzeko hitzarmena

**ESKOLA KIROLA** LEK egitasmoak bost udalekin sinatutako akordioari esker, 1.000 ume baino gehiagorekin lanean jarraitu ahal izango du: "Honek ahalbidetuko du arlo ekonomikoan indarrak xahutu beharrean kirol arloa erdigune izatea"

**Xabier Urzelai** ESKORIATZA

Leintz Eskola Kirolak bost herri-tako 1.000 ume baino gehiagorekin dihardu lanean azken urteotan, eta horretan jarraitu ahal izateko hitzarmena sinatu zuten martitzenean hainbat udalekin. Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Aramaioiko eta Leintz Gatzagako udalek erakutsi diote babesaren proiektuari: "LEKeko egitura eredu-garri da Gipuzkoan, eta hau azpimarratu nahiko genuke: antolaketan, eskaintzan, monitorean profileen, gaztetxoaren inplikazioan... Eta, gaur ikus dezakegun moduan, baita udalen inplikazioan ere. Horrekin batera, kirola euskaraz sustatzea bermatu gura duen egitasmoa da", adierazi zuen LEKeko ordezkari Susana Santorrek.

**Nesken parte-hartzea**

Hitzarmenaren aurkezpenaren aipatutako beste datu nabarmenetako bat da neska kopurua gorantz doala, eta helburu horrekin lanean jarraituko dutela gaineratu zuen Santorrek. Era berean, baina, mutikoen kopuruari etsi gura diote. Eta ohiko kirol jarduerekin batera aparteko ekintzak ere egiten dituztela nabarmendu zuen, sarri, umeen eskaerei entzunda,



LEKek antolatutako hiruko saskibaloitxo txapelketa, Arrasaten. GOIENA

horiek izaten direlako arrakasta handien izaten dutenak. Era berean, monitorea talde handiak diharduela lanean adierazi zuen, eta horiek trebakuntza saioak jasotzen dituztela.

**Ziurgabetasuna amaitzea**

Bestalde, LEKeko presidentea Joseba Zabalak hitzarmenaren garrantzia nabarmendu zuen: "Bailarako haur eta gaztetxoaren kirol hastapenak estrategikoa izan behar du bailarako udal politiketan". Aurreko urteotan izan duten babes falta nabar-

mendu zuen: "Izan dira ziurgabetasun garaiak, eta udalen partetik babes falta ere sentitu izan dugu. Baina gaur sinatzen dugun hitzarmen honek, lanean jarraitzeko berme ekonomikoa ematearekin batera, udalek proiektuari ematen diozuen babes ere islatzen du". Eta horrekin batera, hitzarmenak lagunduko du LEKek indarra beste zeregin batzuetan ez galtzeko: "Horrela, guk denbora luzeagoa eskaini ahal izango diogu kirol esparruari, eta ez horrenbeste arlo ekonomikoari".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

**Mondra-Real Union**

Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Anaitasuna-Bergara**

Domeka. 17:00. Azkoitia.

**Aretxabaleta-Zarautz**

Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERE.

**Urola-Aretxabaleta**

UDA

Zapatua. 16:00. Argixao.

**Getariako-Mondra**

Domeka. 17:00. Orio.

**Aloña Mendi-Lagun O.**

Domeka. 16:30. Azkoaga.

EMAKUMEZKOEN ERRE.

**Leintz Arizme.-Touring**

Zapatua. 17:15. Ibarra.

**Bergara-Zarautz**

Zapatua. 16:15. Ipintza.

LEHEN ERREGIONALA

**Aloña Mendi-Bergara**

Zapatua. 18:00. Oñati.

**Eibartarrak-Arizmendi**

Domeka. 17:30. Unbe.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELK.

**Eskoriatza-Scalibur**

Domeka. 18:30. M. Muñoz

**Mondrate-Scorpio**

Zapatua. 17:30. Musako.

**Gernika-Aretxab. UDA**

Zapatua. 16:45. Gernika.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

**Lauburu-Eskoriatza**

Gaur. 21:15. Ibarra.

GIP. BIGARREN MAILA

**Mondrate-Ventanas I.**

Zapatua. 17:00. Iturripe.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

**Gure Au.-Ford Mugarri**

Zapatua. 19:30. Gasteiz.

**Fagor Indus.-Corazon.**

Zapatua. 18:00. Urduliz.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

**Errotab.-Aloña Mendi**

Zapatua. 16:30. Ermua.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

**Haritza-Soraluce**

Domeka. 10:00. Eibar.

GIP. BIGARREN MAILA

**Sesiñe. Aloña-Urnieta**

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

SASKIBALOIA

EBA

**Pas Pielagos-MU**

Domeka. 18:00. Castañe.

GIPUZKOAKO SENIORRAK

**Take Orbela-Mekalki A.**

Zapatua. 16:00. Tolosa.

GIP. BIGARREN MAILA

**Bergara Sora.-Antigua**

Zapatua. 16:00. Bergara.

GIP. HIRUGARREN MAILA

**MU C-Saski Axular**

Domeka. 16:00. Iturripe.

**Mundarro-MU C**

Zapatua. 18:00. Astigarra.

GIP. HIRUGARREN MAILA

**Mekal. Aloña-Oiartzun**

Zapatua. 18:00. Zubikoa

**Eibar-MU C**

Zapatua. 18:15. Ipurua.

EMAKUMEZKOAK

**Eskoriatza-Añorga**

Gaur. 20:15. M. Muñoz.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELK.

**Aretxabaletan. Gaur,**

**18:00etan hasita:**

Alebin mailako zazpi

norgehiagoka.

**Oñatin. Gaur, 18:15ean**

**hasita:**

Alebin eta infantilek sei

norgehiagoka.

**Bergara. Gaur,**

**19:30ean hasita:**

Gazteen eta nagusien

partidu bana.

**Arrasate. Gaur,**

**20:30ean hasita:**

Kadeteen eskuz binakako

partidu bat.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELK.

**Kanpanzar ART-BRT**

Zapatua. 16:00. Mojategi.

## Real Union hartuko du Mondrak eta Zarautz Aretxabaletak

**FUTBOLA** Erregional Preferentean, hirugarren dagoen Aloña Mendik liderraren bisita izango du etzi

**X.U ARRASATE**

Liga hasiera txarra egin ostean, Aretxabaleta hasi da dagokion tokira itzultzeko emaitzak batzen. Azken sei partiduetatik lau irabazi ditu eta etxetik kanporako bolada txarra ere eten du, Bergaran irabazita (0-1). Bada, sailkapenean gorako bideari jarraitzea emateko, domekan bi puntu gehiago dituen Zarautzi irabazi beharko dio.

Mondrak, berriz, azken hiru partiduetatik bat galdu egin du eta beste bi berdindu. Eta hori nahikoa izan da urrian eta aza-

ro hasieran egindako lan ikusgarria –lau garaipen– zapuzteko. Hala, sailkapenean atzerago dagoen Real Unioni irabazten ahaleginduko dira bihar (16:30, Mojategi). Bergara ere ez dabil ondo, eta, hasiera batean, lider dagoen Anaitasunaren zelaia ez dirudi lekurik egokiena denik egoerari buelta emateko (domeka, 17:00). Baina horiek dira plaza erakargarrienak.

Erregional Preferentean, nabarmenezkoa da hirugarren dagoen Aloña Mendik liderra hartuko duela domekan (16:30).

## Bost udalen babesarekin

Aretxabaletako, Arrasateko, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako alkateak gustura agertu ziren urtebeterako (bigarren urtera luzagarria) hitzarmenarekin –Aramaioiko alkate Lierni Altuna ezin izan zen egon–; azpimarratu zuten LEKen neska kopuruaren igoera eta ekintza asko umeen eskaerei entzunda antolatzen dituztela.



Joseba Zabala, erdian, alkateek lagunduta. M.A.



# "Belarritik bihotzeraino iristen den soinu banda"

Mondragon Taldeari musika banda jarri dion 'Humanity at music' egitasmoaren aurkezpena egin zuten atzo Arrasaten. Bertan izan ziren korporazioko arduradunak eta baita parte hartu duten konpositore, bertsolari eta ilustratzaileak ere

**Amaia Zabala** ARRASATE

Jon Sarasua izan da Mondragon korporazioaren soinu bandaren letren egilea, eta, hasiera batean proposamenak ezustean harra-patu bazuen ere, interes handiz heldu zion berehala: "Kooperatibagintzan horrelako zerbitu egiten den lehen aldia da, beharrezkoa zen dimentsio sinboliko eta artistiko batzuk lantzea". Gaineratu du "nahiko konplexua" izan dela horrelako egitasmo bati letra jartzea: "Sinpletasunaren eta sakontasunaren arteko konbinazioa bilatzeko borroka izan da".

Bitxikeria moduan, aipatzekoa da, lehenik, Jon Sarasuak letrak sortu dituela eta, ondoren, Fernando Velazquezek horiei melodia jarri diela, eta ez alde-rantziz, ohikoena izaten den moduan. "Velazquezek esan zidan, lehenengo, pelikula ikusi, sentitu eta usaindu egin behar duela, doinua jarri ahal izateko ondoren", argitu du Sarasuak.

Bestalde, Sarasuak azpimarratu du *feeling-a* eta elkar ulertzea izan dela letragilearen eta konpositorearen artean, eta etengabe harremanetan egon direla: "Esan daiteke guztia biona dela, berak letretan eragin du eta nik ere bai musikan".



Proiektuan parte hartu duten 5 lagun, atzoko aurkezpenean. JAGOBA DOMINGO

## Bihotzera doan soinu banda

Fernando Velazquez konpositore bizkaitarra ere "oso pozik" azaldu da egindako lanarekin eta "oso esperientzia ederra" izan dela esan du: "Historia ezezagun baina polita eta ezberdin bat kontatu dugu, azalpen poetiko artistiko baten bitartez, baina, aldi berean, guztiek ulertu, disfrutatu eta erraz abesteko moduko lana da, belarritik bihotzera iristen den soinu banda".

Konpositoreak gaineratu du Sarasuak egindako letrak "zozagarriak" eta erritmo handi-

koak direla eta "plazera" izan dela letra horiei doinua jartzea. Aurreratu du instrumentuei dagokienez abesti bakoitza ezberdina dela: "Abesti gehienek Euskadiko Orkestraren kolaborazioa dute, baina badira batzuk bateriaren edo gitarraren doinuekin ere".

## Argazki zaharrak eta egungoak

Maite Mutuberria ilustratzaile nafarra izan da egitasmoko liburuaren diseinatzailea eta marrazkien egilea, eta "erronka handia eta ezberdina" baina

polita izan dela azaldu du: "Harri-ridurarekin, baina pozez hartu nuen proposamena; hainbeste artistarekin elkarlanean aritzea oso aberasgarria izan da".

Ilustratzaileak argitu du Mondragon korporazioko jendeari omenaldi bat egin nahi izan diola eta argazki zaharrak eta egungoak lotzen dituen collage bat egin duela. "Forma geometrikoak ere sartu ditut, konstruktibismo errusiar estilokoak, erritmoa irudikatu eta mundu fantastiko batera eramaten baitute". Amaitzeko, Mondragon korporazioaren txikitasuna eta aldi berean handitasuna munduarekin lotzen ahalegindu naiz", gaineratu du Mutuberriak.

Emakumeen presentzia handia da ilustrazioetan, eta autorea adierazi du Mondragon korporazioaren historian emakumeek garrantzi handia izan dutela eta hori plasmatu nahi izan duela.

## 8 kapitulu, 8 bertsolari

Proiektu musikalaz gain, liburu bat ere badu *Humanity at music* egitasmoak, eta, liburu horretan, abestien letrak, ilustrazioak, bertsoak eta idazleen testuak daude. Bertsoei dagokienez, bertsolari bakoitzak liburuko kapitulu bati ezarri dio bertsoa. "Nazioartekotzeari bertso bat jartzea tokatu zait niri eta oso eroso izan da lan hau egitea, sortzaile bezala inongo oztoporik gabe, atera zaiguna esateko askatasun osoa izan baitugu. Gainera, gertuko jende asko daukat kooperatiban lanean: gurasoak, lagunak, bezeroak, eta abar. Beraz, hasieratik ilusioz hartutako proiektua izan da", dio Xabi Igoa bertsolari aramaioarrak.

Proiektuan parte hartu duen beste bertsolarietako bat Julio Soto izan da, eta gonbidapena

